


JAKIN

EUSKAL-GAZTEDIA KULTURA BIDEETAN



14

A U R K I B I D E A

TEOLOGI TA FILOSOFI SAILLA

«Berri Ona» etorri zauku	A. Erdozaincy-Etchart	7
Kristo Gizadiaren Buru	Joxe Austin	20
Eliz-gizaldia	OsaHar E.	35
Zugan dut itxaro	Iztucta'tar P.	55
Kristianismua ta Filosofia	Andonegi'tar X.	60
Descartes'en zalantza-bidea	Iraolagoitia'tar P.	66
Apaiz zera, kristaua	Muxika'tar E.	70

KULTURA SAILLA

Gizona diruaren gose	Otaggi'tar J.	2
Jainkoa mundura?	Intxausti'tar J.	11
Gizpnaren jatorria	Errupino An	25
Flandes eta bere i?kuntza	Azurmendi'tar J.	39
Gaurko karakterologiaren burubidea arrotzen	Baztarrika'tar D.	75

EJJCARRIZKETA

Orixe jaunari	J. San Martin	16
Jesus'en Biotzaren Deya	Baztarrika'tar D.	29
Itz gogorak euskeraz	Orixe	30
Idazki agiria. Etxaide'tar Jon'i	Agerre'ko Balendin	47
Gogaide ez, baiña bai adiskide	Txiliardegi	57
Orixe'ri erantzuna	Kamiñazpi	59

SASKI-NASKI

Euskaltzaindiaren txapelketak: 19; Lankideeri oarra: 19; Zabaldu: 34; Sujerenziak: 46; Zenbaki zaarrak: 54; A mugitza dala-ta: 78; Iztegitxoak: 80.

SAL-NEURRIAK

Españi'an	{	alea: 17 pta.
	{	urtekoa: 50 pta.
Atzerrian	{	alea: 25 pta.
	{	urtekoa: 13 pta.

Ai gazkia: *Ojangurer*

Jakin

(Pro Manuscripto)

14'gna. Arantzazu'n

Ilbelta-Jorrailla

1961

A6UR!

Ere buruari ezarri ion eginkizuna bete uan, eta ba-
oa. Ire eskuetan azi duk —iñoretan egin badik—
gure aldizkaria. Ordurik onenak berari eman dizkiok,
eta gaur JAKIN'ek, leenen muiñoak atzera utzita,
aldapa berriari ekiteko adorerik baldin badik, ik opal-
du dizkioan izerdiengatik duk geienbat. Eskerrik as-
ko, Kepa!

Ezagutzen ote dizkiagu, gero, gizonok gere bideak?
Bizitza-bidearen luzea, illuna... Ez aal duk, ba, etor-
kizuna aldiaren illunbea? Zer zekiagu, izan ere, guk
aldiaren erraiñu orrezaz! Ta bizitzak illunbe orre-
tara bultzatzen gaituk!

Gure bideak banatu dituk, baiña ez barne-ame-
tsak. Ez! Ik ba-dakik JAKIN eurea dukana. Etze-
gok emen esan bearrik. Eta JAKIN'ek ere ba-zekik
edozetarako prest aukala. Maiteminduek, sakabana-
tzean, ainbat aldiz illunabarrez elkarrekin amestuta-
ko izarraren ñirñaritan elkar-besarkatzen omen dir
tuk... Guk ere ba-diagu izar ori: JAKIN'en Zuzen-
daritza bakarrean batu gintuan Jainko Onak, gogoz
ta biotzez bertan jarrai dezagula.

Eskerrik asko berriro ere, Kepa! Baiña laister ar-
te. JAKIN'en ataritik zai gauzkak.

JAKIN'en Zuzendaritzak

GIZONA DIRUAREN GOSE

OTAEGI'tar JOAN, Sakramentinoa

Sarrera bidez

Aspaldian gizarte gauza askotarako lozorro ikaragarrian bizi izandu gera. Ala ere azken aldi ontan arazo oiek interesdun zaizkigu. Kontzientziak mugitu bearra ikusi dute askok nunai ta edozertan. Argi onek eraginda ari da jendea bultzaka. Era berean or dijoakigu gizadia esnatzen.

Nere lerro anek ere beste eragin txiki bat emateko asmoz zuzendu ditut. Beude ortarako.

Dirua nola erabilli

Alderdi onixe bakarrik lotuko natzaio lan ontan. Bestalde diru gosearen egarri biziena ortatik zerbait

lortu ondoren sortzen da, beste edozein atsegiñetan bezelaxe. Beraz, emen esan dezakeguna diru egarbera dan gizonari ongi datorkio.

Diru apur bat eskuratzea kontsegitu duen gizonak zer pentsatzen duen ba-dakigu: Ura erabilli, apur ori nun cdo nun jarri geiago lortzeko asmoz. Geienetan beste ezer askok ez du arduratzen.

Jakiña dago dirua erabiltzean ere ze irizpide duan: toki edo era *reguruan* eta *etekin* aundia eman dezaikenean jarri. Au da: *Segurantzia* ta *Irabazia* billatzen ditu. Ta besterik etzaio bururatzen. Izan dituzke noski asmo txarrik gabe egiten dutensk; batez ere, ezerezetik zerbaitera etorri diranetan; aurrera jo bearrarr.n itsumenak zuzentzen baiditu. Egin duten alegiñak eta ar-

tu dituzten nekeak saria merezi dutela argi dago, baiña ze bidetik ibilli diteken ere begiratu bear da. Zilleiztiak ba-ditu ontarako legeak, eta, kristau batek kontuan eukitze-koak dira.

Ondo dago gero ta geiago irabazten saiatzea; Jainkoak ere antxe jarri zuen gizona atsegin Baratzan lurra landu zezan eta bertatik sortutako frutuaz bizi zedin. Irabaziak bidezkoak izateko naiko da zuzen jokatrea.

Gizarlearen or.erako lanean diardunak ta onen aberastasunak ugaritzen ari danak, bidezko du baita, guzien ouaren vgaritze ontaz bere lanari dagokionez apretxatzea. Alaz ere, neurriak zeatz erabakitzeoan otioko ira puntu aueli gogoan euki bear dira:

1.—Jainkoaren legeri zor zaien begiramena.

2.—Urkoaren eskubideak ez azpiratzea.

3.—Ondasunak erabiltzean fedearen eta arrazoiaren bidea jarraitzea

Dirua enpresa batean, bankuan, aurrezki kutxan eta abar ipinlzerakoan emailleak ba al daki enpresa, banku edo dalako orrek Jainkoaren legeak beteko dituenik? Ez da antziz ere. Geienetan ez beintzat. Ta esana ez bezait inork gaizki artu. Olako bay,kun oiek eta geiago ere bearezko ditu gizarteak. Gaiñera, proba baifio len ez dago esaterik inor gaiztoa danik. Ikustekoa da ordea, gaurko gizadiaren egoera. Ba-

tzuk ondasunez aseta dirutan igari; ta, geienak goseak amorratzen, itxuraz bizitztko erarik ez dutela. Nun edo nun or daude egoera onen sus-traiak! Ilhua ez danak ba-daki. Ara nun: bateko, geiegi irabaztean, e!a, besteko, ondasunak gaizki erabiltzean.

Munduko egoera oni zuzenbidea jartzeko gogo beroa bear du kristauak-

Kristo'ren seme izan nai badu. Gogoa ez da naikoa ordea, lanari ere ekin bear zaio ta urrutira joan gabe baezpadare. Bakoitza bere etxea zuzen'tzen asi bedi lendabizL bere diruak ondo erabiltzea izango du-ta zaillena. Kristau batek ez da naiko *segurantzari* ta *irabazari* begiratzea, beste *segurantzi* bat ere lortu bear du kristau bezela jokatu nai badu; zera alegia: bere diru ta ondasunak kristauki erabiliko diranaren *Segurontzia*. Norberak bere lan-tegietan erabiltzen baditu geiegizko irabazieri ukoa ematearekin dana egiña dauka; baiña beste nunbait jartzen baditu segurantzi ori lortu bear du.

Ondasun oiek artzen dituzten eapresak amaika bider egin dituzte bear ez bezelako irabaziak. Mundu zabalean zenbat baliatu ote dira bes-tek utzitako diruaz irugarren bati lapurreta egiteko! Esate baterako, jo dezagun Joseba Koxkote'k Olategi-gi burni lantegiko jabeeri eun milla pezta utzi dizkiela, bera ere akzio-dun egiñik, irabaizetan zati bat izan dezan. Olategi lantegiko jabeak ordea, jeneroa galestiegi saltzen badu-

te erosleeri lapurtutako zerbait gelditzenaioazkenean Joseba Koxkote'ri, irabazien banaketa bidez egin badute beintzat. Auxe bera gertatuko da langilleeri zor zaien eran ordaintzen ez badiete.

Fla •ini.a bankuan edo beste nonai jartzen badu ere berdin gertatu dezaioke.

Len esan dedan bezela ez dago iñori gaizto izenik ematerik ala dala jakin baiño len; baiña, gizartea nola dagon ikusi, zazpigarren aginduak ze dantzak artzen dituen jakin, eta, nolanai ere, diru edo ondasun oiek kristauki erabiliko diranaren segurantzirik ez dagola aitortu bearrean arkitzen gera. Ori guzira itzegiñez. Gero, kasu bakoitzean, norberak ikusi bear du gauzak ze eratan dauden.

Beste problema bat ere sortu oi da. Askotan premiazkoen diran gauzak sortu ta eratzeko dirurik ez dago ta, bien bitartean, alperrikako edo gaitzerako obrak egiteko nai aiña ta geiago biltzen da. Olakotan zentzun geiago bear du kristauak. Gizarteko ona nun dagon eta nola sortu diteken jakin bear luke; edo, dana dala, jakin gogo bero bat izan. Bestalde, gizarteak berak eta Estaduak ontarako erreztasunak eman bear dituzte. Laterriaren egitekoa orixe baida: guzien ona zaindu ta gero ta geiago lortzen saiatu.

Dirua rmla zaindu

Esanarekin naiko dala pentsa de. zake norbaitek, baiña ez da ala. Dirua ondo jarri ta gaiñera zaindu egin bear baida guziz kristauki erabililla izan dedin. Enpresa bateko akzioak artu dituenak, emen edo an akziodun egin danak, gero, Akziodunen Bazkuna biltzen danean, an egon bear du berak edo bere ordezeko on batek; eta erabakiak artzerakoan bere itza eman kristau zintzo bezela. Autarkietara jotzen danean, kontzientziak eskatzen dio, berak ere botoa eman dezala ondo pentsatu ondoren.

Ontan ajolagabekeri ikaragarria dago. Akzio txiki xamarrak dauzkaten ugari da nunaiko lantegi ta obratan; baiña oiek geienetan ez dute zer esanik, ez zer egiñik, Dana aundi ta gutxi batzuen eskuetan utzi ta kifo. Beaiak naiko dnite bere garaiean irabaziak biltzea. Ori bai: irabaziak aundiak eta seguruak izan ditczela; baiña ortik aurrerakoa... or konpon ! Ori ez da beaiantzat egiten dana.

Ta, okerrena' arazo onek ez dula zuzenbide errexa. Danen sustrai bezela ezjakiña baidu. Asko ta asko ez dira gauza enpresa bat zuzenleko, ez eta zilleiztiak emandako legeak betetzen diran ala ez jabetzeko. Beraz, erresponsabilidade aundirik ez dezaiekegu eskatu. Ala ta guziz ere beren ondasunak ongi erabiltzen saiatu bearra daukate, al du. tela ordezeko on bat aukeratuaz. Gi-

zon beteak billatzen alegiñak egin bitzate. Ordezko ona izateko bi doai bear ditu: zintzotasuna ta jakinduria.

Okerrak nola zuzendu

Akatsak billatzea errexagoa da beti ere ulsak zuzentzea baiño. Dana dala ortik astea da egokiena; ikusten ez duenak ez daki pausoa bide barruan ala bidez kanpo ematen duen. Akatsak ba-dakigu nun nauden eta nolakoak diran; nola zuzendu ditzakegun adieraziko dut orain. Iru bide izendatuko ditut.

1.—Katolikuen kontzientziak esnatuaz.

Lan aundia benetan eta denbora askotxo bearko duena; baiña bearbearrezkoa. Onuzkero ezin gindezke lotan egon. Gure krislauak noizbaiten gizarteko arazoetan ondo iokatzeko gauza izan bear badute, öntan aurrera jo bear dugu. Azken aldian gero ta maiteago du jendeak gizarte arazoa. Jakin nai bero bat somatzen da langilleen eta kultura pixka dutenen artean ere. Bideak idikiak daude, ta, pozteko da.

2.—Katoliku akziodunak batncz.

Bi eratara egin ditezke:

a) Enpresa berean, Dauden artan bertan katolikoak bildu eta bat egin. Gero, erabakiak artzerakoan, beren indarra aundiagoa litzake onela. Beren esanak begiramenez artuak izango lirake ta maizago entzunak. Enpresatako katoliku akzio-

dunak ontara eratu ezkeru zenbat enpresa erabat katoliko biurtuko ote lirake!! Amaika bai!! Ez da ordea, begi klixka batean egin ditek lan. Gaiñera biotz eta asmo oneko jende ugari okertzen du diruak. Dana dala, berez, bide egokia da izendatu dugun au. Ta, bear bada, gauzak leunean ekartzeko ta ondoren onak izateko onena.

b) Enpresa berrietan. Auxe litzake egitekoa: lenbizi ta beste ezer baiño len, ondasunak kristau legez erabiltzeko prest dauden gizonak bakar-bakarrik bildu ta enpresa berriak sortu. Erarik egokiena ta oso ena auxe dugu; baiña asmoak egitetara eramatean agian ez da errexena izango. Ikastetxe Nagusietan eta goi raaillako ikaskizunak egiten ari diranetan gazteak biltzea litzake egokien eta errexen. Nolanai ere buruauste aundiak emango dituen arazoa dala aitortu bearrean gaude. Baiña orrek ez gaitu atzeratu berar.

Bi era auetan zein obeka ez naiz asiko. Biak bide onak ditugu eta biak komeni zaizkigu. Batzutan enpresa berean eta bestetan berriak sorluaz lana egin bear litzake. Berriak eraikitsera bakarrik jota ere, lengoak arrixkuan jarri ditezke bein baiño geiagotan; izan ere, zintzo ibiltzea erabakiko lutekenak berri oietara ekarri bearko genituke ta artara besteak desegin bidean jarri. Ondoren ouek ez luke iñorentzako onik: ez jabeentzako, ez langilleentzako, ez gizarterako. Are gutxiago gaiñera, lana exkax dagonean eta

lantoki oietan egiten dana gizarteak bear duenean.

3.—Bankuak, «Sociedad de Cartera» ta abar kristauki eratuaz.

Oraindik asko ez dala A. Arredondo'k, S. J. Ikastetxe Nagusiko gazte batzueri ontaz itzegin zien eta oso arrera ona izan zuen. Beste bideak osatzeko au ere ongi dago. Bein bazkun auek bildu ta eratu czkero ortik aurrerakoa asko xamurtzen da. Ala ere iraupena bear du. Dirua eskuetan izan eta irabazi ditekera baiño gutxiagokin gelditzea ez da lan errea. Baiña kristau bezela jokatu nai duenak, Kristo'ren legea ta lagun urkoaren eskubidea errespetatzea lenengo asmo bezela du ta beste askok baiño urriago irabaztera etsita egon bear du. Kristauak ere irabazia bultzagarri du, ta,

bere maillan ond> dago; baiña neurri gabeko irabazietan ibiltzea etzaio bidezko.

«Sociedad de Cartera» edo dalakoak iñoiz eratu ziran adierazi ditugun baldintzak xede bezela zituztela; asieran sendo iraun omen zuten beren asmo oietan; baiño, atzenean, diruaren goseak desegin zituen lenbiziko gogoak. Orduan gertatuak ez du ordea kristau bat kokilduko; lagun zintzoak arkitu ta bideak ongi gertu ezkeru aixa egin ditekera gauza baida.

Beingoan egiteko lan aunditxoa da emen adierazia gelditu dan egitaraua, baiña Jainkoak sortu ta esnatuko al ditu ori egin dezaketengizonak. Guk danok bideak xamurtu ditzagun esan bearrak esanez eta adieraziz.

"Berri ona" etorri zaugu

Arnaud Erdozainey-Etchart

—Prantziskotarra—

(Jarraipena)

Urte guziet munduko girixtinoek, Eguberriz, ohoratzen dute Jesus'en lurrerat etortzea. Urte guziet munduko girixtinoek, Eguberriz, beren Fedea finkatzen dute gizakentearen edestia markatu izan duen gertakari hortan. Jesus Jainkoaren Seme gizon egina! Jesus Profeten ahotik Jainkoak munduari hitzeman Salbatzailea! «BERRI ONA» etorri zaugu! Jesus «BERRI ONA»-ren hedatzailea!

Lehenik, ikus dezagun NOR den Jesus'ek ezagutarazten daukun Jainkoa. Bat-gmdaki ere eztaugu ez kalterik eginen egiazko Jainkoaren aintzinean jartzeak, ikusteko heagure egun guzitako bizi hortan Je-

su-Krixto'ren Jainkoa dugunez maitatzen eta zerbitzatzen, ala guharen izariko eta guharen gisako sasi-jainko zonbeit, edo berdin guharen burua?

Bigarrenik, ikus dezagun Bateioko Sakramendua ZER den eta NOR egin gaituen. Eztea ote egia, anitzetan gutarik bakotzak bere bateioko eguna aspaldinoko egun xahar bat bezala ahanterat utzia duela eta bateiatuak ez bagine bezala bizitzerat lerratuak girela?

Hirugarrenik, ikus dezagun ZER den GIRIXTINO BIZIA, oroituko gira Jesus'ek manamendu bakar bainan haundi batean bildu daukula: maita zazue Jainkoa gain-gaine-

tik eta elgar maita zazue nihaurek maitatu zaituzten bezala. Eztea ote egia, anitzetan gure egun guzitako bizian manamendu hori bazterrerat uzten dugula: baktotxa guhauari begira ari, elgar ezin ulertuan elgarretarik belixirik eta hetsirik?

1.—*Jesus'ek Jainko Aita Ezagutarazten dauku.*

Haunditu arau, beti hobeki munduari begiratzen dugularik, barne-
tik begiratzen dugularik bizi giren mundu eder huni: bere mendi, zelai eta oiha nasaiekin; bere alor eta pentze lantuekin; bere hiri zabal eta lantegiekin; begiratzen dugularik zeru alderat, hango izar dirdiratsueri... mundo guziak salatzen bezala dauku Jainko Kreatzailearen Haunditasun eta Soberanotasuna! Mundu guziak erraiten bezala dauku zonbat den Jainko Kreatzailea ona, ezen horiek guziak gureztat egin beitu!

Bainan nahi balin ba-dugu hobeki ezagutu NOR den munduaren Kreatzailea, NOR den gu guzien Kreatzailea, NOR den Salbamedua eskaitzen eta emaiten daukun Jainkoa, NOR den betiereko bizi-
tzerat deitzen gaituen Jainko ona, orduan Jesus'i behar diogu begiratu. Jondoni Joanes'ek erraiten dauku: «hainbestetaraino gaitu Jainko Aitak maitatu nun bere Seme Bakarra igorri beitauku».

Bere dizipuluekin eleka arizen batez, Filipe apostoluak Jesus'i

erran zion- «erakuts zaguzu Aita eta aski zauku». Ez ote dea gure barne gordean, nahigabe eta sofrikarioen pizua bizkarrean senditzen dugularik, ez ote dea hoin usu Jesus-
egiten diogun ber oihua: «erakuts zaguzu beti gure Aita zeruetan dena»?

Ezagutzen dukegu Jesus'ek eman errantzuna: «Felipe, nork ere ikusten bainu, harek ikusten du Aita». Bestalde, oroitzen zauzkigu Jesus'ek atxiki solas-aldi hok: «Ene Aitak eni eman dauzkit oro. Eta nehork eztaki Semearen berri, Aitak baizik; ez-eta nehork Aitaren berri, Semeak baizik, eta Semeak argitu nahi duen harek baizik» (Luk, 10 22).

Erran bat da: bide guziek Erromarat deramatela! Bainan Egiatzko Jainkoaren, Bizia daukan Jainkoaren Jainko Aitaren ezagutzeko ezta bide bat baizik, Berak hartu izan duena: JESU-KRIXTO. Ni naiz Bidea, Ni naiz Egia, Ni naiz Bizia... dauku Jesus'ek erraiten lehen bezain finki.

Jondoni Joanes'ek aitortzen dauku bere Ebanjelioaren hastapenean: «Haste-hastean ba-zen Hitza, eta Hitza Jainkoaren baitan zen, eta Hitza Jainko zen. Jainkoaren baitan zen haste-hastean. Diren guziak harek eginik dira, eta eginetarik deusere ezta hura gabe egin. Haren baitan zen bizilzea, eta bizitzea zen gizonen argia... Eta Hitza haragi egin da eta egon gutartean. Eta ikusi dugu liaren distira, graziaz eta

egiaz beterikako Seme bakarrak Aitaren ganik daukan distira» (Joanes 1, 1-4; 14).

Horra Jainko Aitak hartu izan duen bidea, erakusterat emaiten beitauku zoia hurran nahi duen izan berak kreatu gizonen artean. Bizia daukan Jainkoa nahi balin ba-dugu ezagutu, horra guhaurek hartu beharko dugun bide bakarra. Jesu-Krixto behar dugu ezagutu ondotik eta bametik, ezen Jesus'en baitan beitu hartu gure iduriko bertaite eta manerak. Behar da beraz Jesu-Krixto ezagutu:

—Jainko Aitaren aintzinean izaiteko eta ibiltzeko bere maneretan.

—Jainko Aitaz mintzatzeko bere maneran.

—Jainko Aitaren ospez bere bizi-tzeko eta hiltzeko maneran.

Gisa hortan Jesu-Krixto bera aurkituz, azkalsun osoan, hobeki dukegu ere aurkituko gure Jainko Aita. Gisa hortan gira ere, emeki-eme-ki, beti barnago sartuko Jainko Aitaren mixterioan.

—Jesus pobreak ezagutarazten dauku Jainkoa ezlela nagusi zikoitz bat, baina behar ditugun guziak nasaiki emaiten daukigun Aita aberats bat.

—Jesus umilak erakusterat emaiten dauku Jainkoa ezlela tirano bat, baina gain-gainetik berak kreatu guziak, eta bereziki bere iduriko moldatu gizona errespetatzen dituen Jainko guziz amultsu bat.

—Jesus urrikalmendutsuak salatzten dauku Jainko Aitak eztuela

nahi bekatorosen herioa, baina nahi diola barkatu. Jesus'ek eztaukuia garbiki erraiten: enaiz jina osagarri onean direnentzat, baina bai bekatuaz eri direnentzat; enaiz jina mundu huntan asean direnentzat, baina bai zuzentasuna eta egia bilatzen dutenentzat; jina naiz Jainkoaz gose eta egarri direnentzat.

—Kurutzearen gaineraino obedient agertu izan den Jesus'ek erakuslerat emaiten dauku zonbat den Jainkoa dena Amodio. Bere bizia- ren sakrifizioaz, bekatorosen salbamendua bururatu aintzin, Jesus'ek ez ote zuen otoitz hau egin bere Aitari: «Aita zuzena, munduak etzaitu ezagutzen; nik bai ezagutzen zaitut eta hauiek ba-dakite zuk igorria naizela. Zure izena ezagutarazi diotet, bai eta oraino ezagutaraziko, zuk enetzat duzun amodioa hauien baitan izan dadien eta ni ere hauie- tan nadien izan» (Joanes 17, 25-26).

—Jesus piztuak ezagutarazten dauku Jainkoak daukala bizia, bere bizia daukula eskaintzen eta emaiten burrustan. Pazko goizean Jesus piztua Jainko Aitaren botereaz: ho rra zer dion emaiten Jainko Aitak bere Semeari, lur huntako bere bizian hoin haundizki ohoratu eta maitatu izan duelakotz, eta bururaino kunplitu izan beitu bere Aitaren xede haundia, gizon guzien salbatzea bere **HERIOTZE - PIZTEAN.**

Jondoni Joanes'ek erraiten dauku, Jainko batek zaukula Jainkoa ezagutarazlen ahal. Ez ote gindezake erran, Jainko batek zuela Jainkoa osoki maitatzen ahal? Jainko batek zaukula ere erakusten ahal Jainko Aita nola maita? Jesus da gure bide bakarra Jesus'ek dauku hobekienik ezagutaraziko NOR den bizitzerat deitu eta egun guziez deitzen gaituen Jainko Aita. Jesus'ek dauzkigu hobekienik ulertaraziko Jainkoak amodioz gure gatik ibilli uratsak eta guretzat egin izan dituen eta beli egiten dituen obra tni-resgarriak. Jesus'ek gaitu sararaziko Jainko Aitak eraiki mundu berrian, graziazko munduan. Jesus'ek dauku erakutsiko gure aldetik nola amodioz ihardets Jainko Aitarea amodiozko deiari. Hortakotz Jesus'i behar dugu jarraiki, Haren erranexi behatuz, Berak eman manamenduak kunplituz, utzirik bazterrerat gure baitan sortu mila estakuruak. Bere dizipulueri egun batez erraiten ziotena guri ere erraiten dauku ber seriotasunarekin: «Ene baitan sinesten duenak eznu ni sinesten, bainan bai ene Jgorlea. Ni ikusten nuenak ene Jgorlea du ikusten. Ni argia, mundurat etorri naiz ene baitan sinesten dutenak ilunbeetan egon ez ditzen. Nork ere entzuten baitu nik errana eta ez begiratzten, hura ezdut nik iuiatzen: eznaiz ezen munduaren jujätzerat' etorna, bainan bai salbatzerat. Nork ere ar-

buiatzen bainu ela ezbaititu etie erranak onesten, harek ba-du narjuja: nikeman dautzuetan erakapenak jujatuko du hura azken egunean. Ni eznaiz ezen ene burutarik mintzo, bainan ene Igorle Aitak daut manatu zer erran eta zertaz mintza. Eta ba-dakit harek manatuak betiereko bizitzea emaiten duela. Nik erraiten ditudanak beraz Aitak manatu bezal-bezala erraiten ditut» (Joanes 12, 44-50).

Jesus da gutarteraino jeusteko Jainko Aitak hartu izan duen bidea.

Jesus da jainko Aitaren ganateko hartu beharko dugun bidea.

Jesus baitan, Jainko Aitarekin elgar aurkitzen dugu eta maitatzen.

Izan gailen beraz Jesus'ekin osoki bat: Harekin bat izanez goretz eta goraipe dezagun beti gure gogo-bihotzetan eta gure biziko obra guzietan Jainko Aitaren Amodioa, haunditasuna eta saindutasuna.

JAINKO AITA:

Erabil bedi sainduki zure izena,

Etor bedi zure Erresuma

Egin bedi zure Nahia
zeruan bezala lurrean ere,
gizon guzien gogo-bihotze-
tan.

(Bestaldian beretik: *Il-ren zatia*)

JAINKOA MUNDURA?

«*Dieu n'est pas mort*».—(E. Borne)

INTXAUSTI'tar JOSEBA
Arantzazu'koa

...baiña Jainkoa il egin zaigu. Ez dugu Jainkorik. Ona gu guzior pekatua, gure gizaldiaren galera paregabea. Ganr ez dugu siñesten, ta Jainkoa joan egin zaigu, edo obeki: uxatu egin dugu. Zertan, zertan gabiltz? Nun gabiltz, nun? Ba-goaz, baifia nora, anaiok, nora goaz?

Orain urte bete «Informations Catholiques Internationales» aldizkariak elkarrizketa luze bat argitaratu zuen Berak susperturik nator. Esango dizkizudanak, geienbat bertatik jasoak dituzu. Bi filosofilari dire gaurko espiritu-bizitza epaitzen digutenak: Aita Chenu domingotarra ta frantsesa; Friedrich Heer,

erritara ta irakasle, Ijeenengoak asko ta ongi idatzi du; Québec'en eman ditu bere irakasletzako zenbait urte: filosofilari ta edeslaria da. Bigarrena Austriarra dugu, ta au ere Unibersidade batean Viena'koan, irakasle; filosofilari onen ametsa, kristau pentsaerari, teknika-bidez, bidetxigor berriak idekitzea izan da. Gaurko kristauroi gogor egiten digu: ez omen gera bear genukenak, ez gera gaurkoak; joan diren gizalditarrekin bizi gera agian...

* * *

Mende bakoitzak, gizonon antzera, bere aiurria du. Gizaldi bakoitzaz, andik eta emendik jaso dituen arnasa, gose ta kezkaz mamitu da. Aro bakoitzari izaera, tenperamendu, jakiña eman zaio, ta ortik dario bere nortasun apartekoa. Gure mundu onen Elizarekiko jokabidearen zioa ulertzeko ere, gizarte au ezagutu egin bear dugu; bestela, aizeari zaplastaka jardungo baigiñake. Elizak ta eliztarrak mundua maitatu egin bear dugu, maitasuna baida apostolutzarik biribillena; maitatuko bada, ordea, alde aurretik ezagutu egin bear.

* * *

Gaurkotarren espirituak joera asko ditu; baiña guziotan nabarmenena Eliza-kanpotik ibitgurea. Zorionez, mundua azi egin zaigu, ta erritarrak ez dire orain Erdiaroko xoxokumeak; Eliza-babespea gozoa da, baiña gozo guziak bezela bere neurriak izan ezkerok... Birjaiokundetik, dalako «desacralisation» ura zabalagotzen doakigu. Aspaldi aretan oro eliztarra zen; erriaren balio bikaiñen denak Eliza-babesean bizi ziren, gizartearen alabearrez. Elizaren aritzak itzal mardula ematen zion gizarteari. Elizaren eginkizuna bere jatorrizkoa baiño edatuagoa zen. Kristau gizartea, aur-oialetan bizi zen. Baiña arrezkerok talo asko jan du gizonak eta mauka-mauka jan ere, bereziki Frantzi'ko iraultmatxinadatik onerakoan.

Konstantino'k sortu zigun gizarte-suerte ura itxulipurdikatu zen, Aro berriek aren gizabideak aaztu ta sasipetzean. Elizak mundu onetan tinkatu bear dituela bere oiñak, egia bada, eginkizun ori bete-betean egiztatu zuen Erroma-Germani Jaureriak, Inperioak; baiña gaur beselakoak gaituzu. Kristaudiak ezagutu egin bear du mundu berriaren gizabidea, ez du beiñolako gizartea-ren artu-emanekiko amesetan lo egiterik. Erdiaroko kristautasuna il zen, ta zertarako eldu, amorroz, joan ziren mitoei? Gorputz ustelkorrera ez ote dugu, ba, etxe-kanpora botatzen? Konstantino'ren gogo-ondorea il ziguten, ta zertarako berpiztu nai genuke? Laga ditzagun pekatu zarrak mendeen zerraldoan luze, illak dire-ta.

* * *

Gaurko semeok ez dire, noizbait urrutian, eliz-teillatupeko kabi zaurrean jaiotako erranderak. «Ai-Mari»-ko enaraek aspaldi aaztu zuten elizpeko kabia, oraingoek ola inguru-marietan dituzte beren txorrotxio ta ametsak...

Erdiaroko eirien bikaintasun-neurria eliz <• kanpandorreen luzeak ematen zigun; baiña gaur beste ibillerak ditugu: «Joan ziren enarak ez dire itzuliko...» Gure ideia ta burutazioak bide berriak urratu dituzte ta urreluko ere.

Jakintza - zaletasunak kilimatzen du gure gizaldia. Aspaldiko Paris'-

ek, Tokio, Mosku, Harward, Columbia, Pekin ditu gaur izentzat. Gizona, zerurantz begiratu ta bertan murgildu da. Izar artean, izar egin du bere burua. Izadi-aundian edo ttipian gizona errege. Atomoaren indarra eskuetan dauka; xomorro kaxkarrenak ere ikusi ditu, ikusi ta ezi, giza-morro biurturik. Bizia ez dugii sortu, baiña bai luzatu, ta gere neurrian bederen, ba - gera kreatzaille. Erdiaroko bizitza ogei urtetik irurogeitamarrera luzatu dugu, ta laister gerake 100 edo 120 urteetan. Oraindik orain, XVIII'an, batzabesteko bizitza 33 urtetara oztai-ozta iristen zen.

Ta bizia bera ere ez ote dugu gere eskuetan mamituko? Ain urrun ote da, ba, gure amets ori? Ludiozear egalari doakigun gizona ez ote zaigu bizi-iturri biurtuko? Ludian dagokigun auzo koskor onen esiak autsi baditugu, zergatik ez dugu beste ainbeste biziaren ezkutu - kuxarekin egingo?

Jakintzak ez gaitu kanpora bakarrik eraman, barnera ere bultzatu gaitu. Giza - espiritua ideki dugu. Psikanalisiak mundu ez-ezagun bat parez-pare erakutsi digu. Gaitza, oiñazea, gosea, auek dire laister menderatuko ditugun etsaiak. Bat - batean, amestu-eziñeko mundu batera goaz. Ta guzi ok berreun urte ez di-tuen zientzi onen bideetatik. Nola ez maitatu jakintza onurakor au?

Aurrerapen onen zergatia ez da materia - zaletasun zarpilla. Gaurko jakintsuak espiritua maite dute,

materiazko espiritua bada ere. Ongatik bizi-gose bat daukagu gaur nagusi. Maitasun-jakite iturrira eldu nai luke gizonak. Irrits orrek arte» gatzen du giza-gogoa. Ez ote da, go ro, oraindaiñoko materia makerra espirituaren kutxa ta gordeleku.

Gaurko gizadia ezere errudun egitekotan, ez dezakegu materialismuz zamatu. Leibnitz, espiritualista, urbillago dabil gaurko materia-zaleengandik, beiñolako jainkogabe jatorrak baiño. Kristauok ezer gutxi ezagutzen dugu materia-dialektika. Bere bikaintasuna sakona da. Kristau intelektualok Engels ta Marx, Hegel eta Lenin aztertu ditugu; baiña ez da aski. Dialektika au Errusi amaigabearen arima ta espirituz emaitua dago. Materia - zale izango da, baiña ala ere mistikahatsa dariola datorkigu. Materialismuari Errusi'ko estepa isillak bere amets luze, negarti ta sakona itsatsi dio. Lau zabalaren ertzean eserita, Errusi-arimari bere otoitz-zotiña entzunik, Marx'i bere espiritu zenak dizdiz egin dio begietan. Materia-dialektika Jainkoaren atsez esnatu egin da. Materialismuak mistika bat du, Errusi Aundiarena. Au guzia konprenitugabe ez dezakegu materialismua epaitu.

Materialismuak materia maite du, baiña biziaren kezkek darama orretara. Gizonok biziaren kezkatigabiltz. Materia biziduna da ta «bizitasun» ori maite dugu. Bizia bizi da denon baitan; bizia ta bizitz-borroka, gora ta gora doan bizia... Bi-

zi-zorabioz mozkorturik gera. Baiña bai ote dakigu norako ta nolako bizia nai genuken?

Zoritxarrez, gaurkotarrok ez dugu entzun bide zuzenera garamazkiken adarrotsik. Baiña, errian bertan ere, ba-da mistika bat. Gizonak bere kolkoan alako dei me ta maitakorra sumatu du: zukan duzu Jainkoa; ez dakizuke ezer gaitzik gerta; zure bizia Jainkoaren altzoan dabil kulunkari... Izan pake! Zu, gizon ori, errealidade biziaren emari gozo zera; Jainkoagandik irten ziñan ta Beragana zoazke... Jaunagan zeranez, ez izan bildur: ez dago pekaturik!

Giza-maitasun au bere ondore guzietara ixuri da. Mistika berri onetan blai, darizkio gizonari bere espiritu - cmariak: musika ta eleberrria, pintura ta olertia, denak laiño epel onezaz bilduak datoz. Munduaren maite-arnasa xurgatu nai genuke: izadia maitagarri da, ta gu, geu, areago. Zergatik ez, ba, ardo gozoa dastatu?

Ona gaurko joera baten iturburua; ortik jaio da Sortalderako griña. Sortaldeko bizi - moldeen gosea piztu da europear aunitzengan. Gizabarnea indarberritu egin bear da; mundua ta bere aalmenak giza-osa-kuntzan agortu bear genituzke. Yoga, Zen, Tantrismua: onatx Sortaldeak eskintzen dizkigun ainbat bide. Europear askok, kristau sasir mistika batean aurkitu ez dutena, Sortaldean billatzen dute. An ez baida esirik... Eliza arri . elkortu

egin zaigu; erri arruntarentzat badi-teke oraindik baliagarri izatea, baiña gogoaren gose ta espiritu-izae-ra obeago bat nai dutenenlzat zer da kristau Eliza gudan den gora-dei onen itzalgarrri baiño? Egi neurta ta elkortuen orde z obe ditugu biziaren egi-maitasunak... Jainkoaren ta gure artean ez dugu bestelako bitai> tekotasun aizunik nai. Guzi oien, dogmaen, gaindik bizi nai luke gure Jainko-gizon maitasunak. Emen datza Sortaldearen bikaintasuna: Gandhi mistika onen apostolu. Jainkoa ta gizona, elkarrongan biziko gera.

* * *

Mistika-zaletasun au nora doakigu, ordea? Zein da bere azken elburua? Gizonaren espiritu-gose onek nora garamazki? Maitasun berri onek gerongan ote du bere azken eserlekua? Edota, jakintzak damai>gun munduan? Ona, Eliza Amari aurkezten zaizkion galdera larriak. *Geugantasunez* aseko gera edo Bes-teaganaiño eldu arte ez da guretzat pakerik?

Bizia amesten dugu, baiña zer-nolakoa? Aldez aurretik esan zigun Norbaitek: «Neu nauzute bizia». Beraz, Norbait orrenganaiño el gaitetzke edo geugan geldi... Gose gabiltz, zeren gose, ordea? Au da Elizaren kezka: edonun espiritu-billa dabillen gizadia kristautasunaren aurkako denentz jakin bear dugu. Kristo'k kristau egin zuen mundua,

ta guk beste ainbeste egin ote dezakegu gaurko udaberri onen ondorenarekin. Birjaiokundetik onaiño-koan oinbeste osiñetan ur ustelak edan dituen gizadi au Kristo'ren iturri gardenera erakarri ote genezake? Kalbario'peko jende - taldeak bezela begiratuko diogu Kristo'ri edo espirilu-goseak Beragana gar? mazki, Bere ondora?

Galdera oni ez diogu alde-aldera erantzun bear. Mundua ezagutu ta maitatu egin bear dugu, bere joera ta barne-miñak konpreni ditzagun. Onelako edo bestelako tzarkeriak dituela-ta, ez dezakegu zaputz. Joan. aldiak obeago zirela-ta (?), etzaigu bidezko iges egitea. Manikeismua aspaldi ezetsi zuen Eliza Amak. Gu ere mundutarrak gera, munduko Elizaren seme. Zeru ta ludi-izadiak gugan besarkatu dire; batasun auskor onek erdi-oiñazez zastatuko gaitu, baiña askabide paltsoa litzake bi izadion indar-lokarriak etenaraztea. Bakoitzari berea dagokio, ta guk ra dezakegu ez bata, ez bestea uka. Emen dago kristau izatearen oiñazea: oiñak lur gorrian ta biotza got-raka... Au gure ezbearra!

Kristo'k apostolutzara deitu gintuen. Geroztik, leen baiño ere anaiago gera kristauok gizadiarekin. Jatorriz dugun mundutar izaeraz gain, zeru-dei berriz lotuak baigaude. Kristo'k anaitasun berria eman zigun: Bera da *guzion* gizadi *osoaren* elburu *bakarra*. Bera *gizctristoriasren ardatza*.

Baiña eskeiñi digun anaitasun au oraindik jomugazkoa da soillik. Anai-gogo au gure eragitez ta egi* tez egizta dezagun, elkarizketa sortu bear dugu. Gizadiak maitasun-anaidi izan bear du, ta anaiarte au espirituzkoa datekenez, biotz - go goak, adimenak eta biotzak, batu bear dire: elkar ezagutu ta, bereziki, elkar maitatu. Sor dezagun ANAI-ELKARRIZKETA.

Elizak, edo obeki, kristauok zer egin bear genuke munduak konpreni gaitzan eta zer onen aberaskiak maita ditzagun? Ez gaitezen, bildurti, etxozuloan sar. Mundua gaizki doala? Bapo! Ta zer egin duzu, ta dut, erbestera joan ez dedin?

Ona esamiñakizun ederra...

ORIXE JAUNARI

J. San Martin

Lenbizi, eskertu bearrean natzazu *Karmel* aldizkarian nere *Zirikadak* izeneko liburuari egin diozun abegi onagaitik. Bera idatzi nuanen ez nuan asko espero orren txalogarria izan bear zanik.

Zurean, zeban, zetsan, eta abarri buruz, z'kin erabiltze orren berri-rik etzenuala diozu. Ba bai. Eibar'en erabiltzen dugu. Obeto esan, z'kin eta c'gabe, bietara erabiltzen dugu. Ondo dakizun lez, Bizkai'ko eban, eutsan, eustan, eta abar dituzu. Biak nastatzen ditugulako oso arrisgokua deritxot erregla bat jar-zea, baiña eibartar zarrak berek, oraindik ugaritsuago erabiltzen du-te, ta baita ba-dirudi bereiziago ere. Aditz-joko ber-bera, i'kan: juen, je-stan eta jestan erabiltzen da; be-raz, Bizkai'ko: iuen, ieutsan eta

ieustan dituzu; i, jfra biurturik; ian, jan; iarri, jarri; io, jo, ta abar bezela. Eta, jakiña, zu'kan erabiltzeko, esan diteke, aoak eta entzumenak z ori eskatzen digula. Gipuzkoa'ko: zuen, zion eta zidan'en antzera. Era ori zarra dan edo geroztik sartua, ezingo nizuke esan, oso gaitza dalako igartzen kiputx aditzetik sartu zaigun z, edo bizkaitarretik z arabe erabiltzeko oitura. Dana dala, biak nastatzen ditugu ta, eibartarron jokera zintzoago erabiltzearren, bietara ipiñi nituan.

Beste norbaitek esan du, bere aburuan, iñoiz ez darabildala eibartar-eibartarra; baiña orrek ezta garrantzirik erbesteko baten agoan. Orregaitik, umore onez esango nioke, eibartar gurasoengandik Eibar'en jaio izan ba-litz eta bere aurtza-

roan Eibar'ko kaleetan «Txingor-gañian», «Txirikilletan» eta «Tarrua-joten» jolastu, etzuala olakorik esango.

Egia esan, nik ama bizkaitarra dut, Abadiño'koa, baiña neskato bat zalarik Eibar'era etorria. Or aipatu-takoetatik, iñoiz, «ebien» edo bakarrik aditu izan diot; gañerakoan eibartar, z ta guzti. Aitaren aldetik berriz, abizena bera ere, ta ez arritu, Eibar'ko San Martin baseritik datorrena dut. Ta Mancha'tik etorriko ba-litz ere, neri bost ajola. Ez dut nai aitonon semen titulu billa ibiltzerik, neu zer naizen eta zelakoa naizen munduaren aurrean da bakar-bakarrik ajola zaidana. Nere gurasoen gurasoak ere —belaunaldiak galdu arte— eibartarrak zira-la agirian ipiñi bear au, bertako euskalki jatorra dedala agertzeko baño ezta. Etxcko ta kaleko sasieskolan ikasia. Beste eibartarrekin ditudan aldiak, zarrak gazteengandik dituen aldiak besterik ezin ditezke izan. Eta zarragoa izan ba-nintz, nere izkera oraiudik jatorragoa izango zan noski. Ortan ez dut dudarik.

Liburu ortan, mordollokeriak, erriak erabiltzen dituan baño urriago jartzetik kanpora —itzaurrea izan ezik—, itz bat bakarrik erabiltzen dut Eibar'en esaten ezтана, naiz ta guziok ezagutu: «galdetu» da itz ori. Ta berori ere, ainbeste aldiz «preguntau» ipintzeakin eibartarrak eurak ez naskatzeko. Tarteka, Plazentzia'ko esaera batzuek sartzten ditut eta or euki nezake okei>

txoren bat edo beste. Baiña or ere plazentziar adiskideak ez didate utsik arkitu, plazentziarra eztanak baizik.

Ederki giñake eibartarrok eibartar ez ba-geneki. Zuk ongi igarri didazun bezela, Eibar'tik kanporakoan izaten ditut nik izerdiak. Izan ere, naiago nuke gañerako euskera zure laurdenaren erdi ba-neki.

Ditudan utsekin, z ta s iñoiz neskato-tatzetik aparte —cmen ez bai ditugu bear dan bezela bereizten—, eibartar batzuek bakarrik konturatu dira. Garrantzi gutxikoak diranez, ez nijoia jaramonik egitera. Iñoizko denboran berriz argitaratu bearrik ba-litz, ordurako zuzenduko nituz>ke.

Berriz, zuk apaitzen duzun «Eta nola...» ori baldin ba-dut utsik aundiena, emen esango gendukean bezela: «Lotsari barik urlen neike kalera» (Naiz ta plaentxiatar zelebretatzat, *lotsarik ez eta lotsagabe'n* bereizkuntzarik ez izan). Eibar'en, «Eta nola...» ta batez ere «Eta zelan...», biak erabiltzen ditugu. Ugarritsu gañera.

Ain zuzen ere, neretzat ain atsegingarri (atsegingarri, ez laudoriorik etorrelako bakarrik, zuk nere liburutxo kaskarra aintzakotzat artu bearra bera ere gutxi eztalako baizik) izan dan aburu ori ekarren *Karmel* jaso nuanean, Joanes Etxeberri'n *Gomendiozco carta* irakurtzen niarduan eta uste gabe onekin arkitu nintzan: «*Eta rmla orduan Jerusalemen baidren hambat gen-*

daqui diferent...y> Ortik oartu nintzan eibartarrona bakarrik etzala —saratar sendagilleak Eibar'en ikasi ez ba-zuan beintzat—. Ori ikusirik, bere lanak obeki aztertzen asi nintzan, ela amaika zatitan egin zuan *Escuararen, hatsupenac* liburuan, bost atal edo kapitulu «Eta nola...»-kin asten zituala konturatu nintzan. Beraz, ezta uts aundia gurea, orain berreun urteko euskaldunak orrela erabiltzen bai-zuten.

Ez dakit nor izango dan zurean aipatzen duzun «Eta nola...» ez-ize-nez jarri dioten gipuzkoar euskaltzain gazte ori, beintzat, ni ez nau berak kulsapetu; seguru nago. Berak, kutsu ori, Etxeberri'gandik ja[^]so ba-du, ez dut uste ain oker dabilenik. Ta «Eta nola...» dalako orrek, iñori jaramonik egiteke, kontzientzia nasaiz lo egiten jarraitu dedilla.

Uste dut, orain argitxoago gelditzen dala aditzen aurreko z ori eta «Eta nola...»-ri buruzkoa. Beintzat, neuk dakidan apurtxoaren barruan, orretara alegindu naiz.

Gauza auek, nik dakidan plaenxtiatar bati jakiñeraziko ba-nizkio, azkar esango luke: «Emen ikusita dagok, euseria ondo ikasteko be

obe dala Salamanca'ra juatia, bestelan barre eingo jeskuek». Izan ere, Plaentxia inguruan aoa irikiko bada, obe da guardasolakakin ibilli.

Zuen iritzieri eskerrak, besteren lepotik zenlztatu naizelakoan nago: beti du zarrak zer irakatsi, eta gazteak zer ikasi. Eta oraindik agintzen dizuet urrengokoa ere Eibar'ko euskalkian egingo dedala. Liburu erdientzako aña ipuin bilduak ditut, eta berria laster txamar izango dalakotzat nago.

Berriz ere eskerrikasko, Orixe jauna.

OARRA.—Karta iriki au idatzi ondoren, uste gabeen, Orixe jauna ezagutzeko bide bat izan dut. Une batean alkarrekin mintzatu giñan ta idazki onen azalpentxo bat egin nion. Solasean ari giñelarik, aditzen eman zidan, *zeben* aditza, Iztueta'n *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historiai* (1847) liburu zarrean arkitu duala. Eta, «Eta Nola...» ez-izena jarri dioten euskaltzain gaztea ez omen da gipuzkoarra, emen Gipuzkoan orrela deitzen diotena baizik.

Sari keta

Bizkaï'ko Aurrizkitegiak bi sari antolatu ditu, Enskaltzaindiaren ardurapean: Toribio Alzaga'rena, antzerti saria, eta Txomin Agirre'rena, nobelantzako. Bakoitza zortzi milla (8.000) pesetakoa. Ona sariketa oiñarriak:

- a) Edozein euskalkitan idatzi ditezke lanak.
- b) Gaia librea da, baiña itzulpenak ez dute balio.
- d) Lanak foliotan bialiko dira, makinaz, alde batetik eta bi lerro-unetara kopaluta. Teatro lanak ordu bete irauñ bear du gutxienez, ta bi ekitaldikoa bointzat. Nobela 150 foliotatik gora.
- e) Lanak 1961'ko uztaillarem ogeirako biali bear dira, Euskaltzaindi'ra (Ribera, 6 • Bilbaio). Lema bat ezarriko zaio lanari ta ouen giltza eskutitzazal itxi biatean bialiko da.

Lankideeri

Oraingoan zenbait lan argitaratu gabe gelditn zaizkign. Ez ordea einen doazki-zuenak baiña kaskarrago direlako. Urxengorako gai oiek nai genitulako baizik. Bezar urengora arte.

Bialtzen dizkiguzuten lanak argi idatzi, mesedez: makinaz, bi lerro-unetara ta akala daniak garbi zuzenduaz. Eta gaiñera, bakoitzak bere artikuloan darabilzkin itz ezezagunen lista edo iztegitxo bat ere biali dezaiguzutela nai genuke. Ba-dakizute zertarako den. Eskerrik asko.

KRISTO GIZADIAREN BURU

Joxe Austin, Pasiotarra

Ba-da gure sinismenaren esku aberatsetan ezkutuki ederrik eta egi sakonik... Ogei gizaldiz kristau sinismenaren janari izan arren oraindik agortu ez diran ezkutuki ta egiak...!

Gizaldi bakoitzak sinismenaren kutxa bete ortatik begikoen zitzaion aleren bat artu zuan bere kristautasunaren indargarritzat eta adimenaren ausnargarritzat. Baña bestegañentzekoak bertan bera utzi edo aaztu gabe. Gaur egun ere ba-dira gure gizaldiak kristau-bizitzaren oñarri ta adimenaren aztergarri biurtu ditun misterio sakonak... «*Gorputz Mistikoa*», berezientakoa Eguneguneko gaia naiz teologoen artean, naiz beste kulturadunen artean...

Orainuri-engo idazlanean «*Gorputz Mistikotzaz*» jardun nintzan

geroko zenbakietan jaso asmotan nenbillen etxegintzari Paulo'renean oñarriak jarri nairik. Baña, norbaitek esan zidanez, egokiagoa izango litzake Paulo'ren izkeraz mintza ordez, gaurko munduak —gaurko teologoak— gai orretzat daukaten kezka bizia ematea... Misterio au gaurko teologiaren argiz eta kezkaz bildurik ematen saiatuko naiz idazlan auetan.

* * *

Diranak oro batasun lokarri eretsinez katiatuta irten ziran Jainkoaren eskuetatik. Bata bestearekiko zerikusi garbia eman zien Jainkoak. Eta elburu-gallur batera begira jarri zitun guztiak —«bere aintza»— batasun katearen lenen eraz-

tun eta beste izaki guztien eusgarri gizona izentatuaz...

Baña izaki guztien batasun arrigarri ori pekatuaren zurrunbilloak irentsi zuan. Adan'en obenarekin izaki guztiak sakabanatuta gelditu ziran, txirbil-txirbil egindako ontzipuskak bailira. Eta betidanetik erabakia zegonez Jainkoaren Semea etorri zan txirbil sakabanatu oiek bilduaz batasun berriaren oñarriak jartzera. Ordutik sorkari guztiak batasun aundi bat egiten dute. Adan Bigarrena —Kristo— da batasun berriaren ardatz: «Diran guztiak Kristo'rengan bildu ditu» (Ep. 1, 10).

Sorkari guztiak izaki aundi bat bezela ziran Jainkoaren eskuetatik irten ziranean. Gizona zan joskera osoaren oñarri ta giltza. Baña gizonak beste batasun estuago ta josiago bat ere osatzen zuten, sorkari guztien arteko batasun aundi orren magal beroan... Izatez eta jatorriz bat dira gizonak. Zugaitz-gerri bakararren adar... Aita baten seme... Iturri berdiñetik eta izate berdiñarekin datoz.

Adan'en pekaiuak ezin zezakean urratu gizonen izate - batasuna. Orren oñarriak kolokatzeko ezpaitago gizonari izatea aldatzea beste *hiderik*. Gizona, gizon dan bitartean Adan'en ondorengo ere izango da. Alabaña, ba-zan gizonen artean beste batasun arrigarriago ta ertsiagoa: Jomuga ta elburu-batasuna. «Gizona zorionerako egiña izan zan...» Batasun ori erabat birrindu zuan

Atsegin Baratzako pekatuak eta ez jomuga ta ez batasun, illundegiaren errai beltzetan amildu zan...

Kristo'k jaso zuan gizadia pekatuarekin galdutako elburu-bide argitsura; Kristo'k bildu zitun gizon guztiak Ekonomi Berriaren beso za-baletan, bere bizitzaren arnasez eta bere odolaren kemenez. Adan'tar berrien Aita ta *buru* egin zan; grazi-batasunaren ardatz, Itun Berriaren oñarri. Gizadiaren zati sakabanatuekin batasun arrigarri bat osatu zuan :Gorputz bat arnas eta bizitza bakarrarekin; Gorputz bat gizon guztiak soinki ta Kristo *buru* dala. «*Gorputz Mistikoa*».

* * *

Kristo *Gorputz Mistikoaren* buru da ziñez. Eta ez gorpuz orren atal bereziena edo ederrena dalako soilik. Burua, gorputz - batasunaren oñarri, atal guztien jaun eta gidari ta bizitza osoaren iturri izan bear da.

Izate-mallan Adan bakarrik izan diteke gizadiaren buru, bera bakarrik baida gizon guztien sorburu. Jainko H Gizona «buru» da. Baña Ekonomi ta batasun berriaren buru, Gorputz Mistikoaren buru. Eta gezurra badirudi ere. Adan'en ondorengo bat dalako. Gizatasuna bere bizilekutat artzean gizatasun orrekin lokarri askagaitzez lotuta zegoen gizadi osoa bereganatzen baidu. Adan, giza-batasunaren iturri dalarik, eizadiaren buru da izate - ma-

llan. Kristo'k gizadi osoa bereganatzen du, jainkotasunaren eragipe» nez, gizon egitean eta gizadi osoaren buru biurtzen da.

Areago dasaigute oraindik Eliz-Gurasoak: «Gizadi osoa Jainko-Semearen soinki biurtzen da Kristo gizon egiñ utsarekin... Edozeiñ gizon AdanVna baño Kristo'rena geiago da. Adan bera ere Kristo'renganatu gelditzen baida Jainkoak gizatasuna besarkatzean. Adan ere Kristo'ren atal da... Gañera «aita» izan aurretik bakarrik eraman zuan Adan'ek beragan gizadi osoa... Kristo'k berriz, bere aurretik eta bere ondoren" izandako guzti-guztiak daramazki beragan». (Hilario, Leon M. ta Agustin deunak...)

Jainkoak beretzat artu zuan gizatasunaren antzeko zerikusia dauka gizadiak Semearekin. Gizadi osoa Semearen atal, aragi ta gorputz egiten da. Eta ez «nolabait» edo urrutiko esanai-legez bakarrik. Egiz eta benetan! Kristo'rengan, bere gizatasunaren eta gizadiaren batasuna egizkoa ta benetakoa diran legean. Eta gizatasun orren eta jainkozko Notiñaren batasuna egizkoa ta benetakoadiranlegean» (*M. J. Scheeben*)-

Gizadia Kristo'rena da. Baña ez bere gizatasuna berea dun neurrian. Antzera baizik... Kristo'rengan jainkozkoa zan notiña, eta gizatasuna notiñ orrenetik bizi izan zan. Beste gizonak ez dute beren nortasunik galtzen Kristo'rekin alkaratzean. Lenago aña notin dira gero

ere... Giza-batasuna ez da austen gizon bakoitza berarizko nortasunaren jabe izanagatik. Eraberean, he^koitzak bere susistentziari eutsi arren, susistentzi ori ez da erabat itxia eta Kristo'k grazi-legez eta jainkotasunaren indarrez bereganatu dezake. Orduan gizonaren nortasuna beste jainkozko nortasun arrigarri orren zati bezela litzake. Beraz, gizona notin eta gorputz batean batu diteke Kristo'rekin, gizatasunak Kristo'rekin notin bat egiten duan antzean...

«Antzean» esan dut berriro. Or baidago erkaera orren kokka. Eta kontuz orrekin!

Idazteunaren orrialdeetan ere notin bakarraren batasun utsean ikusten ditugu Jainkoaren Semea ta gizadia. Itun Zarrean «Jainkoaren Semea» deitzen zitzaion Israel'i. Ez Kristo'ren antzirudia zalako soillik. Kristo bere odoletik zetorrenez, Kristo'rekin notin bakarra egiterañoxe alkartzen baizan. (Os. 2, 15)

Paulo Apostoluaren pentsakera argiagoa da oraindik. Bere iritziz Kristo'k, atal ugariko gorputz batek aña soinki dauka Beragan. Adan berria ta gizadia gauza berdiña dira. (Irakurri zazu Korintotarrei egindako eskutitzaren 12'garren atalburua). Ez uste gañera bidenabar bezela diardunik Idazteunak batasun onetaz. Garbi, egoki ta etengabe diardu:

Santu ta garbi zaindu bear ditugu gure gorputz-animak Kristo'ren atal geran ezkeru. (I Kor. 6, 15)

Gure gorputza iraintzen badugu Kristo'rena ere iraintzen dugu. (Ib.) Ez dugu guk bakarrik jasaten, Kristo'k jasaten du gugan. (KoL 1, 24) Gañera Kristo'ren neke ta irabaziak gure neke ta irabaziak ere ba-dira, bat baikera Kristo'rekin. Kristo'rekin il giñan, Kristo'rekin lurperatuafc izan giñan. (Er. 6, 4-6) Kristo'rekin batera berpiztu giñan illen artetik berarekin batera zerura igotzeko. «Jainkoak... Kristo'rekin atera gaitu bizira (utsean gaizkatuak baizerate) ta Arekin berpiztu ta Kristo'rengan eserazi gaitu zeruan.» (Ep. 2, 5-6)

Krisostomo deunaren aitoretz beriz: Gure buru dan Kristo illen artetik piziu bada, gu ere Arekin batera berpiztu gera eta buraa eserita baldin badago gorputza ere eserita dago. Gañera Kristo'k Aitaren esana betelzen dunean guk ere Kristo'rengan betetzen dugu Aitaren agindua. Zugaitz debekatutik jatean Jainkoa Adan'engan iraindu gendun bezela, Kristo'k Aitari gure zo rrak ordaintzeaK guk ere Arengan ordaintzen ditugu gure zorrak. (Er. 5, 19)

* * *

Kristo gure burua dan ezkeru Kristo'rengan bizi dugu guk gure bizia... Eta Kristo'k ere gugan bizi bear luke bere bizia. Ez dut onekin gure egintza guztiak ere Kristo'renak diranik esanai. Gorputz baleko soinki bakoitzak dagian oro ez

baidezaiokegu buruari edo gizon esoari erantsi... Burutik edo gizon osotik darien eajntza da buruarena edo gizon osoarena. Orobat Kristo'rengan... Kristo'rengandik darioten eginkizunelan soillik bizi diteke Krislo gugan, Kristo-buruaren eragipenez egiten ditugunetan bakarrik izan diteke Kristo gure erdikide ta lankide. Orregatixe esaten zuan Paulo Apostoluak: «Ez naiz rñi bizi. Kristo bizi da nigan». (Gal. 2, 20)

Kristo'k gizat.jsuna artu orduko tnsun edo berezitasun oroen artueman eiengabea sortzen da gu ta Kristo'ren arlean. «Communicati'j idiomatum» — teologoak esango lutekena. Kristo'ren gizatasunak eta jainkozko notifiñak daukatena antzekoa. Artuemart ori da gañera *Gorputz Mistikoaren* batasun • ezaugarririk bikañena. Kristo gure buru dugun ezaugarri zeatz eta lerdena.

Baña ez al da gero gizon bakoitza sinismenaren bidez eta bataioaren bidez Kristo'rekin alkartzen dana? Ez al dira gero Elizaren soinkiak, burutzat Kristo daukan gorputz ori osatzen dutenak?

Ez goaz onen aurka ala badirudi ere. Ez da ori oraiñartekoarekin uzartu ezin ditekena. Ezin dezakegu ukatu Bataioaren eta sinismenaren bidez biurlen dirala gizonak Kristo'ren atal bizi. Bataioak eta sinismenak estutzen dituzte geien gure ta Kristo'ren arteko lokarriak. Sinismenaren bidez alkartasun ori bizitzprintza egiten da ta soinkiak Kris-

to'ren arnasarekin bizitzen asten di. ra. Bataioaren bidez berriz, alkartasun ori gorputzko ta organiku biur. tzen da ta Kristo'k, bere soinkiei dagozkien txertu ta eskubideak da- maizkie beretarrei.

Alabaña alkarlasun ori ez da si- nismenarekin edo bataiorekin sor- tzen. Lenago ere ba-zanari, kera, jei- ki ta neurri berria damaizkiote oiek. Sinismenak gu ta Kristo'ren arteko alkartasunari bizi-arnasa badamaio, alkartasun ori —illa bederen— ba- zan lenago ere... Ezpaitago utsari bizia ematerik. Buruaren bizia si- nismen erretenetik datorkio gizona- ri. Erreten ori ordea, ezin elduko da gugana lenago Kristo'rekin zen- kusirik ez badaukagu... Gizonak berriz, ezin dezaioke berez jauzi ba- tekin eldu Krislo'ri, lenago Kristo, bere egizko burua ez bada ta Arekin nolabait alkartuta ez badago...

Gañera bataiorik gabe alkartu

gaitzeko Kristo'rekin sinismen lo- karriz. Gizonak ba-du beraz, alkar- tasunik Kristo'rekin lenago ere... Bataioaren babesean alkartasun ori eratu, azi ta osatu bakarrik egiten da. Baña lenagotik trinko zeuden oñarrietan.

Gizatasunarekin bat egitean giza- di osoa besarkatu zuan Kristo'k eta gizadi osoarekin bat egiña —giza- diaren buru egiña— gelditu zan. Batasun ori da Kristo ta gizonen ar- teko grazi-alkartasunaren eta artu eman guztien oñarri bakarra...

Ekonomi Berrian bataioa da or- tarako bide izentatua, Jainkoaren borondate utsez. Itun Zarrean ber- riz etzuan Jainkoak bide izentatu- rik erabaki. Baña Kristo, oraiñ Ekonomi Berriaren buru dan beze- la, Ekonomi Zarraren buru —giza- diaren buru— zan orduan ere...

Atzo, gaur ta biar Kristo Gizadia- ren Buru! !!

LIBURU-ERABILLIAK:

SCHEEBEN, S. J.—*Los misterios del cristianismo* (Ed. Herder).

LUBAC, HENRI DE.—*Meditaciones sobre la Iglesia* (D. de B., 1959).

JOURNET, CHARLES.—*Teologia de la Iglesia* (D. de B., 1960).

BOVER, J. M.—*Teologia de San Pablo* (B A C, B. 1952).

GIZONAREN JATORRIA TA ELEIZA

ERRUPIÑO ANAIA

—Karmeldarra—

(Jarraituko du).

Ainbat jakin«gairi eraso dautso gure gizaldiko jakintza-naiak, baña billakaera (evolución, evolucionismo) dalakoareu gaiak bere biziko egarria sortu dauela esan bear. Eguzero dakusguz liburu barriak gizonaren jatorria luze ta zearo adierazo naian. I'a ainbesten artean, oba ez, joera guztielakoak azaltzen jakuz: Darwin'en «Berez-berezko berezitzea» dalakotik asita Leonardiren «Jomugadun-zortze» (teleogenesis)-raño. Sarritan ain badaezpada-ko diran ainbeste iritzien aurrean noruntz jo iakiteko bide argi ta ziur bat nai genduke. Eta irizpide egizko bat aurkitu ta billatu bearrean gara, ukatu nai ez doguzan izatasun

biren indarrez: Katoliko ta jakintzazaleak izan nai dogu-ta.

Bi izatasun oneik ukatu ezin geinkezan jokalege batzuk esartzen dauskuez: Eliza Amak zer siñeztuarazoten dauskun garbi yakitea ta edonoren aurrean gure egoera ontzat artzekoa dala sendatzeko gai izatea. Gai au askok Elizaren aurka erabiltzeak ez gaitu bildurtu bear.

Katolikuakizanbeargenduegaionetan gertuenak, ausartuenak, Elizaren okerrik ziñezterazo eziña dogun ezkerro jakintzaren laguntasunik onena. Eliz Amak eskutik gaituala ikusi daigun, labur baña ez dala be, billakaera usteari noraiño jarraitu geinkion.

Kristau-erlejiñoak gizonaren jatorriaren goraberan zer ontzat daukon, zer iritzi daukon jakiteko iru iturburu daukaguz: siñiskai-jarauntziarena, Idazteunaren azalpenetariakoa ta Elizaren irakatsi ta erabakietakoa. Jaraixitaz artu doguzan irakatsiak ziñeztu bearrekorik gitxi eskeintzen dauskun ezkeru, Idazteunaren azallzaille ta adierazleetatik, eta Elizaren irakatsietatik atera geinkezanetara jo. ta eurok bakarrik erabiliko doguz.

Gai onetan sakon jo baño len argitasun batzuk. Billakaera oraingo izaki bizidunak aurretiko asigai batetik asita maillarik - mailla beste zerbait izatera elduak dirala diñoenen uste edo iritziari deritxogu. Bi sail aunditan bananduta dago: osozkoa ta erdizkoa. Bi iritzi onein[^]tzat billakaeraz agertu da gizona, baño lenengoentzat gorputzez eta gogoz, bigarrenentzat gorputzez bakarrik. Oneitakoak: Theillard du Chardin, Vallois, Leonardi ta Marcozzi. Bestetakoak: Darwin, Huxley, Haekel, Bolk, t. a. Erdizkako billakaera edo sarriagotan «antzaldaera» (transformismo) deritxon aren alde jokatuko dogu: aren ondoreak erlejiñoaren irakatsiai ezer kendu barik onartu eziñik ez daukela erakutsi nai genduke.

I.—*Bizidunaren jatorria Asieraliburuareu arauz.*

Gizonez berako bizidunak, ala Jainkoaren eskuetatik bitarteko ba-

rik, arik-ara, ala besteren bitartez datozenenlz, Asierako liburutik ezin daikegu zearo atera. Eliz-Ama ere ortaz ez da mintzatu. Gauza bat barkarra esan dausku: Lenengo sei egunetako egiñen kondaira benetako edestia dala. Alakotzat artu bear, beraz. Baña edesti onetara ez gaitkez urreratu gaur edestiari eskatzen dautsegun zorroztasunagaz. Idazteun-Batzordeak berak irakatsia dogu: «Asieraren len-atzalburua idazitean ez eukon idazteun idazlariak ikusmeneko izakien barren-izakera ta areik ezerezetik ateratzeko era guztiak jakintza arauz irakasteko asmorik; bere erriari orduko izkeraz gizonen ikusmen eta izakerari dagokionez zelabaiteko barri bat eskeintzea baño. Ezin beraz, beti ta orotan, jakitunen izkeraren neurritasuna billatu» (Idazteun-Batzordo aren erantzuna, D. 1217).

Orduko izakera ta idazkera gogotan artuaz Hexameron'en mamia argiro dakuskegu: Dana Jainkoaren eskuetatik atera zala: lur, landare, abere, diran guztiak Berak sortuak dirala.

Bertan irakurtzen. dogun sei egunen iraupena be idazkera orri egotzi bear. Izakien jarraipena, zein lenago, zein. geroago egiñak diran, idazkera orrek eragiña da, idazteunen adirazlaririk geienak diñoenez. Agustín Doneak onetan ezpairik etzeukan: «Nec in distinctione rerum attendedum esse ordinem temporis, sed naturae et doctrinae.» Tomas Doneak be Ambrosio Donearen

itzez - itzozko adierazibearra baño Agustinena obetzat dauko: Ambrosius vero —dirausku— et alii sancti ponunt ordinem temporis in distinctione rerum servatum, et haec quidem positio est communis et magis consona videtur litterae quantum ad superficiem; sed prior —Agustiñena— est rationabilior... et haec opinio plus mihi plaet».

Au olan izanik. nondik datorkigu gauzak izatera ekartzeko saila sei egunetan banatzea? Erantzuna Tomas Doneak berak damosku. Idazteuna gizonen erara mintzo da, erriaren adimen eta jakintzaren mailan jartzen da: «Moyses, rudem populum de creatione mundi instruens, per parles divisit quae simul facta sunt». Idazteunak, beraz, egiazko jazokunen barri damosku, baño irakatsi nai dautson erriaren adimenaren arabera. Vulgata'k eberkeratik itzulitako esaerai gaurko gure itzen esakizuna emoteak, eta ebertainen esakuna zarrak itzitez arteak ez dau itxurarik ez gonorarik: eta olan egiten dan Idazteunen atzalpenak nai ta ez gauzak oker ulertarazi bear.

Idazteunak diño: «Sortu bitza lurrrak edotariko pizti bizidunak, ba koitza bere motakoa; edotariko abere narrasti ta iizeak. Ta alaxe izan zan. Edotariko lureko piztiak, edotariko abereak, eta edotariko narrastiak Jainkoak sortarazi zitun» (Gen. 1, 24-25). Nork ukatu, «edotariko lureko piztiak Jainkoak sortarazi zitun», esakun oneri eguneroko

mintzoera arruntaren kutsu ta indarra darionik? Oso sarritan Jainkoak iñoren bidez egiña bitarteko barik egintzat jartzer. dau. Ona adibide batzuk: «Jaunak damosku eurria; aizeari be Berak aginduko dau. tso; Berak, sortuko dau aurra amaren erraietan»... Zegatik erabilli ez izkera bera munduaren irazapena eralgi euskunean? Oi bagako esakizuna ta sentzuna emongo eutsen itzai idazloak bere saillean ekin eutsanean, antzeko gauzak esatean? Idazteunean mota (species) itzak, alan diño Perier jakitunak, izaki sail bakotzeko mota guztiak artzen ditu barruan, eta mota nagusiak eaeze, beste motaki ta endaki guztiak ere itz orregaz aitatu nai ditu.

(LeTransformism)

me et Dogme catholique. Paris. Beauchesne (1938), 140 or.)

Alan be, ezin ezelan be Idazteunari esanazo motaki txikienak Jainkoak berak, ezeren bitartekotasunik barik egin dituanik. «Edotariko lureko piztiak Jainkoak sortarazi zitun» esakunak, bizidun guztiak Jainkoak egiñaJ dirala baño ez dausku esan nai. Euren izatea zelan artu ebenik Idazteunetik ezin daikegu atera.

II.—Gizonaren sortzea Iragar-kundearen arauz.

Gizona zelan sortu dan ikusteko gogoaren eta gorputzaren jatorria banan artu bearko dogu.

Len-gizonaren gogoari bere izatea Jainkoak berbera e mon eutsala sñistur bearrekoa dogu. Au argi dago Asieran, bigarren atzalburuka zaz-pigarren ataltxoan. Ez dagu ba ikutu bearrik.

Gorputzaren egiteari buraz be dakigu zerbait: bera egiterakoan Jainkoak lendiko gai bat erabili ebala, alegia. «Lurreko buztinëz» (Gen. 11, 7), diñosku Idazteunak. Lenengo gizagorputzaren egikera etzan ba benetako irazate, ezer-ezeti egitea izan. Baiña beste itaun bat egin daikegu: giza-gorputza egiterakoan zelango gaia erabili eban Jaunak, ala gai bizibako bat: lurra; ala beste gorputzi bizidunen bat, berari gogo batzeko naikoa aurre-ratuen bat? Zer diño onetzaz Idazteunak?

Birritan aurkitzen dogu Asieran gizonaren irazapena. Lenengoan irazana izan dalakoa besterik ez diño, zelan izateratua izan danik aitatu barik. «Ta Jainkoak gizona bere irudiko egin zun, ar-eme irazan zintun». (Gen. 1, 27)

Bigarrenez zeaztasun geiago dakar: «Jainko Jaubek, beraz, lurreko buztinëz gizona tankeratu zun; eta aren sudurrean ats egiñez bizirako arnasa ixuri zion; ta gizona bizidun egin zan». (Gen. 11, 7). Iru eratara ulertu dabe esaldi au adierazlariak:

1) Batzuk ilzez-itx artu bear dirala esan dabe. Au olan balitz Jainkoa gizon baten antzean, eltzegille baten **itxuran iruditu** bear genduke,

gizairudi bat tankeratu ta aren sudurrari puzka, eltzegilleak bonbilla bat egiteko oi dauen lez. Baiña ulertzera au ezin dogu aintzat artu, Jainkoa ezta oneik iruditzen daben langoa.

2) «Tankeratu» ta «arnasa ixuri zion» esakunak ez ei daitekez itzez-itx ariu, giza-esakunak ei dirata. «Lurreko buztinëz» ostera, bai. Onein iritiz gizona bat-batean agertua litzake. Jainko alguztidunak bat-batean batuko zituen gorputzia ta gogo gizon egiteko. Iritzi onek ainbat jarraitzale ditu.

3) Irugarren iritxidunak diñonez, irudi-izkuntzazkoa ei da esaldi guzti ori. Jainkoa irudimenez eltzegille egin ezkeru zer tankeratu ta zeri putz egin ipiñi bear jakon, moldegai bear eban. Emen Jainko-eltzegilleak darabilen gaia lurra dala esaten jaku. Eta beste enparaua lez au be irudizko esaeratzat artu daikegu. Eta izan be idazlariak gizonaren osagarri biak, gorputzaren aldeko eta gogoaren aldekoa, izendatu nai ebazan aurki; eta ori ulerterazoteko, zer lurreko buztina ta arnasa baño egokiagorik?

Iritzi onetan, ordezkos, besteren bitartez egiña idazlariak zuzen Jainkoari ezartzen dautso; idazteunean oso sarritan gertatzen dana. Adibidez 139 eresian: «Nere altzarreak Zuk egiñak baidira; ta amasabelean Zuk antolatu nauzu». (139 eresian, 13). Zergaitik ba, emen Jainkoak ordezkos egiña adierazoten daben itzak, Asierako liburuan Berak be-

rez egintzat ulertu bear? Batean oleriti-minlzoa dogu, bestean Jainkori giza-antza eta egikunak ezartzen dautsazanena: baña bietan adibidezko izkuntza.

Ezin ukatu, alan be, esaldi osoari begiratu ezkerro, giza-gorputza egiteko Yainkoak egikizun berezi bat jarri ebala, arek zeaztasun argiagorik emoten ez badausku be.

Jesus'en Biotzaren Deya

B'tar D. Josulagunak.

Joan dan uztaillean ikusi geudun berriro, bigarren aldian, *Jesus'en Biotzaren Deya*. Alakoren batean!!! Amabost zentimetru zabal, ogeitabat luze, eta ogeitamabiren bat orrialde. Poliki, ondoegi izateke, presentatua. Azala ikusgarria, ukigarri-egia izateke. Eta barrukoa ederkí egiña, oraindik ere, nere ustez, bere jomugaraño eltzeke... Erriarentzat egiña danez, badu, bai alako erri kulsu bat, baña oraindik ere bere nortasunari ez diola antz eman esango nuke. Bai, bada, erreztasun avmdie-rik ez diote mmbait zuzendarieri eman-da!!!

Ara nolakoa dan gutxi gora-bera bere idaz-joskera: Asieran Otoitz Bidalguntza edo Otoitz Apostoladutza asmoak, guztiori eta mixioeri dagozkigum asmoak. Urrea illako santu paren baten bizitzak. Ondoren katoliku gaien-bat. Eta azkenean antzerkirenbat edo abestireibat edo... oraindik beintzat.

Badakigu baña, asmo zabalagoak dituztela eta lenbaitlen mundu guztiko politika, Eliz eta mixio berriak emateko asmoetan dabiltzala, baita galdera erantzunem batzuk jartzea pentsata daudela ere...

Aldizkari eraketari dagokionez oraindik ere —bai!— dexente falta zaio ondo egoteko: gauzak eta idaztiak obeto bereiztu eta banatu, apaingarri geiago jarri —oraindik bat edo beste bakarrik jartzen baidizkiote jartzen dizkiotenean—, gaitan ere aukera obea jarri liteke... Geiago oraindik: erriarentzat danez eiuskera aldan errezena izan dedilla. Onek, baño, ez du esan nai noizean bein itz zallagorik erabili ezin litekenik! Bideau sasirik ez balitz pittin bat zuzendu litekela esatera tentata nago, baña al ezin bada... Beste gauza bat: idazle gutxiren izenak azaltzen dira —eta au ere beste akats bat da—, naiz eta idazleak, batzuk beintzat, ospetsuak izan: Manzisidor, Patxi Etxeberría, Juan Goikoetxaa, Patxi Altuna eta abar.

Auek danak baña, eskubidearen neunian, laister konponduko lirakela esanga nuke arpidedunak ugarituko balira. Bestaldetik berriz, urteko lau duro ez dirala gavuko egunez geiegi Tisten det... Nai ainbat arpidedun baleade... bai ederki!!! Alare, nola nai ere, zorionak Oeya'ren zuzendari eta laguntzalle guztieri.

ITZ GOGORRAK EUSKERAZ

Abstracto, acción, acto

Orixe.

Gogorrak diñot eta ez zaillak, ian kintasunezko izendegia guziz gogorra baita gure inguruko izkuntzetan. Eta guk oietatik artu behar nola edo ala.

Eskerrik asko LENbizi Arantzazu'ri, YAKIN'en agertu-itx batzun zerrenda niri bialtzea erabaki zutelako. Saiatuko niza ahal dudana egiten. Au iduri zaida beiñenik: bide batzuk zabaltzea, arau batzuk asmatzea, bakoitzak era ortara izenak eta itzak asma detzan.

Nire denboran zenbait itx asmatu dudaz, iakintasuni?n euskera lantzeko, ta atsegiñez ikusi dut gure al-diko idazleEK, ez gutxi ere artu zuztela, ta oraingOk ere bai. Eskerrik

asko. Bein baiño geiagotan galdegin didate nola moldatzen nizan itzak asmatzeko. Neronek erabilten dudazan lau arau zabalduko dudaz emen, idazpurun artu dudazan iru izeneri egokituz:

LENENGO ARAUA. Erdal-ize-na ongi ikasi ta ongi artu. Ontan aunitz uts egiñ oi da. Nork daki, erdaldunetan ere, *abstracto* behar bezala ariltzen? Erdaldunek, bestela iakintsl/k izanik ere, itx asko ta asko ez duzte buruz ongi atzi oi latiniñik ez dakitelako. Alde aldera, itzaren otsaz eta durundiz zertsu diran, bai; baiña zearo zer diran, ez. Eta arrigarri al da, euskalduna, zuk ez ongi atzi ukaitea?

BIGARREN ARAUA. Erdal - izena beure iatorrian ongi emana dagonentz, dudatzea. Berein aldiz, euskerarentzat gaitz-egoki dagola ikusiko dugu, ta ez gutxitan ere, gaizki ezarria dagola.

IRUGARREN ARAUA. Izen soilla edo soildua, ez erabili beure elkarrekikoa bage, au da, galde-itza erauntsi bage. Esenpulutan ikusiko.

LAUGARREN ARAUA. Bako. kz-izena, edota adiera gutxitarakoa ez geiegi zabaldu, au da, ez guzitaratu edo erabateratu.

Irugarren eta laugarren arauetaz zerbait esana dut **GERNIKA** Aldizkarian. Irugarrena *ley de los corre-lativos* izendatuz, eta laugarrena *generalización excesiva*. Erderaz egiñ oi duzten okerrak balio ukan didate arau or/k ateratzeko.

ABSTRACTO. Nola esan euskeraz itz bakarrez? Nola esan, diñot nik, latiniñ aitorrez (klasikuz) eta griego aitorrez? —Iñola ere ez, itz soildu ori, erantzi ori, *zertatiik* soildu, *zertatik* erantzi esan bage. Esko. lastikC/n latiniñfn balio du, bai, gauza bakarra adierazten baitu. Orregatik eziñ esan gaizki emana dagonik; baiña, bai, izkuntza gogorra egiten dutela olako itzek; ez dutela izkuntza batere edertzen. Ez da izen egokia erderaz ere. Latinkume diran izkuntzetan ori gertatzen da agiz, latin kaxkartutik Artf/k baitaude berediñ itz eta izen.

Abstractu,m izan diteke m[^]tsetik ardoa ; esan bedi, beraz, zertatik ate-

rea dagon. Matematikan bi, lau, sei, izen erantz/k dira, soilduk; izanez iantzirik ezaguten duguz; bi gizon, lau ardi, sei etxe. Beraz, Matematikaz landara esan beharra dago, adierazi beharra dago elkar-itza, galde-itza.

Nola esan euskeraz *Asuncion?* galdegin zioten sankristi aundi bat *En* nire adiskide «Ibar»i, eta «zerura iasoera» esan zien. Ez deu bar lio ,erantzun zioten: izen bakarra behar du. laun aiek etzeuden ongi iantzirik, ez euskeraz, ez latiniñ aitorrez. Elizaren latiniñ arlotEn ere ederki ipiñi dute *aini caelum*» *asurnpta*. Iasotze ori izan ziteken San Iosepek Andere Mari asto-gaiñera Belen'a ioaiteko. Beraz, *nora* iaso ere esatekoa da. Ez gaiten isitu, erdal-itza bakarra dala-ta euskeraz ere itz bakarrez emaiten. Gure itz bakarretik bi ta iru ere aiek askoz geiagotan eman beharko duzte. Erderaz ere erriarentzat ez dago egoki. *Asunciom* naiz *Ascension nAsi* Aezazkete, itz or/k latin gelditu baitira, errian sartti bage.

Kontu, beraz, elkarrekiko itzen arau onekin. Bi bei duguz uztartzekoOk: Adarko ta Ederko. Bei bakarra uztar-motxean ederki dago, itz bakarra geienetan bezala; baiña bi-uztarrian bakarra lotu ba geneza, uztarri ori mutur batetik aidean gelditzen da, ta gaizki dagoz, bai bei, bai uztarria.

Abstracto, berez onela aditu behar lizake; baiñan erantsi diozte beste adiera batzuk, esaterako, go-

gaien bakantzea ta elkartzea. Bakantzea, nonbaitor; baiñan elkartzea edo *synthesi* ez du artzen beure mende, aldez - besteko adiera baitu. Onenbestez, nik uste, adierazirik gelditzen dala, *abstracto*, ta olako itz soilak edo soilduak, berenez elkartze-itzak, euskerara nola bihurtu: *zerbait ez erantzia*, soildua, *rtorabcedt* iasoa, eta orrela beste galder/1-tan.

ACCION. Zer ote da? Erderatik eziñ atera gari garbirik. *Academia española'reni* Iztegiak, *accion* bukatzen diran izen guz/an *accion* y *efecto* esan oi dii. Oraingo itz ontan eziñ esan bigarren aldiz *acción*, adL-era itzez mugatzean ez baititeke izena berrirotu; beraz, *efecto de hacer* diño. *Acción y efecto, el kacer y lo kecho* obeki *acciónt y efecta* baiño, berriz, elkarren orpoz orpo dagoz, Egitea ta egiteondoa, ondorea, nola ditezke berdin? Egiña ta eragiña orobat ote dira? Aldez aldez, bai, ta ikus zertara gatozen: nik dardar egiten dut beso onekin, eta dardar eragiten diol paper oni. Dardaratu ta dardarazi, batE'n eta orobatsu dira, baiñan aldez-beste. Fisikan esan oi dutena: *la accioni es igual y contraria a la reaccion*. Gero, iaunak, euskeraz ez omen diteke adierazi gogai soildurik edo *abstracto'rik* beste izkuntzetan aiña. Vinson, Unamuno ta olakoen buru-arinke-r/k dira or/k.

Acción askotan oker derabilte eraldunek euskeraren eretzean; be-

raz, olakoetan ez da itzuli behar euskerara: aldioro ikusi behar nola bihurtu. Ikasi ongi erdera (lenengo araua). *Acción* erabat esateko iz>nik soilduena *egite* dugu: erabalekoa, guzitarakoa. Ordun, bakar bakarrik erabili dezakegu; baiñan *acción de...* esateko, bi elkarrekik) itz, edota bakarrari aldaska erauntá behar zaio (*sufijoa*) : —gintza, —gite, —pen, —kuntza, eta abar,

Erabat esateko, *egite* da egok/na. Egitate ere entzun oi da gure euskelkietan, (egitacfe Iztuetak) ; egitedade ere entzunik nago; baiñan itsusixkoa da.

Acción, obra, zeregin esan diteke, baiñan ez ain soildurik. Erderaz ere *quekacer, que* eta *hacer* erabateko izenak dirai baiña beti ere *geroko* zerbait adierazten dute. Prantsesez areago: *a faire*, egitekoa. Euskeraz ere zeregin baiño zer-egite obeki legoke, gure asabek ederki bereizten baitzituten egin eta egite, latin-kutsua artu gendun arte. *Acción*, egi-ten ari geranaren zeregiñagatik bakarragatik esan behar lizake; ez, egindakoagatik eta egitekoagatik.

Ez betozkit emen izkerazale batzuk, *egin'ek* LENaldia diñola, ots, aldi iragana. Batzutan, bai, —a ixiltzen dugunean, egin dut - egiñ (a) dut. Beste aditzetan ere orobat: etorri nintzan - etorri (a) nintzan, eta abar. Gañerontzean, aditz-izen edo *infinitivo* dala eziñ ukatu. Mugaz aindikOk ere, *faire* beti egite'rekin berdintzen ba dute ere, euskeraz *egin* soil soilik galdegiten ba zaie,

faire erantzunen dute; ez *fait*. Nola eman erdcraz egin dezaket, egin nahi nuke? *Puedo «hacer», quisiera «hacer»,* eta ez *hecho*, lengoan ezbaña gerokoan baita, egiteko baita-go.

ACTO. Itz au ere oker derabilte euskeraren eretzean. Bestela eziñ esan dutela? Bego. Aitortu dezatela euskera baiño exkaxago dirala izensoiltze ontan. *Los «actos» de mañana* esan ai dute, biar egiñak, biar egindakoak, biar egitekoak orde. Gure baserritarrak algara egingen lukete. Acto, Eliz-izkuntzan *otoitz* orde erabilten dugu. *Acto de fe, acto de contricción*, siñiste - otoiiza, damu-otoiiza; siñistea - damutzea ere esan liteke. Batzuetan *acto* onek gertatzea ere esan nai du. Bakoi-tzak ikus beza, noiz ta nola, zer itz erabili. Geienetan egite, zeregite aski da.

Ehun aldiz entzunik daukagu, euskera ez ditekela bildu izkuntza berri oketara. Ez, beharrik! Euskera erraldoi da, ta inguruko izkuntzak epotx, ñaño. Okeri laztan eman nahi ezkeru, gerria aunitz makurtu behar du, ta bizkar-ezurra austeko arriskua du. Gu ate aunditik sartzen oiturik gagoz Metafisikan, eta epotxen atetik sartzea neke egiten zaigu. Ta ortik sartu gaiten nahi dute. Utikan! ikasi non dagon iakintasuna ta edertasuna. Ikasi ongi euskera!

Eziñ esan dezakezu, irakurle, itzik zailletatik asi ez naizela. Ta

ala ere txairo atera zaida nire euskera. Begira dezagun sudurretik aratago. Ez gaiten kaxkartu izentxo oni naiz autoretxo oni (autore orde *aurkille* darabil Iztuetak), aurkille ori Axular ba'da ere. Ua ta gu ezer ez gira, orain. millaka urtBtako euskaldun aiekin alderatzeko. Metafisika apparta asmatu zuten. Izensoilketan, eta erabateko gogaiak adierazten, ba-du euskerak urrea, bai-du zilarra; baizik ere, askotan esan dudana, diru xea zaiola eskas: ganbiOk, itz barr/k. Sortuko duguz or/k ere.

Iakinkizunik garaienak eta aitorrenak (noble'enak), bururako utserakOk iotzen duzte. Orin artun daukagu Metafisika. Beste zer-iakite guz/k, aitor izanik ere, ez dira ortara irixten, iakintsUK ago batez diñotena. Iakinkizun zeroak (*exactas*), eta aztamuz (esperientziz) arkitzen diranak ere, beharreko duguz; baiñan oraingoz aski dugu ainak besteren izkuntzan erabiltea. Ez daukagu prisaka ibilli beharrik. Obe lukete gure inguruko izkuntzak ere ortan sartu ez ba'lira! Tz-kera gogorra asmatu dute. Ez ote lizake obe, nork bere izkuntza lardaskatu ta gogortu beharrean, bein ildako bat artzea? Oraintsu arte European latiaña erabili da, Leibnitz'-en egunetaraiaño, beintzat. Neronek ere ezagutu nendun gizona, bachi-Uer eskolan matematikak latiañez ikasia. Edozer iakite-gai erabilteak emanen diola euskerari bizia ta bizkortasuna? Zozokeri galanta! Lite-

raturak ere ez. Zoazte Grezi'ra, ta olako filosofia ta olako Iiteratura ukan arren, birkortu al da erri-izkera? Nola utzi dute kaxkartzen eta endakatzan? Naigabe emaiten du gaurko ori entzuteak.

Oraintsu Erroma'ko Kardinal batek latín-iztegia asmatu omen du, gaur iakinkizun guzitarako behar diran itzekin. Ori legoke egoki, gurfak ez ezen izkuntza berri ok ere arlezaten. Zenbat ederrago zan XVI'garren mendeko gaztelania oraingoa baiño! Astrazto, azto, aziòn eta mila ta mila olako itz itsusi ta gogor aizatu beharra daukate, beuren izkuntza goxatu nahi ba'dute. Eta euskera orrela gogorrazazi nahi digute iakintasunaren izenEn, k... nardagarri orren izenEn! Mugaz aindiko gure anaiek ederki eutsi diote euskera goxoari, eta alde ongi egin dute iakinkizun berr/tan ez erabiltea. Gu geitxo sartu ginzan, eta ortatik, eta euskera ongi ez iakitetik, gure aldiko idazle geienen go. gortasuna. Baiña, bururako utserako diran iakinkizunetan saia gaitetze, ta or/tan gure izkuntza askoz

ederrago aterako dugu ta goxOgo, inguruko err/k baiño. Ez etorri niri izkuntza ederrak dirala. Itxusi ta gogorrrak, bai, eta zentza gaitezen besteren lepotik.

Naiko lezio ba da gaurko. Urrengoan iarraituko beste itz batzukin. Bialdu didaten zerrenda guzia ez dut aztertuko banaka. Beiñenetan saiatuko naiz argitasunak ematen, eta nik ikasi ditudan gaietan, batez ere. Iztegi on bat behar nuke, ez dakizadan gaietarako.

Ia, gaztEK, ikasi ongi erdera, ikasi ongi euskera; ikasi ongi ikasgai guz/k, eta guz/tan landuko dugu euskera, emeki emeki. Iduki aintziiLBn lau arau emanak, eta saiatu erderaz ikasia euskeraz emaiten. Iardunaren beroan ustekabe aterako zaizue iztak. Nire beharrik ez duzute zeurok asmatzeko ta euskera lantzeko.

0. Gure adiz-iokua oinbeste *nAs* pillatzen duten *it* eta *zki* baztartuz, batasunerako saioa dut au, bizkaitareri eskua ematen diedala.

Zabaldu

Tira ba: orain ere laguntza eske gatozkizue... Gauza ederrik franko egin liteke geiago bagiña; gutxiren indarrak orde, ezer gutxi lortzen. Orregatik, zabal gaitzazutela eskatzen dizuegu. Erakus zaiozute JAKIN lagun bati, irabaz zaiozute euskerari irakurle berri bat. Batez ere, nunai sakabanatuta dabiltzan euskal-ikasle oriek, euskera aaztuxea daukaten oriek. Gu saiatuko gera euskera aalik errezena egiten eta gaiak ere interesdunak gerta dakizkien. Ekin, ba: ia arpidedun bakoitzak beste betri bat irabazten duen.

Eliz-Eliz-Gizaldia

Osa'tar Eusebi.

Gizaldi ta aro bakoitza, bere prolema ta auzi bereziak erabaki bearean gertatzen da. Prolema berezi oiek egiten dute, aro bat besteagandik ezberdin gertatzea. Mende ta sasoi bakoitzean mamitzen diran prolema berdiñak ez diralako, ez dugu mende ta sasoi berdiñik. Ta, auzi ta erabakikizun oiek, bizi-balla ta betekizun guztietara edatzen dira.

Prolema guztietan, erlijioari dagokiona dugu sakonen eta eraginkorren. Orren gora-beerak ezaugarri sendo ta iraunkorra ezartzen dio aro bakoitzari.

Oraingo ontan, Kristo'ren Eliza dala ta zerbait esango dugu. Ba, Eliz onek ba-du zerikusi aparteko-

rik ogeigarren niende onekin. Baina, auzi au obeki ikus dezagun, goragoko iturburura joko dugu leenik.

Kristau Misterioa, beorez bakarra da, gure erlijioaren oiñarri ta burudan Kristo ere bat bakarra dalako. Siñiskizun askoetan azaldua zaigu guri Misterio bakar ori, gero ta geiagoetan. Siñiskai guzti oiek ez dute ataltzen, ordea. Mendeak joan mendeak etorri, guztietan bakar dirau. S. Ireneo'k dionez, «Jainko-Se-mearen egintza osoa» da Kristau Misterioa. Siñiskai guztiak elkar-lotua, katiatuak bezela daude, ta bat koloka gertatzean beste guztiak ere indar - galuak agertzen dira. Gorputz bakar baten atal dira siñiskai denak.

Noiz-beinka, ordea, krisis-aldiren bat sortu dala, naiz auzirenbat umatzera, biribiltzera iritxi dala, naiz beste edozer gerta dala, Kristau Misterio onen atalen bat nabarmendu egiten da. Noizik bein, misterioren batek giza-gogoetaren malla nagusira igotzen du. Ta orrela, misterio ori, beste guztien ardatz edo buru gertatzen da belaunaldi baten pentsakerarentzat.

Ordu ortatik, gizadiaren aitzinean toki garaienean azaltzen dalarik, bere inguruan sortzen diran zalantza ta okerrera bideak, beste guztietan ere inarrosaldi ta eragite aundi aundia daukate. Egizko dotriña osoaren auzia ere, misterio ori gora-bera erabakiko da.

Orixe gertatu zitzaigun aspaldi aietako mendeetan, Irutasun-teolojiarekin, Kristolojiarekin, Esker-dotriñari buruz, tab. Olakorik gerta^{*}tzen danean, zer orretaz jarduteko leiaz biltzen dira buru-lan guztiak, aletin bizian. Gai ortara joten dute gogo ekiñaldiak oro. Ta misterio orren barrena adierazteko darabilz-kigun formulak edo izkera ongi neurtu, landu, goxatu, ta bear bada, berriztu artio, estudio-gai jarraituko du auzi orrek. Orrela jokatzear bearrezko da «siñismenaren segurantzari oiñarri sendoak ezartzeko».

Ta gaur, ogeigarren mende ontakuoi, Misterio osoaren atal nagusi nagusia dan Eliz-misterioaz aritzeko ordua iritxi zaigu, ezpairik gabe. Gaur inoiz baño beartuagoak gaude bere barna azaltzen saiatzera. Ontan

guri leporatzen zaigun eginbearra ez da iragan gizaldiena baño ariñago. Aiek ere, esan dugunez, euren garaian erori-arriskuan gertatzen ziran siñiskaiak babestu bear izan zituzten. Alare, gauregun guri dago-kiguna gailzago, aztergaitzago dala esan bear. Izan ere, Eliza beste misterio guztien kabi, kristau bizitzaren muin da. Bertan besarkatzen dira misterioak oro.

Ori dala ta, Elizaren aurka jaurtitzen diran zitzakoak besteen aldean bildurgarri dira. Kabia austean, ango biztanleak ez bailukete bizitzerik.

Eliza Kristo'ren jarraipen da ia ura ukatzen naiz itxuragabetzen duanak, Kristo berbera ukatzen, itxuragabetzen du.

Asierako egunetatik, berdingabeko kemenez jantzia agertzen zaigu Eliza. Alare, anartako kristauak etzuten geienbat estudiogai bezela artzen, bere barnean egiaren jabe la. sai bizi ziralarik.

Luzaro gabe, ordea, aldiak beste-lakotu ziran ta aldiekin gogoak ere bai. Elizak bere altzoan saio okerrak nabaitu zituan ta erejiak nunai altxatzen asi ziran. Kristo'ren egizko irakasketa arrisku gorrian jartzen zuten seme biurriak, sekula etzituan Elizak palta. Gaitz oiek eraginda, bere buruaz gogoetak eman bear izan zituan Elizak. Bere izatea, esentzia ezagutzen alegindu bear izan zuan. Sortzen zitzaizkion fede - auste guztiak gogoematera beartzen zuten. Izan ere, beti zan

Beragan zerbait okerrera arriskuan: Irutasun Deuna zala, Gizakundea zala, Eskerrari buruzko dotriña zala, tab. Aztertu bear izan zituan misterio danak eman zioten bide goeta ortarako, izkutuki guztietan baizuan berak zerikusi.

Ala ta guztiz ere, amaseigarren menderaño Elizaren ezagutza gutxi izan zuten kristauak. Geroago ere geiegi ez. Emezortzigarren gizalditik onerakoan⁷ ordea, bapo lan egin da ontan.

Gaur, etsai aunitz, siñiskai bat edo besteren kontra ez baña, Eliza beraren aurka altxatzen dira. Etsai auek era askotakoak ditugu, ez Jainko gabeak eta ereji ta zismara makurtuxeak bakarrik. Seme asko ditu Elizak, batzuk itxu, beste zenbaitzuk gogo gaiztoko ere bai. bere naigabe iturri baño ez diranak. Bakarkeri ustela izango da batzutan, sasi elkargoak bestetan. Amets txorok, eraraan eziñak, zalapartak, irizpide ariñegiak... Guzti auek izugarri epeltzen dute fedea.

Ez dira gutxi, ongi bereiztu bear liraken mallak, giza ta Jainko mallak alegin, naasian ematen dituztenak ere. Apolojetika egilleak ere sarritan ideia beekoegiak, naturalegiak damazkigute. Ortara, beekoezia ta oñarri gizaerakoegietan tinkatua agertzen zaigu Eliza. Eginkizun narrasegiak izendatu zazkio. Bere izatea adierazteko, alegi makurregiak, gizazkoegiak ta nolabait neurtuak erabilli izan dira. Jaungoikoak sortu duan bezela bere iza-

digañetiko izate miresgarrian ikus-tera eman bearrean. Gaitz guzti au-etatik sortzen zaigu, siñiskai au edo bestea ezbaña, danen ardatz eta kabi, ta nolabait esateko, kristau irakasbide osoaren anima bezela dan siñiskai-misterio au babestu ta sendotu bearra. Elizari buruz irakasketa argi ta zeatza eman bearrean gera.

Gaitzak eta oker-bideak ugari ditugu, bai. Baña, bestalde, Gogo Gurena'ren goi-atsa lagun, egundaño ez dugu gaur bezainbat egiñal gartsu sumatu, Eliz au Jainkoak eman digun bezela, Jesus'en saietseko zauritik sortu zaigun eran ikusteko. Orain edonun entzun genezake solas ederrik Elizaz. Berataz diarduten liburu ta irakasbide zeatz bikaiñik ere ba-dugu. Teolójia ikasterakoan, Elizari dagokion saila goren-gorengokotzat azaltzen zaigu.

Baita ere⁵ egungo egunean, batasun gogoia edonun nabaitzen da. Banaketak gero ta aulago ta buruga-beago gertatzen zaizkigu. Ezin uka, elkartze gogo guzti oietan ere Goiarnasa tarteko danik. Gaurko elkartze-miñ orrek Elizari ateak egoki irikitzen baidizkio. Egungo munduaren tirria ta gizarte giroa jarraituki, ta oien bidez, Elizak ere batasunera jo du, ta bat egin-miña, batera-griña nabaitzen du bere barne muñetan.

Katoliku batasunean kristau guztien bat egitea ez da sekula gaur bezain arduratsu billatu. Kristau

erriak ere ez du inoiz gaur bezin argi sumatu, bere kristau bizitza Elizaren bizitza egiñaz osotu ta biribildu bearra. Ekumeniku-igikera, liturji-igikera ta gizarte-igikera esku-emanda doaz beren aurrerapeanean.

Ona ba, gure egitekoa: Eliza au zer eta nola dan ikusten alegindu bear degu. ongi oartzen. Ortarako buru lanean ari bear ta sakontzen saiatu. Inola ere ez, ordea, azterketa utsean gelditzeko asmoak eraginda,, egi bizia, errealdade beroa besarkatzeko griñaz baizik. Eliza ere. bere sortzalle dan Kristo bezela, beardan bezela ez dugu ezagutuko gogoeman astun eta sakonez bakarrik. Onek, maitasun gartsuari esku - emanda joan bear du. Zeregin ontan geron buruak Eliz onen altzo maitagarrian nabaitu bear ditugu. Ta era berean, Eliz au gerok egiten dugula ondo oartu ta siñistu. Seme lez joka bear dugu ta ez arrotz bezela. Amaren itza maitasunez aditu, bera ezagutze lanean asi baño len. Bestela, Liburu Santuekin askori jazo zaiena jazoko zaigu guri ere zer ontan. Ainitzek egiñalak egin dituzte Liburu Santuetaz idatzi diran lanak irakurri ta aztertzen, aien esanaia

argitara eman nairik edo. Ta artan ari dirala, aaztu zaie liburu Santuak beurak arretaz, umilki ta maitesuz irakurri ta buru-biotzetan iraultzea. Ez dakigula orrelakorik gerta.

Baña, egia esan, ez da erreza Eliza au dan bezela ezagutzea. Askok uste duten baño zaillago. Obeki esan, bere sakon-izkutu osoan ezagutzea, eziñezko gauza da. Eliza ez da mundu ontako auzi-gaien erara nai bezela neurtu ta mugatu ditekena. Bizikera cntan geran artean ezin dugu Elizaren barne - muiña ezagutu ta, estalkipean bezela gordetzen zaigu. Ain zuzen ere Eliza fedeko misierio baida. Ta jakiña da misterioa aztergaitza dala. Ixillean ausnartu ta illunean siñistu bear da.

Guk, ordea, atzi ezin ditekena ezagutu nai izan gabe, misterio orren izkutuena konpreni naiean alperrik nekatu gabe, gure adimbiotzei dagokien eiean bere ederra ta joria txastatu genitzake, nai izan ezkeroz.

Misterio orri darion argi goxoak eztitu ditzala gure animak.

FLANDES ETA BERE IZKUNTZA

Een hurtelijk groete vcm deze kleine en ongelukkige aam uwe grote en zegevierende volk.

JOSE AZURMENDI OTAEGI

—A rantzazu'koa—

Maitale benetakoak maitatuari onuragarri zaiona ere maitatu egingen du. Orobat, euskera maite duenak maitatuko ere du berari suspergarri zaiona. Au dela-ta galdera zerrenda bat bialti nion flandestar adiskide bati, bere erriari ta izkuntzari buruz mintza zekidan. Bai arek txintxo asko erantzun ere. Flandestar baten eritzi edo ikuspegi duzu, bada, ondoren ematen dizudana.

Injustizi bat:

«Flandes» eta «flamenkoa» (alegia, flamsnkoen izkuntza) guk uz-

tari bakarrean lotu oi baditugun ere, makurkeriz oi dugu. Ezjakiñaren obena, noski. Edestia zear gauza bi baiditugu or, edo iru, eta oso iru ere. «Flamenko» izkuntzarik ez da sekula izan, ez orain eta ez iñoiz. «Flandestarrok mintzatzen dugun izkuntza —naiz flamenkoa edo flamenkera deitu zenbaitek— neerlandera da. Izkuntza onetan bai, mintzatzen gera flandesterrok, Beljika geienean, Olanda'n eta Frantzia'ren goen-mutur batean ere bezela». Guzietara 18 milloi inguru izango dire neerlandera darabiltenak.

Olanda'n onela mintzatzen dire erabat. Beljika'n berriz, iru dire ofi-

zialki erabiltzen dituzten mintzairak: neerlandera, frantsesa ta alemana. Azkeneko onek ez du garrantzi aundirik —oso gutxiena da— baiña besteak bezain legeko dute. Lan onetan alabaiña, beste biak begiratuko ditut batez ere. Neerlandera bost milloiena duzu, eunetatik irurogeitsu, eta berrogeitsuk dute frantsesa beren. «Suiza'ren antzeko gaituzu, zarata gutxiagorekin badarik ere», esaten du flandestarrak.

Beljika'n eskubide berdin-berdiñak dituzte frantsesak eta neerlanderak. Ala, erregek bere mintzaldietan Ieenengo neerlanderaz egiten du, geienena izanik, eta gero frantsesez. Gogoan edukitzekoa auxe: indarketa . liskar gorrien ondoren etsi izan baidu frantsesak bestea bere ondoan eta parean ikustera.

Frantzia'ko Roubaix'tik Lieja'ren goiko aldeko Vise'ra dijoan linea dugu izkuntza-muga: ifarrean neerlandera, frantsesa egotik. Bruselas'en biak egiten dituzte Flandes'en finkatua egon arren. Lan onetan neerlandera aitatzean, besterik ez badiot, Beljika'ko neerlanderari nagokio, ots, Flandes'koari.

Izkuntzaren edesti apur batzuek.

Ba-da edestiaren sasipe-zokoetan eroria, eta ba-da egun ere —«beste-entzat lanbrotsu, guretzat argi ta bizi»— «Flandestarren auzia» deritzagun korapilloa. Askatu eziñean

ebaki zezanik agertu etzaie flandes-tarreri. Auzi au ez dago izkuntzaren azalari bakarrik itsatsia. Flandestarrren izan osoaren bizitza edo erio-tza da auzi onen iturburu: alegia, izkuntzari ta kulturari ta gizon-flamenko izateari eutsi naia. Estuasunak eta lauorriak erne du moimendu au. Izan ere, Flandes erriaren bikaiñena orko bazterretan sakabanutua gelditu da gudu ta politika naspilloak medio. Europa'n iñor oillar borrokalaritu denero joan zaigu sesio-gureak asetzeko Flandes'en bere kukurrukua jotzera. Eta gero, «naiz baten naiz besteen pean, beti izan gera poliki murtxatuak». «Espaiñi'aren nagusitza urteetan erbestera egin. zitzaigun zenbait jende, eta frantsestu berriz Frantzia'ren pean».

Onetaz gaiñera, amazazpigarren mendea ezkerro Flandes'ek etzuen batere artu - emanik izan ifarreko anaiekin, olandatarrekin alegia,

Gaurko gaur onetan ez da oraindik «Flandestarren auzia» arras garbitu, eta gizajoak egini-aletan diardute, alabearrez. Kemenez aldatza franko erreztua, bai.

Napoleon'en ondamendiak arrotu zuen auts arte ta iskanbilla laiñotik baturik jeiki ziren Beljika ta Olanda. Gutxi iraungo zuen batasuna auxe, 1830'eko matxinadan berriz abiatuko baiziren bakoitza bere bidetik. Beljika berri onetako gobernuak etzuen neerlandera ofizialtzat onetsi. Kulturatan bertan gutxietsi egin zituen f landestarrak;

enda kaskalegor eta ezindutzat erdiñatu.

Pixkana-pixkana itzaltzen zijoan neerlandera, frantsesa —izkuntza obetsia— ainbat eta indartzenago zijoela. Arenak egin zuela zirudien XVIII'garren mendearen azkene-rantz berebiziko susperraldia nabari zuenean. Geroxeago politika arazoak ere goritu ziren, eta lur-ikara onek sartu zuen lauorritan frantse-sa. Gogorra izan zen borroka. Idazkietan eta parlamentuan, jo ta ke, su ta garra zeriela oro. Amorrua na-gusi, eta arrazoimenak ainbat arrazoi zituela ukalondoa. Baiña azke-nean berdintasuna eta justizia irten ziran garaille: biak parean, berdin frantses-zale ta flandestar.

Egun iragana da krisi larrien ga-raia. «Zeiñek du indar geiago, flamenkoak (neerlanderak, ongi esan nai badugu) ala frantsesak?», gal-detzen nion nik. Ez omen erreza erantzuna. Alare, nolabait jardetsi-ko diot gaurko egoeratzaz aritzean geroago.

Neerlanderak eta euskerak ba-dute lifercntzi sakonik, noski. Baita antzik ere, ordea. Lenengoak naiz bigarrenak aisa atzi ditzake irakur-leak.

Gureak ez dakizki bere gurasoak, esate baterako. Neerlanderarenak ostera guziori zaizkigu ezagunak. Frisio, saioi ta frankoen alkartzetik sortutako saltsa baidugu. Ifarre'ko Itsasoaren ertzetara jetxi ziren iru erri oriek, germanoen zugaitz aundiko adarrak irurak. Frankoen iz-

kuntzakiak artu zuen osperik aundiena, ta joan bearraren joanean be-ra gelditu nagusi beste bietatik eran-tsiriko aberaskizunekin. Onela ga-ratu zen gaurko neerlandera. Ama-seiarren mendera arte «diets» zeritzaion, edo «duuts». Olanda'n Bel-jika'n, oraingo Alemania Federa-tuan eta Frantzia'n Calais ta Bou-logne'raiño mintzatu zen leenago. Urteak joan ea urteak etorri, ordea, beste izkuntzak etorri eta neerlan-dera eraman...

Ez dute idazle nagusirik, Axular edo Cervantes bat bezela, bere lite-raturaren sinbolo antzo. Baiña bai literatura eder-ugaria. Ikus dezagun labur-labur.

a.—*Literatura zarra*: (XVII'gn. mendera arte)

Ez dago asko. «Watchtendoncke Psalmen», bederatzigarren raende-koa. Hildebranslied. Eta ipui ta poematxo asko, beren artan eldu etzaizkigunak, itzulpenen bidez bai-zik. Karlomagno'ren garaian idatzi ziren leenengo gramatika ta iztegia. Egun ez da aien arrastorik ere.

XI'garren mendean Euskalerrian bertsolarienak bezela, Brujas'en itzaldi norgeiagokak eraten zituz-ten. Guztia, jakiña, neerlanderaz. Garai onetako beste idazki batzuek: Beatrijs, «Van den Vos Renarde» (onen itzulpena omen da ezagutze-nago dugun «Roman de Renart»).

Leenengo tajuzko prosista Nade-

wijk dute, bere liburu «Visioenen» ekin.

Teatroa beste nunai bezela erdiaroan iratzartzen da. Onetako eza-guentzat Maerland eman dezakegu («Spiegel Historiae»). Baiña guzieren artean mistikuak ditugu nagusi: Ruusbroec, Leeuw, Hendrik, Herp, (Españi'ko mistikuetan eragin bortitza izango zuena), Kempis («Imitatio Christi» aipatua lateraz egin arren beste zenbait kaxkarrago neerlanderaz burutu baizituen)...

1430: Borgoñon eta Habsburgo'-en nagusilzakoan literaturari alako zentralismu kutsua dario. Burgesi ta uri aundien inguruan igitzen bada, izan ere, gizartearen bizitza guzia.

Oraingo ditugu «redemakers» edo «cameren von Rethorica»-k: idazkeran naiz oratorian lantzeko biltzen zirenen batzarrak. Ain zuzen ere gerora agertu zaizkigun saloi eta kafeen aitzindari. Uri geienak zituzten «cameren» auek, eta sekulako bultzada eman zioten izkuntzari. Urteoro-urteoro antolatzen zituzten beren arteko norgegiagokak.

Antzertia sendotu zen batez ere. Jatorrenak, eta oraindik ere atsegiñez ikusten direnak ditugu «Marieken van Nieuemkhen», eta «Elckerlijc» («Bakoitza», giza - bizitzaren alegori bat). Ezin aaztuko ditugu bi idazle antzertilaria ospetsu: Cornelis Everaert («Maria Hoedeken») eta Michiel de Swaan («De Geroonde Leerse»).

Amaseigarren gizaldian literatu-

ra abertzale asko egin zen. Batez ere olerki.

b.—*Urre-aro:*

Orain artean neerlanderaren edo «diets»-aren literaturak Flandes'en zituen bere sustraiak. Baiña Flandes-ekortu da, ta bere eguzkitara ez da gudarien ezpata - isla baizen ezer pizten. Askok guduari igesi, ifarrera jo zuten, bere eskuko baizen ura Willem van Orange'rekin. An joko zuen neerlanderak bere goena: Vondel, Pietier, Cornelisz Hoof, (Amsterdam'go), Jacob Cats, Breders...

d.—*Literatura gaztea:*

Esan dugu XVII'gn. mendean krisi larri batek karraskatu zuela Flandes. Adierazi dugu «Flandesta»-rren auzia» zer den ere, eta nola XIX'gn. mendean flamenkoak bere gobernu frantsestuaen kontra jeiki ziren auzian, zuzenbidezko eskubi-deak bear bezela begiratuak izan zekizkien.

Beraz, gobernarien ajolagabeke-riak eta crdeñuak maskaldu egin zuen izkuntza. XVII'gn. mendean Flandes'ek literatura eskasa bazuen, XVIII'garrenean etzuen izpirik ere. Ala, jeiki zirenean —berandu aski— sukaldean edo auzoan bakarrak bizi izan zen neerlandera zearo txikitua ta apurtua zeukaten. Leendiko dialektuak laurkitua ta geiago bakoitza. Leendik ba-ziren izkuntzakiak, ezin ukatu, baiña eziñago ukatu lozorroan usu geiagotu zire-

na, Au izan zen eskola-ezaren eta gizarte arazoetatik urrandua bizi izanaren ondorioa. Ta onegatik jeiki ziren flandestarrak, berak

guzti zirela esaka.

Azkeneko bi gizaldi oetan literatura txit ugaria izan du neerlanderak.

Ez dugu ezer esango, luzeegia izango bailitzake, ta gainera etzaigu ajola. Bakar-bakarrik esango dut al. dizkariak urratu zituztela bideak, eta idazleek apaindu.

Politika:

Esan zuen Heinrich Böhl'ek: «Tamalez, dena da gezurra». Onela esan dezakegu, Heinrich'ena ertsiaz, politikan beintzat dena dela gezurra. Edo ala-olako erdi-egia beintzat. Flandes'i buruz gerta liteke andarrak eta guk ez berdin erizpetzea jazokundeak. Dena-dela, inoren eritzieri muzin egin gabe, gertaera batzuek ekarriko ditut, nire lagun Burchard Verhelst'ek esana itzuli besterik egiteke.

«Flandes'en literatura ta izakera konprenditzeko bere edestiaren eza-gutzea bearreko dugu. Oso baidoaz alkarri esku emanik, bi aizpatxo kuttun bezela.

Karlos V - garrenarekin «Paises Bajos» edo «amazazpi probintziak», ordukoak zeritzaieten legez, paketsu bizi ziren. Onek 1555'ean laga zituenean Felipe II-gna. nagusitu zitzaien. Karlos, Gantetarra zenez, be-

retartzat zeukaten flandestarrak. Ez ala Felipe. Ta mutikotan eskolan irakatsi zigutena gogoratuaz, ba-dakigu nola leendiko jarkikundea

beljika'ta Espaini'k bere erregin eta erregeordeko bialtzean indarragotu zen. Sorgin eta ereje eizeak ere gogaitu egin zituen flandesterrak, katolikoak berakere.

1563'an Espaini'ra deitzen du erregek Granvelle, baiña flamenkoak bere sakerrean diardute, amor eman gabe.

Binbitartean ekonomia larri asko dahil, eta barrunbeak oro sutan gori erlijio eztabaidatan kizkaltzen.

Langiletamerkatariekospaegitendu te ifar aldera. Eskasia urteak, eta ereji otsoak nundinai. Naaste-borraste giro gaiztoa benetan pakearentzako: ogi peitu, ta fede-sesioan erre bear indarrak, zituztentxoak. 1556'an kalbinistak ler-erazten dute matxinada amorralua. Irabazten dute la dirudi. Jartzen dire uririk geienak beren eskuko, eta protestante gudari taldeak geroz eta ugariagotzen dire. Azkenik, Orange'ko Willein'ek berak ere, zalantza askoren ondoren, zorrozten ditu bere ezpatak Felipe II-garrenaren eta Espaini'aren kontra.

Alba'ko Dukeak zirti-zarta puskatu zituen asalduak. Bitan jaso zizkien zergak, eta onekin erraldalez bete atzerri bideak. Adibidez, ona emen dato batzuek: XVI'gn. gizaldia bukatzean Londres'ek amar biztanle flandestar zituen euneko. Amberes bere biztanleen erdiarekin

gelditu zen. Bi urteen buruan bederatzita mila familiak alde egin zuten Gante'tik; eta sei personatetik bostek Geraardsbergen'dik. Ta gutxi bailitza izurritea edatu zen «amazazpi probintzietan».

Ifarreko probintziak beti ere aske xamarrago bizi ziren, eta ekonomian ere lasaiago. Onegatik, luzao oagoan eutsi aal izal zioten gudua- ren erasoari.

Ta au dena esan ondoren, galde- ra bat egiten diogu geure buruari: baiña zergatik zen gudu ura? Ba... Ba al zekiten ba berak ere? Eta ba al daki iñork? Berriz ere ume urteetaz oroiturik, otdun eskolan egiten ziguten galdera uraxe bera egiten dugu: «Felipe II'garrenak libre utzi izan balitu flandestarrak, nai zuena nai zuen ei-lijioko izan zedin, jeiki izango ote ziren askatasun eske?». Eta galdera au berbera egiten du nire Burchard Verhelst'ek, erantzunik emateke.

1576 - 77: Flandes Espaiñi'tik urrun dago, eta oso galesti da an gudarozte bat mantentzea. Jeikiak berriz ere irabazteko asten dire. Ba-dirudi oraingoan bein betiko erauziko dituztela espiñitarrak. Baiña Farnesio'ren esku gogorak eta begi zorrotzak berriz ondatzen ditu. Olanda'k alare bere eskuko zira- uen.

XVII'gn. mendearen azken urte- etan frantsesak goraka asi ziren. Beren joanak dena txetetzen eta errausten zuen. Deusezturik utzi zizkien Flandes'eko uririk ederre-

nak. Beste ainbeste geroago Austria'tarren pean. Amairu urte gero- ago berriz frantses gudarien ugol- dea. «Askatasuna» orruka, ta bes- teeri berea kentzera estuasun aundi- rik gabe. 1813'an Belgika'k eta Olanda'k alkar lotu zuten, amaz- pi urte gei-oago berriz bereizteko.

XVI'gn. mendetik XIX'garrene- raiño Flandes morroi bizitu zen. Etzuen izan ifarreko anaiekin artu emanik. Emigrazioak ekonomia ta kultura urribiziraiño eratsi zizkien. (Gogoratu Vondel, Beethoven...)

Askatasuna Flandes erriarentzat zoria ta kalbarioaren azkena izan- go zela itxaron zutenen amesak be- realaxe egin zuten porrot. Flandes'- en nekaldiak etzion oraindik berpiz- kunde goizari leku egin nai.

«Flandestarren moimendua» de- ritzaiogu neerlandera ta Flandes gu- zia osin beltz cnetatik atera duen igidurari. Asi literaturan eta

politika arazoetan barna geroz eta ke- mentsuago ekin zioten. Zalaparta onetatik irten da Flandes gizondua. Onera iritxirik ezin ixil ditzakegu izen batzuk: Conscience ta

Rodenbach; Jan Frans Willems (zenbai- tek oni deritzai moimenduaren ai- ta) ta Jan David.

Gogorago ziarduten politikan. Emen ez dugu izenik ezarriko, ez baida erreza batzuek besteri obestea. Izan ere, denak aritu ziren

Flandes'en alde, baiiiianolajardunean, bide-eritzietan etzetozen bat. Bi ala- re aitatuiko ditut, guziekin zeudenez eta ospetsuenetariko izan: Hugo

Veriest eta Cyriel Verschaeve. Moimenduaren oiñarri sendo ditugu bi apaiz oek. Eta ez dakazkit apaiz zirelako, aitzitik^ ondo merezi dutelako baiño. Moimeidu-jardunean bertan egin zutenagatik baiño ezagun-garriago dire, ta eragilleago ziren, erantsi zioten idealismuagatik. Verschaeve flandestarrak iñoiz izan duten gizonik apartekoenetakoa da: poeta, antzertilari, saiogille, filosofilari, erti-kritikalari, eskultore, abertzale... Eriolzera galdu zuten arren Innsbruck ondoan il zen, Hall'en. Aberri ain maitetik oildua zegoela emendatu zitzaion ainbeste argi ta diztira ixuri zuen bizitza...

Neerlandararen egungo egoera:

Gante'ko Ikastetxe Nagusia izkuntza bakarrekoa da, ots, neerlanderautsekoa. Bietarikoak

Louvaina ta Bruselas'koak.

Beste amaikatxo ikastetxe ere badiu gaur neerlanderak: Amberes'ko Deretxo - Ikastetxea... ta abar. Orain naro xamar aurkitzen da.

Dialekto edo izkuntzakiak asko dire, oso asko ere. Baiña ba-dute akoiné» antzeko guzien bat.

«Neerlandera Nagusia» auezdaarras berdiña ifarrean eta egoan, alegia, Olanda garakoan eta Flandes eta Olanda barneko probintzi batzuetan, urrenez-urren. Au erabiltzen dute idaztean eta ofizialki. Orobat persona landuek ere, oek bear ain-

beste egin ez arren. «Jakiña, erri xumeak aisa uler dezake, eta al-dian-aldian baita mintzatu ere...» («Jakiña» esaten du nire lagun flandestarrak. Zergatik ez ote dugu guk aien logika?) Gerta liteke noiz-bait izkuntza ofiziala ta neerlande-rakiren bat ezberdinxeak izatea, bai-ña gutxitan. Erriarenez egiña ta oretua baidago Nagusia.

Ba-dijoaz iltzen elgiak, eta leen-baileen il ditezen alegintzen dire flandestarrak. Arritzekoa? Gaizki egiña? Berak diotenez, elgien aberastasunaren onura eskasada, tazi-murra, eta iñolaz ez batasunaren bñ-kaintasunari alderatzekorik ere.

Ortogofian gure moduz. Beljika'n, aiñik eta ez erabaki, irakas-kuntza - ministerioak eman oi ditu arauak.

Orainga arazo:
berri-frantsesataneerlandera, alegia

Batzuek esan ditugu lana zear. Ona beste zenbait:

—Neerlandera Nagusia edatu, be-ti bera ta bera bakarrik entzun arte. (Ez aantzi ifarrekoen eta egokoen liferentziak bi neerlandera ofiziale-kin erreztu dituztela oraingoz.

—Ondoren: flandestarrak eta olandatarrak berdindu, liferentziak xetuz. (Egun ez dire mintzaira ez-berdintasunak orain berrogei urte bezain nabarmenak). Eta ez izkun-tzan bakarrik: baita ere senti erazi bear zaie anaia direla, familia bate-ko anaia bixki.

—Beste ainbeste Frantzia'k duen zatiari buruz. Zerbait egin da, ta egingo da, Paris'en ortzak erakutsiko dituzten arren.

—Beljika'n sal erosketa arazoe-tan erabilliagoa baida oraindik frantsesa, polliki - polliki neerlandera sartu, ura erauzi arte.

—Neerlandera Europa Alkartuan izkuntza ofiziala izango da.

—Ortografi tinko bat autatu arte urteak joango dire, noski baiño noskiago.

Gaur-gaurkoz iru mueta zenbat ditzakegu: ofizialki erabiltzenago dena, «ortografi autetsi» edo onelakotsu zerbait. Beste berriago bat (aurrekoa aintziñate pipiak jota bide dago), orain liburu ta aldizkarietan dextente sartzen ari dena. Eta irugarren bat, oguzkerari aalik eta geiena lotzen zaiona.

* * *

Ta aski dugu onekin. Uste dut atera ditzakegula amaika ondorio gure alorrerako zuzen. Badugu nundik ikasia.

Itzear dagoen gaixoari pozgarri zaio ta itxaropide, bera bezela egondu zen beste bat nola sendatu zen jakitea. Bekio au itxaropide euskerari. Amaika ez dire larritzen euskeraren egoera ikusteaz. «C'etait une histoire simple. Il n'y avait pas de quoi faire des grimaces», pentsatzen dute apika Françoise Sagan'en itzez esateko. Ainbeste gauza il dire leenago munduan...

Guk ordea bestela pentsatzen eta sentitzen dugu: zentzuz pentsatzen, eta maitasun amorratuz maitatzen, paradoja badirudi ere. Eta

Unamu-no'rekindugugogoeta:

«Ezduutilnai;ezdutnai
naiizaterikerenai.

beti,beti,beti...»

SUJERENTZIAK

Sujerentziak bear ditugu. Bai, bear. Guztiona den JAKIN'ek ez du arlote agertu nai. Brusak eta txapelak ere lotsa ematen dio. Azkeneko modari arau jaztea gusatzaa zaio, eta orixe opa nai diogu animaren sakonenetik.

Irakurle: idaroki iguzu nai eta uste duzun guztia, ez dugu besterik nai-ta. Idaroki JAKIN eder dezaken edozer gauza. Jainkoak eta euskerak eskertuko dizute.

IDAZKI AGIRIA

(*Etxaide'tar Yon'i*)

AGERRE'KO BALENDIN.

Agur adiskide:

Euskalerritik landa gaiagozeneri geienetan belu eldu oi yakuzak euskalaldizkariaketasarritanidazlea goratzeko naiz maxiatu gurako idazlanik aurkitzen yuagun-arren, darabilen autua zahar eginda egoten dokan ezkeru, egingo gendukeana egin bage geratzen gozak.

Lehengo astean irakurri neioan, Euskaltzañdiaren «EUSKERA» aldizkarian, igaz Eibar'eko euskal-yaietan egin oan itzaldia ta aintxinatxu argitaratua dokan - arren zahar egiten ez dan gaia dok eta adizkide-arteko agerpen batzu egin bear dauadaz aitatutako itzaldi arek sortu yaustean artegasuna azazkatze-ko.

I azan idazlea izan eta pozgaitz eta kikilduta akust etxakin ziztrin baten antzean. Buruauste ta kezka itzelak dabizak, antza, idazkerea ta abar dokazala-ta. Etzaz gogorutzen, Yon, «laboratorio»-ko atonketak lez barik azkatasun osoaz erabili bear yuagukala, idazten, euskerea, bein idatzi eustana? Ni neu orduan Sabin baino be sabindarragoa nintzoan. Baina arrezkero euri asko egin yok, mutil! Nik euskera osutura yo neioan, euk zirikatuta, (idazki au zuen *dok eta ezto*h edo *itanoerea* ondo etxakiadalako dagiat bizkaieraz) eta euk zein yokera artu bear ete dok?

Euskerak atenketa asko agin bearra yaukak, baina ik uste dok Eus-

kaltzaindiak emongo leuskiguzan erabagiak ontzat artuko gendukezala itsu-itsuan? Bai zera! Euskaltzaindiak aintxina emon yoazan «urr» (gaztelera «erre») gangardunaz idazteko erabagia ta abar be. Eta zer dokala-ta autsi dozuez au, erabagi au ,ta beste asko? Ez emon gero irarkoleri errurik... Beti erabili bear gendukek bariz «urr» gangarraz, batez bere itzen azkenetan, (gogorra dokanean) euskaldun yatorrek oguzten yuekan lez. Euskaldunaren espanetatik *agur* «urr» bigunaz entzutea elorri arraren zatzadea baino be minberahagoa yuagu, ba. Etxaukek esan-gura bardina *urr* eta *urr-ek* ez *zur* eta *zurr-ek*.

Bizkai'ko euskerea ondo ezagutzen oalakean neiegoan, baina ostikada galanta yaurti oan, mutil, eurre itzaldian. Ik euk ez ba-dakik be, Yon, *otz naz*, *gose naz*, *egarri naz* eta abar, Zabala Arana'k idazten yuan lez, esaten yuaguz bizkaitarrak beti ta toki guzti etan, ba. Ire itzaldiari auxe, akatz auxe, aurkitu ez ba-neieutzean aurkitu, gutun au egiteko nekerik ez neioan artungo; baina uts aundiegia dok lagun ire neurriko euskeltzalearentzat. Zabala-Arana'k beste akatz batzu izan yoanan euren «amesetako euskeriaz» baina ik aitatzen dokan orretan ez gero.

Giputz ok bizkaieria obetotxuago ikasi ba-zengie, bear ba-da obeto idatziko zendukie euskera osotua.

Nuen-i, *nun-i* ta *nuani-i* baino obeto deritzakala? Ba, erabili egik

nuen eta kitu. Bai-yaukagu, mutil, zuzendu bearreko akatz obarik ! Nik neuk olerkietan neurri ta oskidegoagaitik iru erotara ibili izan yoat. Errigoitik ta Morga-aldean be (Bizkai) *nuen* asan oi yuek.

II uste dokan - arren aintxinatekoak (arkaikuak) ez dozak gero *etorri ba-nadi* ta lagunak. «Eurria egin bai-dadi», «yoan ba-nadi» ta abar esan oi yoazan gure aitak. (*Nire* barrik *gure* yinoat euskaldun yatorrek aulan esaten yuagulako.) «Yan *dagienean* bustartuko yuaguz beiak», eta *zateken* eta «arkaikutzat» askok yaukiezan beste itz, aditz eta esakera asko be yaiotetxeko sutondoan, geure Bizkai maiteko basobasoan, ikasita yaukadaz, eta orain bere erabiten dozak, ba.

Baina ta *baña-ren* ordez *baña* artzeari ondo deritzatak. Baina, Añamendiz beste aldean ezeze Arratialean (eta Orozkoaldean be baietz uste yoat) «ñ» ta «ll»-rik etxuek oguzten gero «i»-ren aurretik dagozenezan. «Ñ» ta «U» orretik aldiak yun eta aldiak etorri agertutako akatzak yirudiek. Izki orreik bage guretzat oguzkera labantxua yaukabela itzak? Oitureaz guztira egiten dok.

Abestu ta beste izparri asko neurri bere etxatazak atzezin. *Aintza* ederra dok. Baina Bizkai ta Gipuzko'an itz onein eta beste berba barri askoren esan-guiea etxakieken gitxi izango dozak. Itz oniek eta beste asko be aurrez yarabizak erri leunak, eta naiz-ta guri atzezin izan ez,

etxago bazterrerako yitukan indarrik, lagun. Txarto atonduak dokazala naiz ez dokazala, begoz, ba, orrek eta beste asko be. Utikan erdel-yatorrizko *Izparriak!* Etxean yaukagu arrobi ugaria.

Arrotz baizen itxusia *gizonarea gainean* osatea ontzat artzea bertsularien batsueri-ta entzu dautsakelata beste bage. Bertsulariek, geienek, berezko euskerea baino etxakiek eta etxakiek ona ta txarra bereizten. Oneri be, euskal - liburu zaharreri lez ona bakarrik artu bear yautzaguek, ba. Gure elederraren pizkunde-aroko idazleak orainarte, *gizonatzaz, gizonaz* edo *gizonari buruz* idatzi izan yuek, ondo dakikanez, eta baztertu egizak burutik bestelako lorrinkeri orreik.

Guzurra yirudik, Yon, «kontsonante»-en urrengo beti *ean* eta «bokal»-en aurrean-are esaten yuaguzala ik ez yakitea. Giputz-idazleeri *baratzan* irakurri oi yautzedanean iguin itzela emon yaroaztak. *-Ean* erabili bearrean *-an* erabili bear izaten dok, uoizik-bein, olerkietan, neurriagaitik, baina zilegi yuagunarren, aleginez ez genduke erabili bear neurtitzetan be.

Kai-an, ibai-an, mai-an eta abarrek Euskaltzaindiaren agindurik etxuek bear...

Ila barik il yaugu gaztela'rren *mes* (ikusi Azkue-ren iztegia, eta yakina ba, *Otsail-ean* esaten yuagu erriak. *Olsail* «febrero» eta *Otsail-a* «el febrero», munduan eta Markiña'n. *Il-gora, il-bete, il-barri* ta abar

esaten yuaguz guk. Daina erderazko *mes* adirazteko il-ebete esan oi yuagu gero...

Yokatu du ta yokatu da esangurara bardingeak dozak euskaldun yatorren artean.

Egi erderazko «colina» ta *egia* «verdad».

...*amartik* ez mutil, *amarretik* baino.

...*arria yaso* ez; *arrikada artu* baino. *Arria yaso* arri-yasotzaileak egiten yuek.

...zulo bat betelzea *bestea egiteko* ez mutil, *heste bat* egiteko baino.

Beste kuku batek *yo liguke* ez, *yoko liguke* baino.

Bazterreratu egik *ajola* itxusi ori ta erabili egik *ardura*.

Erderarik ez yakikan erriaren artean «aventura» adirazteko *zer izango* edo *nun zer izantgo* erabilten yuek.

Euria du, edurra dan ta abari Bizkai guztian esaten dira.

Zer dokala-ta Yon, orain *dot, det* ala *dut* erabili bear ete genduken? Beinola ez eustakan idatzi, ba, euk <*idutr*> erabili bear genduala beste biak baino yokoera bardinagoa yaukakala-ta? Bizkaierara yo bearko ete yoat barriro, ta au landu beste guztien aurrelari yarri dedin? Nik ibili neioazan buru-austeak euk esku - zabaltasunez bidalitako giputzaditzak ikasten eta orain eu olan, zalantzaz beterik?

Erdel kutsuz nahasitako kaletar idazlerik geienek beste akatz askoren artean nabarmentzen dokan

akast itxusi bat, (*cmittigramatikal* bat mordoilutzale euskera-zikintzaileak esango leieukienez) ba-yuek. Idazle argienak be yausi oi dozak orretan; eta autu yabiladan itzaldi luzeegi atan eu be yausi intzan, Yon, eta baita Mitxelena be, yuagun izkun» tzalaririk onena izan-arren, itzaldi atan egin yoan oar baten, Emen akats ori, ots; *Edo* erabili oi yuek *ala* ta *nalz* erabili bear diran tokietan be. Eta au uts-egite aundia izan... Mitxelenrc'k: «... Gipuzkoan *edo* Bizkai'an *ken zitez kendu zaitetz zilegi dirake*» dino, Bizkai'an *naiz* Gipuzkoan esan bearrik. Eta ik: «Eraso gaizto oni erabat eutsi egin bear al diogu, *edo* aitzitik, izurrite-aldarrari eutsi...?» *Ala-ien* tokiian *edio* yagok.

Emen adibide batzu, *ala*, *edo* ta *naiz* zelan erabili oi yuaguzan euskaldun utsak:

Itaunetan: Basora *ala* etxera oa?

Erantzukixuna: Basora *naiz* etxera.

Zigurtasunaz: Basora *naiz* mendira.

Zalantzan: Basora *edo* mendira yun dok...

Agindu antzera: Basora *edo* mendira eroan egin au, txakur au...

—Nora?

—Basora *naiz* mendira.

Idazleen eskuetan yagok ba, Izkuntzea atontzea. Baina gudu-aurreko idazle ta olerkariak yaritxi yuezan onura askok iguintxua yaukek oraingo gogai bako idazle bildurti

askorentzat antza. Lehen guztiak, edo geienak beintzat, *ezker* idatzi oi yuen *ezker*-aldea adirazteko ta *eskar* «*grazia*» aditzen emoteko. Aulako banaketak egin bearrean yau kagu euskerea, ots; «*materia*» adirazteko *gai* ta «*futuro*»... *gei*; *se-rvargei* ta *abar* (Oar-Arteta). *Itzal* «*sonbra*», ta *itzel* «*aundi*», «*ikara-garri*» ta *abar*. (Arantzibia'k oraintzu) *Oben* «*defecto*» *ogen* «*pekatu*». (Azkue'k eta abarrek.) Nik neuk *giro* «*temple esateko ta aro* «*anviente*»-rako ta *abar* erabili izan yoadaz. *Bage* «*sin*» eta *barik* Orixe aundiak sortu yauskuan *au ez-baina* *bestea* esakera arrotza adirazteko. (Andima'k) «*Askok ez baLna* beste askok bai-yakiek Bilbo'n euskeraz». *Ez baina* ementxe bai bai-yagok ondo. Bizkai'an: «*etxera barik* mendira neioak»...

Yon, eta azkenez, orren zuzen tokietan, zigur, itzak eta aditzak ezarri, ta elizti-legeak artez erabiliz idazten ipini nai gozakan *ezkero*, (*nai* be esaten yuagu gero Bizkai'an) zer dokala-ta yarri eutsian ba, euk, arako idazti ari «*Amasei seme Euskalerrri'ko*» atzekoz>-aurrera-kadea izenpurutzat? Eta zer dokalata yarraiten dozue giputz ok burukoikeriz basetxeeri *baserri* esaten? Bizkai'raino sartu deuskuzue okerkeri au mutil. Etxea, edo etxe bazterra, ots; zuen *baserria* ez dok inoizko inoiz izan ez izango *erria*. Ulertan?

Batzu obetotxuago ta beste batzu txartotxuago, bakoitzak ahal yua-

gun neurrian idaztea dok ba, lagun, aldi ontako gure egin bearra, eure itxaldian aitatu oazan txikilkeriak epetara yaurtigita. Idazti zaharretan dagola euskerearen guna? Orretarako astia ta gogoia yaukaki-
nak astindu begiez idazti umeldu ok; baina yakin dagiela gero, ona ta txarra aukeratzan... Nik neu baserrietako atso-agure zaharrak izan yoadaz euskal-irakasle ta euskaltzainik onenak eta yakintsuenak. Eta nekez aintzakotzat artuko yoagu, iru lau ken eskeru, eliztikerietan baino euskerea etxakikenen erabagirik (1). Gogoan izan daigun orain lo-zorroan dagon, eta ik eta nik ondo yakigukan beste alderdi bat be yagiko yakukula usterik gitxien yuagunen baten, oraingo euskaJ-idazle askoren asmu ta erabagiak bazterturik ekaitzak urratutako beste bide batzuetatik yokatu gura izango yokan talde bat.

Ni neu, ondo dakikanez, baserri-
tar utsa nok, euskeraz asi, ezi ta bi-
zi izandako basotarra, ta nire esa-
nori txakurraren errenari beste ya-

ramon egingo dautsek; baina euskaltzaina izateko beste inoiz yakin-
go etxoadan-arren, txarto ta ondo yagokana yakiteko euskaldun utsak yekugun berezitasuna bai-yoat, Ots; *euskal-sena*.

Andima gozagarria baino
Mitxelenaarrigarriagokoagoyakan
ezkeru,etzazaserretukoadiskide-zu-
rrian, ezetariko erra txarrik bage,
idazki onen bidez olez dagiadalako,
Gauza utsakaitik lagun-artean alka»
rreri parkeskatzen ibiltea ez yuagu
gurea lagun.

Urrengorarte ba, Yon; eta idaz-
ki onetan esanen azkezipena baino,
eure arrikadak artzeko gertuago
naukakan eure aspaldiko adiskide,

(1) «Ameselako euskerea», Gar-Arte-
ta'r J. A. neure erritarrak esan yaustia-
zan itz ok, orain urte asko. Abade argi
au euskal idazle bikaina genduan gudu-
aurrean. «Jesus'en Biotzaren Ila» ta «Mi-
ren'en Senargeia» eleberritua idatzi yo-
azan bizkaiera ederrez. Gudu-ostean er-
deraz (au lolzagaria !) ezkontza-arazuaz
liburu bat. Oraindik ez dok zaharra bai-
na tamalez, euskerearen etorkizunaz
etxok itxaropenik, antza...

GOGAIDE EZ, BAIÑA BAI ADISKIDE

(Orixe jaunari, begiramenduz eta adiskide antzera)

TXILLARDEGI

Berriki, «Peru Leartza-ko» nere liburuaz kritika garratz bat agertu da «YAKINTXO»ren orrietan. «Li. buruaz» idazterakoan, «liburuaren kontra» jartzeko zorian ibilli naiz, ain dira-ta beltzak Orixe'ren iritziak: «Ez dugu emen olakorik bear»... «Liburu au buruz egiña orde, burutik egiña dago. Bazartu ezazute zoko illunera»... «liburu onek... egin dezaken kaltearengatik»...

Orixe ez da nerekin zurikeritan ibilli. Eta olako jokabide jator bat, gogorra eta zakarra izan ba zait ere, ez al da goratzekoa eta eskertzekoa? Nik, beintzat, biotzez eskertzen diot

jipioa; gezurrak, lauseguak eta losentzak azkenean danentzat oso kaltegarri gertatzen baitira.

Gaiñerantzean, liburu berri bati gerta dakiokan txarrena ez da, eskierki, kontrako iritziak jasotzea.

Euskaltzaleon artean, eta euskera iltzeko zorian dugularik, ez dugu eskubiderik egia alkarri orraztutzen edo izkututzen ibiltzeko. Jakin egin bear dugu euskaltzaleok nun gauden, zertan geran, eta euskeraren aldeko gure alegiñak zein maillatakoak diran. Eta Orixe'ren ori irakurri ondoren, nereak nolakoak izan errez jakin diteke...

Onengatik, Orixe'k artutako bi-

deari ondo derizkiot, eta nere aurkako bere astinduak ere egokitzat dauzkat.

* * *

Puntu batzutan, alere, ez nator Orixe'kin bat.

Orixe'k eskubide osoa du, noski (neuk dudan berbera) uste duen guzia pentsatzeko eta esateko: etzan besterik falta! Bein bakarrik gizondu baita Jaungoikoa. Galdetu gabe gizonari Bere Legea bidez sinistaztea Jaungoikoari berari baitagokio. eta ez gizonari.

Eta Orixe ta ni biok ez gatoz bat.

Euskerari nagokiola: «egon» eta ((izan)en goraberaz, esate baterako, guztiz bestaldera pentsatzen dut; eta nere uste au izkribuen bidez frogatekealakoan nago: geuk galdu dugula uste dut sartaldeko euskaldunok; eta ez beraz, izkuntzaren alderik geien-geienetan gertatu zai-gun bezelaxe.

«Na» ela «La» ren erabiltzeaz ere, besterik uste dut (ikus Altube'ren «Erderismos», 120 gn. orrialdean). Bizkaian ez-ezik, Gipuzkoa geienean ere Altube'k azaltzen duen bezela erabiltzen dira: biak, eta ondo bereziki (Goierri guzian, eta Kostaldean Orio'tik aruntz, gutxienez). Nafarroan, Oria'ko aranean, eta araindiko euskaldun errietan ez: badakit.

Beste puntu batzutan, ordea, Orixe'k arrazoia duela sumatzen dut.

* * *

Gaiari nagokiola, berriz, ez dut emen luze erantzun nai; ots, ezin erantzun dezaket. Arrazoia zein ote ez dakit, baiñan ez nator Orixe'kin bat.

Esate baterako: piztu ondoren, Lazaro'k etzuen ezer esan «Jaungoikoaren reinuaz».

(Ikus Juan'-enebanjelioa, Lazar

buruzmintzatzendanbakarra)...

Alaber: Aristoteles eta Jaungoikoa BI dira, ez bat; geiago ere: nik dakidala beinipein, leenengoa etzan bigarrenaren profeta izan... Aristoteles'en kontrakoa naizela esateak ez dit lotsarik batere ematen.

Baiña, eldu dizaiodan agindutakoari: puntu aukeratu ezin ditezke arinki ikutu. Nere asmoak noizpait maitzen baldin ba dira, lan berezi batean aztertuko ditut Orixe'k aipatutako puntu oiek beste zenbaiten artean.

Dana dala, nola bukatuko dut Orixe'k dion au oartarazi gabe? Onatx: «Unamuno, Leartza, ta olako oiek, guk aña duda ta kezka izan ote dute fede-gauzetan? Ez diegu ohore ori emango. SANTUAGO TA ERASO GEIAGO» (sic). Baraka zazu, Orixe jauna: baiña Leartza gizajoari beroaldi batean orrelarik itzuri ba litzaio... Kontuz!! «Etzazute epai»: santuen Santuaren itzak dira.

* * *

Iritzi guziak ez dira onak; entzungarriak bai: beti, eta danak. Geiago ere iritzi oiek eraaten dituzten kristauak. Euskaltzaleok nagusikeriai utzi-ta alkarriketan asiko ba giña; eta alkarri entzungor egin bearrean, alkarren entzule biurtuko ba giña, obeto joango litzake euskeraren eginkizuna.

Ontarako, noski, auxe da derrioreko baldintza: euskerari buruz Jaungoikoak oraingoz zipitzik esan ez duela aitortzea...

Beste era batera esanaz: danok

merezi dezakegu jipoia, danok egon gaitzke oker, danok ikasi bear dugu, danok egin bear dugu gure iritzien frogantza, danok izan gaitzke alkarren zerbitzari.

Ez danok pare-parean, noski. Baiña danok.

Orixe jauna: anitz esker.

Gogaide ez gera: bagenekien biok.

Baiña, zereatik ez adiskide?

Donosti'an, 1960 ko Abenduaren 24 ean.

Zenbaki **Zenbaki zaarrak**

Ba-dira zenbait ale erregu bat egin genizuela: zenbaki zaarrak nai zituztenek adierazi zezatela, alegia. Ez dira berriro ale zaarrak argitaratzeko bear ainbeste izan erantzun digutenak. Au dela-ta beste zerbait erabaki dugu: zokoratuta dauzkazuten ale zaarrak berriro biltzea. JAKIN'en bilduma osoa nai dutenak ba-dira, baiña berandu xamar esnatu ziranek ez dituzte ale denak. Oraingoz zenbaki auek erosiko genizkizueke: 1, 2, 5, 7, 9'garrenak.

Eskerrik asko.

ZUGAN DUT ITXARO

IZTUETA'tar PAULO

Gabiltzan mundu ontan, erromes batekin topa nauzu. Aldatzen gora neketsu dabill. Marcel, beraren ize-na. Esistentzialismoaren abeslaria izaki, kantari dator. *Katolikotasuna* du kanta-gai. Lantxo ontan, belarriak erne, noakion entzunez. Bes-terik gabe, plazaratu dezadan gizon aundi au katoliko-atorretan. Au dut egin asmo.

* * *

«*Ego sum*». Ni nerez ezin ezagu-tu naiteke. Berak ederki: «Izatearen trajedi-zoritxar mingotza. Nere bizitzaren zergatikoa ikus baneza... Kaxkar naiz eta ezer gutxi naizelako biziki erremintzen. Ezin lekutu dezaket nerenean bame - misterioa.

Egaka doakit». Ba-dakit ba-naize-la; nola naizen ez. Nigan nork da-maidake erantzuna? Misterioa... Mundura ninduten jaurti; mun-duan nago. Munduak *ni* bat geiago du, *au* ta *ura* diran legetxe. Gizonok ba-dugu alkarrenganako joera bizia. Marcel konturatu zan. Utzi ditu bazterrean filosofi-alegiñak, eta be-re biotzaren ateak iriki. Laguntz-es-kerraren zai dago. Utikan gereiko-tasuna. Loratu bitez giza - animan, doai-muskillak lerdan, bat-besten el-kargoan. Lagun urko... torizu ne-retik dudan oro; ar nazu zurenean osorik. Gere erlazioeri gauzki, ob-jetive, so bagenie, sasi-gezurra baño ez genuke lortuko. Auzpeztu gaite-zen misterioaren oñetan umilki. Or-dañetan, ba-letorkigu ondorio ede-

rrik, ots, burutu ezinik gabiltzan problemaren erabakia. Begiratu diztirkor batek, biotz - bekokian, joko bagindu, uxatuko lizkiguke gere barne-keak. Jeiki bedi beraz, misterioaren illunpetik, egunsentia. Marcel'ek milla bider amesturiko goiz-nabarra! !

Azkenean, 1929'an, egunaren ederra dasta zizun. Bizitzan zear ikusiriko fede - izarrari zintzoki jarrai zion. «Berandu eldu naiz kristau federa, ibillaldi luze ta kupidagarri baten ondoren. Etzait damu ibiltari izana. Beste ainbeste opa diet, biotz-biotzez, nere oñak ibilligixako tokietatik dabiltzanei». Orain gutxi ibiltari gendun. Gaur, mendiaren puntan etzinez dakusgu.

Maiz erori oi zan larrimiñarep presondegian. Bortxaz, nostalgjiaren su-garretan kixkaltzen zan,

Mundua, kuedarik gabekoerlojua iduribidezaio. Teknikarenerdoiakku-tsutu du. Larrimiña, animaren gaxotasuna izanik, senda dezaket. Zatozkit bizi-laguna, samintasunean lagundu nazazun. Au gizonaren kementa, salbabideak arakutzen! Gratzi a ixilki barrendu zaio animan zear. Bertan zerutar musika piña nabari. Jainkoaren mintzoa dabilkio nunbait eresi - otsean. Nundik ote datorkit ori, itxaropena eraiñez? Entzun anima. Fedeak egiñik du egitekoa. Ulerkaitz zait oraindik misterioaren sakona, baño neretu ditut itxaropena ta fedea. Len, illak tristura zemaiddaten, urrundu ziztaizkidalako. Orain orde, maite

genituenak oska dauzkagu illerrietan eta Jainkoaren deia dakarkigute. Oroi nadin, benetan bizi zaizkit eta.

Misterioa argitan. «Santutasunean, —au osoosoki artuki— badakust adimen-altxor aundiko zerbait. Ontolojiaren atari da. Au aitortzeko ez bide dut lotsarik». Krisis gogorak astintzen dute gizona. Santutu edo nere burua il. Marcel'en pentsamentua norantz balantzatuko ote? Larrimiñaren legea bada. ki: *nazka*. Santutasunak, ostera, bizitza urrei-a dala dasaio. Jainkoaren urratsak oartu artaño, olaxe dabilkigu, gixajoa kezketan urtutzen.

Sar gaitez an Misterioan. MUNDUak arnas estua damaigu. Misterio-eguratsen, ba-genuke uhats be-teagorik. Ezkondu zan-geroz. espe-rirentziak erakutsiriko egiaren indarra zitzaion bultzagarri, erlijioa onartzeko. Garai ontan, filosofi-musak oparokien iztaldu zun, edota, igurtzi zion adimena. Bere familiarren argazkia eskuan zuala, zion: «Emen daudenak dira naizanaren zergatiko; auek, egunen batean, pozkidaz, eriotzara emanen naute-nakn.

Misterioak alkar batzen gaitu. *Ni zu ta ura* emen gaituzu besarkatzen anaikiro. Bai eder maitasuna! Nor-nairi papera utsean eskeñi dezaio- ket, idatzi dezadan gogokoan deritzaiona.

Maitasuna, bai, eriotz-mugarritik goruntz doa. Benazko maitasunean, niregan dut maitearen irudia, bera-

ren zatitxo puxka. Misterioari atek zabal banezazkio, eguzkiaren orratz bortitzak ninduteke soko, ots, Jaunaren arpegiak txorabiaturko.

Ni nmizanaren berri Zugan dakit, Jauna. Deika ta asperenka olesan Jainkoa idoro du. Ez noski kosmoloji bidez, au da, ex effectibus ad causam igoaz.

Marcel'i, misterioan sartzearekin batera, bizitzan ere, barne-aldaketa berezi bat gerta zitzaion. Estularriaren tulunbioan etsitzen zego nean, orduntxe zitun siñismenaren begiak zorrotz-zorrotz. Jainkoa gv baitan somatzen badugu ere, "Aesperientziz dasta eziña zaigu. ooilsoillik gogorazio ixill - garbietan txurgatzen dugu Aren bizia. Jainkoagana arrimatzen noan eran, nere izatasunaren biotz - muñetan barnekiago naiz kabitzen. Ez dezagun juzga Bera nor liteken. Etzaizkiogun eska egirpaper aitorrak. Aren nortasuna ukatzekotan, nere lenen... Zeru-erreñua muga gabea da. Graziak gozatzen dizkigu biotzak, garratz orduetan ezta ixurka. Gizaizatasunak ba-du zeregin: milikatu. Lotaratu gaitezen otoitzaren magaletan. Dezagun itxaropen. Onak ez bide digu gezur-itzarik emanen, gutxiago egiñik. Zuzentzen dizkiogun eskariak entzungarri zaizkio. Gu gatzazkio maiz sorgor. Espero nedukan ta itzuli nintzaion. Zorioneko nere itzulketa! !

Ain zuzen ere, fedean etzegon ain bizkor. Dei - eragikor batek barnak inñarrotsi zizkion: «...zergatik etze-

ra gurekiko?»). Mauriac'k zenun mintzo zitzaiona. Deiaren entzutearekin, bare zedukan adimen-itsasoan olatuak zerbait aserretu ziran. Obeki esan, bildur-oskirria zizun senti. Deia zeru - goitik zetorkion, Mauriac'en bidez. Erantzun ere, gizonki, eskertuz erantzun zion.

Charles Du Bos'ekin solasean ari zala, zion: «Ziur nago siñeskai egiak burua korapilloz beteko didatela. Ba-dakit, baño ez naiz bildur. Gogo-errotasunak ez bide nau menderatzen». Tjrezko biotza! ! Apaltasunaren oparia! ! Jainkoa gertu dula uste duanean, izkututzen doakiola konturatzen da, odei illunetan zaiola estaltzen. Alaere, barne-aolku batek indar damaio: *ez rutdirv arrotu*. Fedeak auxe eskatzen zion: igaro zedilla, konfiantza osoz, begiak itxirik, illunpean, tulunbioaren zubiz gain, eroriko etzan ustez. Fedeak, goitiko izaki, goiean dizu sorteri. Emen oro da argi. Ta Jainkoa datzan xedea, berriz, argiaren-argi. Marcel'ek, Guardini'k esaniko ura ondo beretu zigun: «Fede, beste argitik pizturiko argia da».

Goi - eskerra bakoitzari dagokion moduan eratu oi da. Esperientzia mintzo zaio: «Ez nago zalantzan. Zorion betea nere, gaur goizean senti dutana. Goi-eskerrak bere lenen muxu biguña ezarri du animan. Bildurgarritzko itzak darizkidanak, baño egi - egizkoak. Kristautasunak esitu nau. Bere barrutietan barna larratu naiz. Eta zorionez». (Bataiatu zan egunean).

Itxarapena. Zatozkit itxaropen, animari dakidiodan arnas. Ekaitz eta larrimiñetatik garaille banendi, birtutez ederretsiko nintzake, maitasunean goi-malJak irabaziko nituzke. Biotz, itxaropen!! Jainkoak munduari denbora damaio. Ez da uzta berdearen gose. Bijoia gozatuz eldu arteño. Sasoia iritxi dezadaionean, itaia gañeah duke.

Bideratzen geran artzulo illunetan zear, itxaropenaren argi-txirristak baizik ez gaitu argitzen. Zatozkigu, Zu, argiaren-argi, edozein aize gaiztok itzaliko digun bildur baigaituzu. Kristo, Maria'ren erraietan gizondu zan-geroz, Elizarekin esposa zitzaigun eta, bidenabar, gizadi osoarekin. Irutasun - Donean zeraman eta daraman bizitza eguzki galdatan ixpillitu zigun. Berak gordetzen digu izkutuki izkutuenetan denbora guzien amaia: «Iñork ez daki ez egunik, ez ordurik». Filosofi; etzaitugu iragarle. Egiozu toki Jaunari, zure ordeak bete ditzan. Ala ere, filosofiak ba-du, ziurki, lenen-lenen dagokion betekizun bat: *gizona zmdu*. Ontan, Unamuno'kin bat dator. Pazientzi - onbideak zerutar-txertoa isasten digu.

Itxaropenak ba-du ziment-arria: Kristo'ren piztuera. Bai, Jauna. Zuzan eta lagun-urkoagan dut itxaro. Adixkidetasunak zeñen inñausketa bizigarri oi dagizkin geren bizitzan! Guzua kima berriak indartsuago erneko zaizkion itxaropenarekin. Maitasuna!! Karidadea darion itza.

Eduki dezakegun erregaluri balio tsuen, egirik ikusgarrien.

Eta zer da soñez jazten gaitun errealdade edo egitasun au? zer, ingurumariko izakiak abestuki, dantzugun polifoni xoragarri au? Auxe: *elkartasun - trazervdentalak, dagigun itzala.*

Jainkoa, ereskontza —orkesta— baten zuzendari duzu. Munduan gaudenok osatzen dugu. Eresi entzungarririk ateratzen da. Maitasunaren itsas-zabalaren barru-barruan gagoz. Mundua, ixpilluan antzo, urgañean dakusgu. Loituriko ixpillua dirudi. Tarteka-marteka Kristo'ren ditzira islatzen zaigu. Ikuskizunaren ederra ta sinfoniaren goxoa lortu nai badugu, begira dezaigun sor ta lor, aspertzeke. Nere maiteak jasaten duana, bedi nere janari. Onela dukegu, gurea ez dan, baño dakusgun erreñu ori. Ken ditzagun lur-arropak «ta bota gaitezen itsasora.

Olatu illun batek bultzatuko gaitu eztakigu norantz. Ez gabilzkizu gu gere aalmenez. Olatuak bat-bes-ten segidan garamatzi. Itxaropenaren besoetan goaz kairuntz.

* * *

Marcel'ek onelaxe margoztuko lizuke gizadia munduan. Mundua artzulo bat duzu. Sartzen gera bere aozulotik. Asieran, illuna, sapaie-tako ituzur otsa ixilla urratuz. Areago, putzu, irrits-uneak, aldika arri latzak zauritzen gaituzte. Ba-dugu itxaropen, irtera billatuko dugun fede itxua. Dezagun bular. Azkenean. Ara!! Ikusten? Argia. Eldu gera

ta zillarrezko itsasoan murgill, zeru amestuan. Gizadi osoa dago gaxorik. Artzuloaren barruan dabill. Sem e asko ta asko daramazki erromesean. Artegi bakarrera bildu baleza berekin daraman artalde... Pozarren, bai, edanen lukete ur gezatik.

Ba-dakigu nolakoa den Marcel'-en deia: *alkar - laguntza*. Gatzazkion deiari biotz-ukibera, Gaitezen fededun.

Eskutan erabilli ditudan liburuak:

«La filosofía de hoy». (Sciacca)

«Filosofía contemporánea». (Coppleston)

«El existencialismo en su aspecto ético». (Alcorta)

«Literatura del siglo xx y cristianismo». (Moeller)

«Estafeta Literaria».

Orixe'ri erantzuna

Jaun agurgarria: lotsatuta be gelditu naz emon daustan erantzunagaz. Zer esango dabe ezagutzen nabenak? Orixe Kamiñazpi'ri «bedori»-ka!

Bai, ba, «Ekin»-go idazlea nintzala esan neban eta zarren bat izango nintzala pentsau eban berorrek. Ez, enaz gaztea baiña berorren ondoan bai. Ez dakit zenbat baiña mende laurden bat bai arrikkure. Beraz elizgizon edo osagille be enaz eta ez dagokit berorren «bedori»-rik.

Eta alkarregaz urteetan baiño beste alderik ez begeunke! Baiña ba-daukagu bai, ta ez gitxi be. Eskola bakua naz ni. Amabi urte osta-osta neukazala lanean asi nintzan. Eta ordurako makinabat besigutarako tresna aita zanari enkamau neutsazen.

Gerora ez dot ezetariko ikasketarik egin. Esku-langilleen lana bai sendo!

Onenbesteagaz asi nadin berorrei erantzuten.

1.—Egia da «Ekin»-era neure erriko barriak'eta bialtzen nebazana (orduan, eta oraintsu beste bat izen onegaz ikusi arte, «Iturrondo» izenpetzen neban) baiña bertako idazleetan Manterola ta IbagutxL bakarrik daukadaz gogoan. Eta berorrek a artikuluagaz egin ebala diñon idazlan aren barri sekula ez dot euki.

2.—«Ni neu», «zu zeu» ta olakoak asko esaten dira Ondarru'n eta bere errazoi-txoaz izango dabela-ta nago.

3.—«Bekidaz» dala-ta diñostana egi andia da. Neuk be sekula erabilli ez dodan itz au erabiltzeko komtu apur bat artu bear neban. Dana dala, eskarrik asko.

4.—Au, iñoren eztabaidetan sartzia da baiña. Txillardegí'ri Pera Leartza'koan darabilen euskeraren akatsak agertzean bat auxe aitatzen dau: «la orde-na, a. b.: ba-dakit ala dana. Gv-e aldean ez det beñere entzun eta belarrian min aundia ematen dit». Bear bada Gipuzko'an ez da —na ori erabilliko, baiña Bizkaia'n bai. Bizkaia'n ederto dakigu —la ta —na'ren zeregiña bereizten, eta ori euskera ona da. Artikuhi onetan bietara ikusi leike.

5.—Azkenez arlo barri bat. Azken-aurreko «Jakin'en geigarrian» artikulutzazko berorreu idazlana ikusi-ta neidi: be gai beratzaz zeozertxu idatzi neban, baiña beti bialtzeko, berandutu egin iatan. Eta orain ez-baian gelditu naz. Ia Orixe jaunak astiñaldi ederren be emoten daustan! Baiña besterik ez bada be Ondarru'ko artikululegeak norbaiteri atsegin izan leitekiozalata, or doa ezer aldatu barik.

Besterik ez, Orixe jauna, Parkatu ta agindu.

Kamiñazpi

KRISTIANISMUA TA FILOSOFIA

ANDONEGITAR XABIERREK

—A rantazu' koa—

Kristianismua agertu bezin laister, ondo bizitzeko era bat bezela azaldu zan. «Ni naiz bidea ta bizitza» esan oi zuan bere Irazailleak. Baiña ez da au guztia. «Ni naiz Egia» ere esaten ba'zekian, ta esaten ausartu egin zan. Egi osoa, betikoa, biurtze - eziñekoa. Jainko egiutsa gizondu zanetik «nor» biurturiko egia, betiko zorionera zuzen-zuzen garamazkian egia.

Antziñako filosofiak ez zuan orren gora jo; egi-zaletzat zeukan bere burua, ez beste, ta ala izanik baita gizonen biderakusletzat ere. Batez ere, len lendabiziko fedea ipuien illunpetan ikusgaitz alpe-

rrikaldu zanetik, filosofiak gogoen zuzendaritza bere gain artu zuan. Auek onela, topo egingo dute kristianismuak eta filosofiak. Betebear antzekoa dutela konturatzen dira, naiz bide ta alegiñetan berezitu. Kristianismuak lenengo uutikan egingo dio, ta filosofiak ostera iguin-irriz begiratu goitik bera. Geroxeago adiskidetu egingo dira.

Burrukarako Tertuliano da oke-rrena; fedea ta jakintza alkar ikusi-eziñekoak dira beretzat. «De Carne Christi» liburuan onela mintzatzen zaigu: «Jainkoaren semea gurutz-iltzatua izan dala-ta ez gera lotsatzen, lotsagarria izan arren eta dalako, alegia; Jainkoaren semea il

dala... siñisten errezena, itxuraga-bekoa baida; obiratua izan, ta piztu, dana egia, ulerezña baida». Itz auek, baezpadan montanista zan sa-soian idatziak, berari erasten zaion esakuntza'arexen permiñ berea du-te: «Credo quia absurdum est». Ala ere itzak ez dira bere ezipaiñetatik sortuak.

Ba-dira, ordea, filosofiak kristau-ari egin dezaioken mesedea begi azkarrekin somatzen duten bat baiño geiago. Ordurarte Jakintsu izene-koak kristautasuna uskeritzat, jende xearen siñiskeri zorotzat zeukaten. Ordua zan gaizki esanaz jabetzeko ta ixillik gordetako erantzunak gertutzeko. Ortarako, filosofi arekin artu-emanak bear, filosofia-aren leku lauan alkarri arpegi eman bear.

Ba-da batez ere bat, Elizako gurasoen artean, bere buruari «filosofilari» deritzana, filosofia ta fedea-aren artu-emanen prolema auxe odolean daramana. San Justino dala antzeman didazute. Onezaz dio A. Puech'ek: «Justino donearen gogozko ta ekitezko bizitzak naiz batean naiz bestean du iturburua; eta esan diteke Justinok biak alkartzen asmatu duala, bietatik bizi izan dalako, ez bailuke bizitzen asmatuko bata besteaz itotzekotan». Ikusi dezagun bada laburki filosofilari aiña kristau dan onen pentsakera, bearez eta zaletasunez gure prolema darabilen ezker, ondo barnean ereiña daukan ezker.

Kristau izatera eldu zan ordura-

ko filosofiaren berri zerbait ba-ze» kian. Lenago lau eskola dastatua duzu, uste sendo ta igi-eziñak sortu-azten duan filosofia, ots Kristianismua, onetsi baiño len. Orain bada-ki onenbesteko filosofi ziur eta onuragarririk ez dagoala munduan. Filosofilarien estalki berezia soiñean duala or dabil batera ta bestera arkitutako egia nunai zabal-tzen. Bere ustez: «Egia esateko gauza izan ta esaten ez dutenak, Jainkoak epaituko omen ditu egunen batean». Geroago Erroman bertan kristau - bizitza erakusteko eskola bat jarriko du lenengo aldiz, ezagut-zen zituan eskoletako metodoak erabilliaz, eta zetorren edozeñi bere erakuskizunak gogoz eskeiñiaz. Ta an egongo zaizu, izkutatu nai gabe, kristau izenaren etsaiak iltzera eramateko bere billa etorri arte. Beraz bere anima ozkarbia bezin paketsu ta gardena zan, zintzoa iñor sekula izan bada, gartsua... Au duzute Justino filosofilaria itz laburretn.

Ta ain gogobeteko zaion filosofia zer ote da beretzat? Aitu dezaiegun: «Filosofia izatearen eta egi-ezagut-zairen jakintza da eta zoriona da jakintza eta ezaguera onen saria».

«Egia bezela, filosofia ere bakarra da. Ta alkarren esanak ukatzen dabiltzan eskolak filosofiarekin zeri-ki gutxi daukate».

«Filosofilari izena mezeri aal-izateko, egizale leiala izan bear du edozeiñek eta beti egiari serbitzen jar-dun, naiz-ta askotan «egiak begiak erre».

Beraz, entzun ditugunen arauz, filosofiaren asiera egiaren billa dabilen anima zuzenaren jokaeran bertan dago. Orregatik dio: «Filosofia, dugun gauzarik onena da benetan, Jainkoaren aurrean bikaiñena. Bera bakarrik da Beragana garamazkiana ta bere ardura irabazten digun, eta santuak dira benaz bertan adimena darabilkitenak».

Baiña egia ezagutze ortan, arrazoi utsak, beste laguntzarik gabe, Jainkoa ba-dala jakiten ta ondo ta gaizki egiñak berezitzen naikoa du, osterantzeko goranaik pakean utzita ere. Ta eginkizun ortan ere... Kondaira lagun dakigu, gizon geienak gezurrezko uste ta siñiskerietan bizi izan dirala deabruak egitxurazko lilluraz iruzur eginda. Baita filosofilari aipatuak ere jakingarri nagusiak alde batera utzita gauza guztien zertasunak zeal eta egokiro epaitu nai izan dituztenean alkarren aurka mintzatu izan zaizkigu, guztien bidegabekeria agirian jarriaz. Aparteko batzuk bakarrik izan dira beingo begiradaz gure arrazoiari dagozkion ezagun-aal guztiak argi ta garbi nabaritu dituztenak. Baiña ontan ere deabruak zelatan zebiltzan eta ez zuten atsedetik artu eurak eripetu edo gutxienez erbestean baztertu arte. Aueta-ko batzuk Sokrates, Heraklito, Musonio-ta ditugu.

G-añera filosofilariengan egi-izpiak bakarrik arkitzen dira, sekula ez egi osoa. Au ikusteko, Jankoari buruz egizkorik ezer gutxi erakutsi

dezaiguketela oartzea naikoa da, ez baidute Bera ikusi ez entzun. Eta Jainkoa ezagun-aal-izatea edo ezak, bai garrantzi aundia dula Justino rentzat! Jainkoaz ezer ez zekiala-ta, naikoa izan zun bere bigarren maila izan zan estoikotar, batengandik, iges egiteko. Gizonaren adimenak Espirilu Santuaren laguntzarik gabe ez du Jainkorik sekula ikusiko; gure anima bitartekotzat ezagututa, onenean aal-izango gendukeana, —Jainkoaren ispilla eta irudi baida— au ere galerazota daukagu anima bera ezin dezakegulako bear bezela ezagutu.

Onegatik, ez da mundu guztian beste jakintza osorik kristianismua bazter. Oaegatik filosofilariak ezin eraman gaitzakke egi osora, kristianismura. Ortarako bear eta izan dira Jainkoaren adiskideak Espiritu Santuz beteak; eurak agertu ziguten guztia ikusi edo entzundakoa da, ez baizuten arrazoiketa ta asma-zioz idatzi, egiaren testigu zintzo asko bezela baizik.

Baiña emen ere ez ditu arrazoiaren eskubideak ukatu nai. Berarentzat, bere usteak egiztatu ditzazketen bakarrak kristauak dira. Egiztatze onen errorik ondoena igarleen mintzoetan datza. Beraz, mintzo oien egiazkotasuna istori-arauz egiztatu diteke eta bere agerpenetan gezurrezkoak ez zirala izan mirariak eta bate ere igarkaien betekundeak adierazten digu: «Ainbeste gauza ikusteak, bidez sortu ditzazke egizaleongan uste sendo ta siñismena»

dio. Naiz-eta anima gertu baten eta batez ere Jainkoaren graziaren premian arkitzen gerala ortarako aitortu urrengo.

«Euren idatziak —irauten baidute, noski— egizkotzat artuta irakurtzen dituztenak onura aundia artu dezakete gauzen sustraiak eta elburua jakite-auzietan, erabat esateko, filosofilariak jakin bear luken gauza orotan». Begira nola Goi-agerpenak lagunduriko arrazoiak bakarrik izan ditzazkean eskubide zabal ta bikaiñenak filosofia maite duan egi osoa atzematerakoan.

Ona azkenik kristianismua das-tatu zuaneko filosofilariaren sentimentuak: «berealaxe sentitu nuan barnean ixiotzen zitzaidala gar bezelakoxe bat, igarleenganako ta Kristoren adiskide diran gizonengana-nako maitasun sutsu bat nitzaz jabetzen zan bitartean, eta nere artean pentsatzen... konturatu nintzan au bakarrik dala filosofi ziur ta onuragarria. Onelaxe bada ta auek ala diralako naiz ni filosofilari ta naiago nuke gizon guztiak, nereia aiña adorez, Salbatzaillearen oiñatzen ondoren baletoz».

Au bai dala polita! Filosofilari onen ametsak burutuko zituan arkikundea —Kristianismua— beste filosofi bat ez da, ba?

Benetan, Kristianismua filosofi utsa baiño geiago da: sinismen eta goi-bizitza bat. Baiña egia jakiteko gurari bat, sophiazaletasun bat au ere bada, filosofi ziur eta onuragarri bakarra. Izan ere, filosofiaz Justi-

no'k uste duana uste izanda, agirian dago Kristianismua filosofiaren ondabide bezela ezin duala artu, filosofia burutuko dnan arkikunde zoragarria bezela baizik. Bertan mundatar jakintzari uko egiten bazaio ez da ondatzearren beste jakintza goitar batean aberastuta berrartzeko baizik. Orregatik iñoiz ez duzu ikusiko filosofia kondenatzen ari dala fedearen izenean. Ta ori filosofiak gogobeteko egia ezin eman izan dio la gero: au dena filosofilariak Jainkoarekiko auziak aintzat artzen ez zituela, bere arduratasunaz ta animaren izakera ta etorkizunaz entzun-eziñak ta lotsagabekeriak esan dituztela. Justino'k, filosofiak ezin eman izan dion jakintzaren jabe, ez du ala ere filosofia zapuztu. Atsegin zaio ostera, filosofilariak konturatu adieraztea: izan ere filosofuak zeugabe nola kristau izan zitezkean katen onena Moises'i jesandakotzat zuan eta eei-zatirik iñun baldin badago Logos'ak emanda omen dator.

Onelaxe eskoletan banatuak zuden egiaren azi ta dirdira etenkorak, Kristianismuaren argi betean bilduak, filosofiaren egiazko betetasuna osatzen dute. Eskoletako irakaskizunak ta kristianismua filosofi dira egia ezagun-arazten diguten bitartean: onek ordea egi osoa, aiek egi-izpi ta dirdaiak besterik ez.

Lenago oartu genduan bezela: Justino'renlat egia -billa dabillen anima zuzenaren jokaeran asten da filosofia (in actu prlmo) ta burutu, kristianismuarekin osorik gurega-

natzen dugunean bakarrik. Orain-
goan bai egia: «filosofia gauzarik
onena dugula, Jainkoaren aurrean
bikiñena... bera bakarrik Arenga-
na garamazkiana... santuak, bene-
tan, bertan adimena darabiltenak».

Justino ta Justino bezela beste
apolojetak izan ziran fede ta arra-
zoiaren artean lenbizi zubia bota zu-
tenak Geroago Alejandria'ko esko-
lak jarraituko zuan filosofia ta Tes-
tamentu zaarra alkartu naiean, Fi-
lon'engandik zetorren tradizioan se-
giaz. Onela, Origenes'entzat, Israel.
darrak Ejito'tik irtetzerakoan era-
man aalizandako urre - zillarrezko
gauza mordoa arrapatu zuten beze-
la, beste orrenbeste fedeak ere,
munduko jakintza ustiatu bear lu-
ke. Alejandria'ko Klemente'rentzat
berri, Kristo'ren etorrera-ordurako
gertu zitezten eman zien Filosofia
jentilleri Jainko arduradunak, ju-
dutarreri Testamentu zaarrekin ger-
tatu zitzaizen antzera. Urrango, Ka-
padozia'ko iru gurasoak kristau-ira-
kaskintzan grezitar filosofiaren gai
geienak erabilliaz lan egin zuten,
iritxitakoak sendotuz Eta onelaxe,
auzi ontan azkenengo itza

fuak esandako egiak, fedearengana-
ko bearrezko begirunea gorde ezke-
ro, esku - artetik kendu egin bear
zaizkie gezurrezko jabe balira beze-
la eta gure egin. Batetik gogo-lanean
zeaztasun-egokitasunak artu bear di-
ra batez ere, ta gaiak ere bai beste-
tik, fedearen esanetan arrazoiz ba-
rendutzeko, argiagotako ta arrazoiaren

bertantxeago egi oien esan-naia, lo-
tuneak, arraonia, sustrai ta ondo-
reak ikustearren.

Justino'k-eta ekindako lanari ta
abegi leunezko jokaerari eskerrak,
fede fedearen jakintza biurto aal-
izan da. Arrezkero Erdiaroko filoso-
fiaren ikurriz bezela jaso zitekean:
«Intellige ut credas, crede ut inte-
Uigas» aipatua.

Orain arte esandako guztian —ez
da gaitza konturantz — ez da fe-
dea ta jakintza-soil artean ondoko
berezitasunik agiri, mailla - bitarte-
koa baizik: fedezko egi betea ta egi-
erdikak edo gutxiago diranen arte-
ko aldea; baiña ala ere biak ari ba-
tekoak Aria ebatea kristau fedeak
ez zuan bidezko uste. Orrela iraun
aal-izan zuten goi-fedearen nagusi-
tasuna ta fede-jakintza baten amets
burutua. Oso geroan, Kant'ekin-eta,
banatuko dira errondotik fede ta
arrazoia, logika - eten ikaragarria
gertatzen dalarik. Kant'ek adibidez
dionean: «jakintza utzi bear izan
nuan fedearengana urreratzeko».

Oar bat merezi du beste gertaera
batek. Justino donearekin naiz San
Agustin'ekin ere, fedearen nagusita-
suna eraman zuten filosofo eskubideak
irentsi bsarra dirudi askotan. Arra-
zoiaren mendeko egia, bazterretan
aizeak eramandako egi - azitxoaren
antzera, fededunaren jakintzari
—bidezko jabeari bezela— zor ba-
litzaio.

T o m a s deunarekin bakarrik,
Aristoteles'en kutsuz, berrematen
zaizkio jakintza naturalari bere nor-

tasuc eta eskubideak, Teologiaren Iaguntzaille-txartela azaldu bearrik gabe. Orrela Summa'ren asieran galdetzen du ea jakintza naturalaren ostean beste jakintza goitarrik izan diteten, ots Goi-agerpena. Oar. tu ordurarte arrazoiaren eskubideak bearko zutela agirian jarri, ez fedea-renak. Berarentzat bakoitzak, bere eskuko ta bere eskubideekin, dauka bere betebearra; ta bietzaz jardungo du osotze bat egiten. Ala ere, Erdi-aroko sementa izan, beretzat ere fedeari dagokio munduaren berri ematen duten jakintza guztiak osatuko dituan uztaiarta jartzea. Ala dio: «gezurrezkotzat utzi bear dira beste jakintzetan Teologiari ostez dau-denak.

Dana dala, gora-bera auek dira gutxien. Ajolatsuago dugu beste zerbait: fedea ta arrazoiaren ezkon-

tzeak sortu izan duala Jaspers'ek aitorturako miriaria: «Erlijioa da —dio— oraindaño izan dan izakera iraunkorren ta mamitsuena sortu izan duana; Erlijioa arrazoiak lagunduta, ez dana berak egin bearra. ren bearraz eta arduraz, gizon *iede*-dunen bitartez baizik, euren benetasun eta iraupenaz».

San Agustin'ek betiko bedeinkatutako ezkontza onek zer-ikusit ika-ragarria izan du sartaldeo pentsamentu osoaren bizitza guztian. Ala ta guztiz ere ondoondoan eten-miña ez da sekulan zearo itzaldu. Prole-mak dirau, gauzen erraietatik sortzen baida:

—Pentsamentu naturala ta Goi-agerpena izatez eten ondolik, ezberdiñak baldin badira, nun batu ditte-zke? —Ta an-emen badaki berri-ro buztantzen...

DESCARTES'EN ZALANTZA-BIDEA

IRAOLAGOITIA'TAR PIRMIN

—Pasiotarra—

Filosofari onek ez digu zeresan ta zer-idatzi gutxi eman filosofi sailletan gabiltzanori. Eta oindioik ni ere zerbaitxo esatekotan nabil.

Ez noa zalantzaren sustraietatik asi ta bere bizitza ta edesti dana azaltera. Ataltxo batekin naikoa dut: Descartes'en zalantzarekin. Baña gai au ongi erabiltzekotan zalantzaren edesti-saillera osterata bat egin bearrean gaude. Zertara? —Beste zalantza batzuen billa. Descartes'enaren ezaupen eta azalpenarako, eszeptiko ta eskolastikoen zalantza zer dan jakitea oso bearrezkoa dugu. Orregatik zalantza oieri ikutu txiki bat egin ondoren

Descartes'enarekinasikogera.

1.—Eszeptikoen zalantza.

Gizon oiek ez dute itz askorik merezi. Itun eta beltza da benetan oien bizitza. Ez ain txalogarriak beren erakulsiak ere. Egiaren argi-betera iñoiz ere ezin gindezkela eldu esaten digute.

(Zalantza gorrian bizi dira beti. Zalantza - malantza negargarria beren eguneroko ogia. Oñarri ta zentzunik ez duan. zalantza. Zalantza oso zindo ta betikoa. Guztira, ezer ere ez. Zalantza au ta atariko aizea, dana bat. Egira joateko bidea izan, bear luteke, baka egirik tmartzen ez duten ezker, ez dute bearrik. Zalantzatik aurrera ez dira igarotzen.

Bere barruan egiten ditue jakintza-
ren ausnartze guztiak.

2.—Gure zalantza.

JAKIN'en irakurleak ba - dakite zalantza onen berri. Eskolastikoen zalantza irizpenaren geldi-erazte zur eta zentzuduna da. Baña ez betikoa, eszeptikoena bezela. Adimenari argi ta garbi azaldu arte bakarrik. Zalantza onen bitartez egiaren barne-muñetaraño sartzen gera. Egirako bide dugu, gero sendotasun jakintsuz zalantzaren mende dauden sinisgarriak ateratzeko. Gure zalantza egirako Zuzendari, Maixu ta Biderik zuzen ta onena dugu. Orregatik zalantza onen erabilkundera oso onuratsu ta legezkoa da, noski. Beste onura asko alde batera utzirik, arrazoi auengatik;

a) Aurrelik daukagun egi, siñiste ta usterik ez digu kentzen.

b) Gure ezagutza koxkorrak obeto sakondutzero eragin ta bear-tzen gaitu.

d) Gure irudimeneko ezagupenen sorkunde, arrazoi ta zentzutasu. na azaltzera ere zalantza onek garamazki.

Eta ez Filosofian bakarrik;

Teologian ere erabildezakegu. Tomas nintzan ezker, zerbaitxo ba-nintzala: Deunak etzuan euki beste ikaspiderik bere «Summa Theologica» zear: «Utrum Deus sit, — Videtur quod Deus sit». Gure Maixu aundi au bide ortatik nolako jakintasan ton-

torretara igo zan ikusiaz guk ere bil-durrik gabe jarraitu dezaiokegu.

3.—Descartes'en zalantza.

Descartes begi zorrotzekoa zan. Baña ez, zorigaitzez, apaltasun aundikoa. Bere denporan eskolastikak egindako berakada begien aurrean zeukean. Eta zalantza berealaxe egin zan Descartes'en buru argi, altsu ta susperraren jabe. Egiaren leiketetasuna ta ezagutzaren zalantza. Ara noraño dijoan bere zalantza: «Jardun, diskutidu ta zalantzatu gabeko baiezen eta esakunik ez dezakegu aurkitu»-esaten digu. Beraz, gauza guztiak zalantzaren galbaitikan pasatzen asi gaitzke:

a) *Zentzuak, sarritan* atzipetuzten gaituelako.

b) *Oarmena*, gezurrezko ametsak dagizalako.

d) *Egirik garbi ta argienak*, Jainkoak gu atzipetutzea baliteke-ta.

e) *Jainko berbera ere bai*, Jainkoaren premirik gabe lamiña baten mende bizi gaitzke-ta.

Baña gauza oiek ukatzean, danak gezurrezkoak zirala pentsatzean —dio Descartes'ek— egi baten premia nabaitu nuan: Pentsatzen ari nintzan ezker, zerbaitxo ba-nintzala: «Pentsatzen dut, orduan banaiz». Ara emen bere filosofiko giltzegi ta oñarririk sendo ta argiena. Bera izango da beste egi guztien sorkunde ta iturri.

Gañera, —darrai berak— «pentsatzen dut, orduan ba-naiz» esatera beartzen naun arrazoia au besterik ez da: «Eguerdiko argitasunez, illuntasunik gabe ikustea. Eta orrela izanik arau au artu nezake: Argitasun eta bereiztasunez ulertzen ditugun gauzak egitsuak eta egizkoak dirala.

Itz gutxitan esateko, Descartes'en filosofio oñarriak auetxek ditugu:

Lenentgo: Ikaspide zalantzaduna.

Bigarren: Oñarririk sendo ta bearezkoena: «Pentsatzen dut, orduan ba-naiz».

Irugarren: Egi guztien irizpide: Argitasun ta bereiztasuna.

4.—*Descartes'en, zalantza, zindo ala ustela al-da?*

Descartes'en kolko barruko gurari ta naiak alde batera utzi ditzaugun lenbizi. Berak mintzatu ta arrazoiz idatzi zuanari bakar - bakarrik begira dezaiogun. Eta orrela, erakutsi zigunari jarraituz, —ez erakutsi nai izan zuanari— bere zalantza benetakoa, orokorra eta egiazkoa dala ere bildurrik gabe esan dezakegu. Bestela etzukean zillegit barruko egiak zertan kendu bearrrik. Egi auek gezurrezko zalantzaren galbaitik igaro litezke. Bere jarraitzallerik purratuenak ere uste ontan daude «Descartes Ikaspide Beriarren Irazle» dala dioten ezkerro. Lotsagarri litzake izen onekin goraldutzea, gezurrezko zalantza

besterik erakutsi izan ez balu. Aurretik ere zalantza onen berri ba-genekian eta danak zerabilten.

5.—*Descartes'en zalantza hritika.*

Descartes'en egizko zalantza au iñundik ere ezin genezake onartu ta erabilli.

Aren zalantza, berak ezetz ba-dio ere, eszeptikoena bezelakoa da. Eta beste malla gabe zalantza ontatik egirañoiko saltoa eziñekoa dugu. Gauza guztiak zalantza - mendean daudeño ezin dezake esan bera badala. Egi au ere zalantzapetik ezin diteke irten.

Descartes'ek, eszeptiko, arrazoi-tiar eta gogaitiar edo idealista oso bat izan gabe, eszeptizismo, arrazoi-keri ta idealismora garamazki.

a) *Eszeptizismora.* Descartes'ek zalantzatik egira joateko biderik gabe uzten gaitu. Obeto esateko, badauka bidea; baña, agertu dugunez, ez du iñora joateko balio. Bidea galtzeko bakarrik. Descartes'en lepotik Rabier'ek oso zorrotzki idazten du: «Descartes gizon zurregia izan zan. Ez galtzearren anka biak ebaki zitun. Orrela ez dago pausorik ematerik. Ez da galtzeko bildurrik ere».

Eta bein anak ebaki ezker ezin dezaioke iñori biderik erakutsi. Au izan zan Descartes'en naia.

b) *Arrazoikerira.* Descartes'en iritiz arrazoiak argi erakusten duna bakarrik siñistu diteke. Gañe-

rantzekoak ez dira bere kolporako. Ez dago geiago esan bearrik sail ontan. Ez dager illuntasunik.

d) *Idealismora*. Oarmenari garrantzi aundiegia damaio. Ez aundiegia bakarrik, soilla ere bai. Eta oarmenaren agerkai eta argibideak, barrukoak, norberarenak dira. Bere barrutik ez dago irtetzerik. Orra idealismorako atea zabalik...

6.—*Bakoitzari berea*.

Gaur iñcrk ez du ukatzen Erdi-Arotik Aro Berrirako saltoa Descartes'ek eman zuala. «Aro Berria'ren Aita»-dasaiote danak. Ez da gutxi gizon batentzat.

Bere aipu ta ospe guztia ontan

datza: Ikaspide berrian; zalantza bidean. Descartes'en filosofia ezin diteke katolikotzat artu ditekenik esan; baña bai ez dala eskolastikoen. Irabazitako txalo ta gorespen danak bere gogo arrazoitiar utsagatik dira. Descartes'ek eskolastika gora jasotzeko asmatzen ekiñarren, bidean, ikaspidean utsegin zigun.

Gure filosofiko oñarri gogor eta sendoenak aztertzea nai zuan. Bera baño buru argiagoak landu ta zertutako filosofitik aldendu zan. Orreगतिकान Descartes'en buru gañean, ainbeste jarraitzalle siñisgogor ta arrazoitiarrez egindako burestuna jarri genezake. Ez pitxi ta urre ederez apaindua, alajañetan ! Eta gure gizaldian jarraitzalle askorik ez dager. Ez du merezi ere.

APAIZ ZERA, KRISTAUA?

MUXIKA'TAR ERRUPIN

—Lazkao'koa—

Auxen galdera... Apaiz ote naitzen... Ez det uste. Ez dut ortarako estudioirik egin. Sotanarik ez daramat. Gizonezkoak txapelik ez didate jaso oraindano, ta aurrak berriz, «Ave Maria Purissima'rik» ere ez didate zuzendu... Mezarik ez dut ematen... Nola, beraz, ni apaiz?

Langille bat naiz. Eskuak zakar... zakarregiak apaiz izateko. Eguneroko lanak lastu dizkit: olategiko lanak, baserrikoak, itxasokoak...

Ni, berriz, jostuna. Goizetik sukaldean, arratsaldean oial josketan. Oraindano ez dut entzun andrezkorik apaiz daitekenik. Ez du ba Paulo doneak esan, emakumezkoak Elizan ixillik egoteko? Nola beraz apaiz?

Ara nik esan, *Zu*, kristaua, edozein zerala ere, apaiz zera, nai edo ez. Apaiz zera, gizon edo andrezko zerala, motiko edo neskatxa, aur edo urtetan aurreratua, olategian edo baserrian langille, jakintsua edo ezjakiña. Kristaua zera? Apaiz zera.

Baña cz jararaonik nere esanari. Nai baduzu zapuztu nere aitorra. Baña konfu, Idazti Santuak edo Elizako Gurasoak edo Aita Santuak orrelakorik erakusten badizute. Onartu oien erakutsia.

Zer diote oiek ba? Apaiz zerala, Kristoren apaiz. Ikusi dezagun. Ekarri dezagun lendabizikoz, Espiritu Santuaren argiz Pedro doneak esaten duna: «Aren (Jesu Kristo'ren) gañean zerok ere, arri biziak

bezela, pillatu zaitezte, gogozko etxe ta apaizgo santu izateko, ta Jesu Kristo'ren ederragatik Jainkoak onartuko ditun gogozko opariak eskeintzeko». (1 Petr. 2, 5).

Beste nonbait: <<Zuek berriz, enda aukeratua, errege aîneko apaizgo, erri santua... zerate» (2, 10).

Joan ebanjelariak bere Apocalipsis edo *Ageritako'en* Liburuan onela dio: «Jesu Kristo'k bere odolaz gure obenetik askatu gaitu, ta bere Jainko ta Aitaren erreinu ta apaiz egin». (Apoc. 1, 5)

Bidali biak zein baño zein argiagogo mintza dira. Diotenez, kristauerri osoa apaiz maillara jaso izan da. Elizako Gurasoak ori bera aitortzen dizute ao batez. Entzun:

Ireneo santuari: «Kristauak oro apaiz dira». (Adv. Haer. 4, 8)

Agustin aundiari: «Kristauak, Apaiz Bakarraren atal dirala jabetuta, aitortzen dugu, apaiz dira». (Civ. Dei 20, 10)

Jon Krisostomo'ren mintzo ederra: «Zu (kristaua) apaiz egin zera bataioan». Jeronimo ospetsuari ta I Leo Aita santuari, ondoren: «Kristau soillen apaia egitea bataioa da».

Baña ez dizkizut antziñako jakintsuen aitorrak bakarrik eskeñiko; gaurgaurkoak ere ba-dira, Aita santuen lumatik sortuta Ara emen, XI Pio'k aitortu: «Arrazoi osoa zun Bidalien Buruak kristauegaz au esatean, «erri aukeratua, apaizgo santu zerate». («Misererentissimus» Idazkia)

Askoz argiago ta biziago XII

Pio'k: «Kristauak nolabait apaiz dirala ezin da nkatu ezta ere zalantzaz jarri. Ez da zillegi duten apaizgoa gutxietsi ta neurritz estutzea». Aitor argiagorik, nekez.

Jabetu ze;a apaiz zerala. Baña jakin bear duzu ere, zergatik eta noiztik zeran apaiz. Ba-dakizu, kristaudoktriñak erakutsita, Bataioko la Endotza Sakramentuak gure animan marka kendu eziña ezarri dutela. Aragi begiz ez dugu marka ori ikusten, ala ere benetan darama kristauaren animak. Marka orri esker, *Zu*, kristaua, Kristo'rekin bat egin zera, Kristo'ren anz-itxuraz jantzi; Kristo'ren atal, Kristo'ren apaiz zera. Efzera gero edozein! Aundi zera benetan! Kristo'ren apaizgoz bitan markatua!

Akino'ko Toma doneak erakutsi digu ori: «Sakramentu marka oiek Kristo'k dun apaizgoren zati dira». (Summa III q. 63 a. 3) XII Pio'k, Toma santuaren bideak urratuz, ara zer dion: «Kristauak bataioko uretan Kristo Apaizaren atal egin dira; Jainkoari gurtza egiteko eskubideak jaso ditute, ta beren mallari dagokion neurritz, Aren Apaizgorekin artukizun dute».

Zure apaiz eginkisunan.

Ikusi duzunez, apaiz zera, betirako apaiz. Zein dira zure apaiz eginkizunak, einbearrak? Ez noski apaiz sotanadunarenak. Onek, Gotzaiaren bitartez, Kristo'k emandako

almenari esker, sakramentuak egin eta banatzen ditu; baita ere Mezako ogi-ardoak sagaratu ta eskeñi ; igandetan berriz, Jainkoaren itza zabaldu. Oiek dira apaizaren eginkizun nagusienak. Zureak ez dira ain neurri zabalekoak. Ala ere ez nolanaikoak. Apaiz zeralako.

—Ezkontza sakramentuan (ezkondua bazera beintzat) ezkantzalle izan zera.

Senar-emazteak egiten dute Ezkontzako sakramentua, ez apaizak. Onek, Elizaren lekuko egiñez, bedeinkatzen du ezkontza, baña ez ezkontza egin. Oker esana, beraz, olako ta alako apaizak ezkondu giñuzan.

—Ezkonduaz gero semerik bada tor, apaiz eta guraso zeralako, zorerrek ezi bearra duzu aurr, kristau doktriña ta oituretan. Jainkoaren semeeri egia erakustea apaizari dagokio, Zuri beraz.

—Ezin bestean, ta aurr il zorian arkitzen bada, bataiatu bear duzu. Orregatik kristauak oro jakin bear dute bataiatzen.

—Baña zure apaiz-eginkizun nagusiena Meza ematea da. Meza eman, bai. Ez dut zuzentzen esana. Ez da joan bear elizara Meza entzuzera, esatera, ematera, eskeintzera baño. Apaiz izateak beartzen zaitu ortara. Elizaren agindua betelzeko aski duzu igandez Meza, naiz laburrena, entzutea. Baña zure apaizgo ori aintzat badaukazu, Meza eskeñi ere egiñen duzu.

Nala eskeñi Meza santua.

Eskeñi esan dizut, ez entzun. Entzuteko aski baita zentzuak artara jartzea. Eskeintzeak zerbait geiago eskatzen ditu. Eskeintzea egitea da, biotz-almenen erabiltzea. Mezetan zerbait ona eskeintzen zaio Goiko Jaunari. Ez abere ta igaliak lege zarreran bezela, Kristo Berbera baño. Meza santua Gurutzeko Opari-Berritze dugu.

Nork eskeintzen du Kristo? Jesu Kristo'k Berberak bere Burua eskeintzen du. Kristo dugu *Apaiz Bikaña, apaiz Nagusia*. Elizako apaizak Kristo Apaiz Nagusiaren ordezkokoak dituzu. Kristoren aginduz ere, apaiz mezemalleak Kristoren Gurutzeko Opari bakarra berritzen du. Baña apaizaren itzalpean Kristo ari da meza ematen, Jainkoari bere Burua esketzen.

Apaizak, Kristo'ren ordezko jatorra dalako, ogi - ardoak sagaritzen ditu, Kristoren Gorputz eta Odol biurtzen. Ba-du ortarako alraena, Kristok emanik.

Kristau soillak ez du era ontan Meza ematen. Ez du sagaritzen, ez Oparia egiten : baña bai eskeñi. Eskeintza da kristauarentzat Mezako eginkizun garaiena. Eskeintzera beartua dago Mezatan oparo artukizun izateko. XII Pio'k esaten du.

Mediator Dei'an: «Eskeintzen dugun nsurritz dugu mezatan artukizun». Mezako otoitzak ere ze besterik erakusten dizute». Ara: «Nere morroi opari au, ta zure etxeko gu-

ziona, emaro ar zazu». «Auen alde eskeintzen dizugu edo dizute ospe opari au». «Guk zure morroiok eta zure erri santu onek, oparia garbia, opari santua, opari itzalgabea eskeintzen dizugu». Eta zergatik agurtzen du apaiz mezemalleak erria, oles egiñez «Jauna zuekin». «Otoitz egin dezagun». «Gora biotzak». «Egin otoitz anaiak» t. a.? Agur eta dei oiekin Meza ematen, eskeintzen laguntzeko eskatzen dizu. Ez ukatu Kristo'ri, Ordezkoaren bitartez eskatzen zaizuna. Jainko Jaunaren sorkari bat zera, ezer utsetik sortua. Uneoro bere eskutik artzen duzu indarra, izateko almena. Beraz Jaungoiko ori *gurtu* bear duzu, *eskertu*; *barkapena* eskatu bearrean zera, *laguntza* ere bai. Meza eskeintzearekin ori dana egiten duzu.

Gauza erreza da orï. Ortarako ez daukazu latiña edo gaztelera apain ikasi bearrik. Gurasoak erakutsitako euskera zarrean ere, bikain baño bikaiñago egin dezakezu eskeintza. Ta nik uste, Jaingoikoak gizon askok baño zuzenago ta pozago entzungo dizula.

Itz bitan Meza eskeiñita duzu: apaizak eskeintzaldian ogi • ardoak bere eskutan jasotzean, zuk ere orrelako zerbait esan dezakezu aoz eta biotzez: «Artu beza Jaunak opari au zure eskutik...»

Baña bertsoan atsegiñago bazai- zu, orrela berriz:

«Torizu zeruko Aita
Jainko aundi, betikoa;

Torizu guk eskeiñia
Bai ogi ta bai ardoa».

(Bertso ta gero azaltzen diranak, gure elizan eta Euskalerriko beste zenbait elizetan, igandero abesten dira).

Baña Meza eskeintzeko garairik egokiena Sagaratze ondorena da, noski. Orduanxe, apainzarekin batera, esan ditzakezu itz auek: «Zure morroi onek, Jauna, opari garbia, opari santua, opari itzalgabea eskeintzen dizu».

Kristore'hin Zu eskeiñi.

Asko al da Kristo eskeintzea, Me- zatan? Ez ba. Ez duzu gutxi egingo Kristo eskeintzen baduzu; baño gei- ago ba - dezakezu: Kristo'rekin *Zu* eskeifii. Izan ere Meza Kristo osoa- ren Oparia baita, ots, Agustin do- neak dion bezela, *Gorputz Mistiko- aren Oparia*: Kristo ta bere atalen Oparia. Gurutzean Kristo bakarrik eskeiñi zan, gizon guzien ordez. Orain, berriz, meza bakoitzean. Kristo atal (kristau) guziekin eske- intzen da. Orregatik, *Zuk* zure nor- tasunaren eskeintza Kristo'renare- kin batu bear duzu, amoz eta go- goz Kristo'rekin eta apaizarekin bat eginda. Xil Pio'k esaten dizu: «Ez lukete aztu bear kristauak gero, Gu- rutzeko Kristo'rekin bat egiñaz, bes ren Buru, neke, estuasun, lan eta bear guzien eskeintza egitea».

XI Pio'k: «Orregatik (Meza Kristau oroen Opari dal'ako) apaizaren eta kristaueu oparia batu bearrak dira, auek ere opari bizi, santu ta atsegingarritzat Jainkoari eskeintzeko».

Gregorio Aundiak Kristau erriari: «Mezatan geure burua eskeiñi bearra degu, izan ere, eskeintzen geranean izango da Meza, Opari gurtzat».

Agustin santuak, aserre antzean, au esaten zien bere Elizako kristauei «Kristauak, Jaungoikoak zuen esku-ikusiak baño naiago du zeuron eskeintza».

Beraz ez utzi, kristaua, Mezarik zure izate osoaren eskeintza egiteke. Bertso auen bidez ederki eskeiñi zindezke. Ara:

Gorputz-animak
Biotz garbia
Artu, gure Jaun,
Artu guzia.
Eman ordainez
Grazi-bizia.

Eliz-dirua
Ta ondasunak
Dana zuretzat
Neke ta lanak
Zuretzat ere
Parre-negarrak.

Zer ordainduko diot Jaunari?
Quid retribuam Domino...

Zer ordainduko diot Jaunari egin dizkidan ondasun guztiengatik?
Orrela zion eresgilleak bere baitan, biotza estu ta larri.

Kristaua, etzaitu galdera onek larritzen? Zenbateraño etzera zordun Jainkoaren aurrean? Duzun on guzia Jainkoari zor diozu. Grazi-bizitza, giza-bizia, animako ta gorputzeko ondasunak, dena Goiko Jau-nak esku betez emanak. Jakintsuak, zerusapaitik gorako gauzetaz mintzatzen zaizkigunean, lerdena dario-la gelditzen gera. Ta zer? Giza-soinaren joskera ta bere zentzuak ez al dira arrigarrikoak? Ze misterio (izkutu) arrigarriak ta sakonak arkitzen diran, adibidez, begian!

Ta grazi-bizitzan ze esanik ere ez! Esate baterako, nola korapillotzen dira Jainko-grazia ta giza askatasuna?

Ondasun arrigarri guzti oiek Jau-nak zuri eraan dizkizu. Ta Zuk, ordaiñez, zer itzuliko diozu? Gizonak pekatua du bakarrik berebera.

Baña ez larritu. Ba-duzu bide bat Jaungoikoarekin zorrak kito egiteko: Meza santua. Meza eskeintzen duzunean, ontzako urre onenez ordaintzen duzu, Jainkoak emandako txanpon beraz. Kristo da ordain ori, Gurutzeko *Kristo* berbera.

Gurutzean bezelaxe, Mezatan ere, Jainkoagandik gizonen biotzetara errukia mara-mara dator; Jaungoikoak, Mezatan, gizonen pekatueri, ikaragarrienak eta ugarienak izanik ere, barkapena osoa luzatzen die.

Gurutzean bezela, *Kristo'k* Mezatan otoi au dagio Aitari: *nAita*, barkaiezu; zer dagiten ere ez baidakie». (Lk. 23, 34).

GAURKO KARAKTEROLOGIAREN BURUBIOEA ARROTZEN

(Bukaera)

BAZTARRIKA'tar Daniel

Josulagunak.

Gorputzari begiratzuz somatu ditelen izakerari dagokion sailla zer-bait arrotu dut. Orain anima-izakerari dagokionari ekingo diot:

ATARIA

Kide onetako lenengo eraketa *Baini* zor diogu. Iru gizon mota irakasten dizkigu: adimendunak (intelectivos), maitekorrak (afectivos), eta naimentsuak (voluntariosos).

Domingo Perez'ek, agurotasunari eta mogimendu - indarrari zegokienez saildu zitun gizonak. Sei eratakoak bada jarri zizkigun.

Ribofek batasun berdintasunak oiñarri jarririk, iru landatan gizo-

nak zenbatu zitun: sentzumendunak (sensxtivos): apal, ikusle {contemplativos), ta igikioietan (emotivos) zatituak. Eginzaleak (activos), berriz, eginzale - eginzaleetan (puros), eta ainbestekoetan (mediocres) zatituak. Eta motelak (apáticos): motel-moteletan eta motel-miatzaleetan (calculadores) erdibituak.

Geroago *Malapart'ek* danen onurki guztiak artuaz beste eratze berrri bat zertu zun: Gizonak zazpi sailletan banaturik, sail bakoitza bitan edo irutan-edo berrebaki zitun: motelak, sentikorrak, zaletsuak (apasionados), adimenzaleak (intelectuales), naimentsuak, bildurtiak

(timidos), eginzaleak eta berdiñ edo eintsuak (equilibrados).

Zer esanik ez dago langintza onetan norberetasun gutxiegi arkitzen dugula etorkizun ospetsuegia aurretatzeko... Bere betebearra baño, nolabait bete dula usten dut, gure berriketa eta itzaldietan karakterologi au eskuratuena baideritzait.

Le Senne'en karakterologia:

Kant eta batez ere *Heymans* eta *Wiersna* izan ditu karakterologionek asabak. Eta oraindik ere

nean ezagunagoa dala usten dut. Izakera eta noiberetasuna bereizi egiten ditu: izakera ez omen da aldatzen. Norberetasunak, berriz, izakera eta bizitz zear jardetsiak omen daramazki berekin. Ezagugarriei dagokienez, bi eratakoak omen dira: bearrezkoak eta bigarren mailakoak.

Bearrezkoak: igikotasuna, eginzaletasuna eta dardarra (repercusión, resonancia) omen dira. Aueta-ko bakoitzari baietza edo ezetza eman ondoren, alkar gai auek naastu eta zortzi gira-era ateratzen zaizkigu: a) Igikoi-egonzale-oraiñaldikoak: *Saintsuak*. b) Igikoi-egonzale geroaldikoak: *Sentikorraik*. e) Igikoi-eginzale-oraiñaldikoak: *Asarrek*oak. d) Igikoi-eginzale-geroaldikoak: *Zaletsuak*. e) Igikor-eginzale-oraiñaldikoak: *Odoltsuak*. f) Igikor-eginzale-geroaldikoak:

Astitsuak.g) Igikor-egonzale-oraiñaldijartzen ditu. Ara izenak: koak: *Mazkalak*. h) Igikor-egonzale-geroaldikoak: *Motelak*.

Bigarren mallakoak: kontzientzi zabaltasuna, gauza asko batera oartu ala ez, adimen analitikoa ala ez, et berekoitasuna ala bestekoitasuna, burrukazaletasuna eta abar dira...

Ez noa bakoitzari dagozkionak esatera, danon jakiñean usten baiditut. Karakterologi au oraindik osatzeke dago, eta akatsak ere baiditu: ia ez omen dira arkitzen ez mazkalik ez motelik, Ez omen ditu bereizten igikotasuna (emotividad) eta maitekoitasuna (afectividad) *Sheldon*'ek bezela, eta; au bearrezkoak omen da... Ez ditu ere kontuan euki ondokoan eragiñak eta au ere faltaeziña deritzagu, bestela zertarako ditugu erakutsi onak eta abar?

BUKAERA

Binefek bi giza era jarri zizkigun: berebaitakoak (objetivos), eta bakoitzarenbaitakoak (subjektivos). Izenak berak naikoa adierazten dute. *Jaensch'en* osatzekeeri eta osatuerei darantzuiete.

Jung, sikoanalistak, beste eratze berri bat egin digu: kanporaitzuliak eta barruraitzuliak (extravertidos eta intravertidos). *Binet'en* berebaitakoen eta bakoitzarenbaitakoen berdintsuak. Gizamota bakoitza larena zatitan dagizki ondoren:

adimenzaleak, sentikorrak, sentzumentsuak (sensoriales) eta begiraldikoak (intuitivos).

Aurrepai geiegi dagizkila diot.

Spranger'ek berriz, sei giza-era

ustarikoiañak (teóricos), irudipendunak

(imaginativos), Jainkozaleak (reli-

giosos), Gizartezaleak (sociales), irabazizaleak (utilitarios), eta aginduzaleak (autoritarios).

Ezer berririk ez digu ekarri, bakoitzaren elorkizunerako zuzenbide bat ezik.

SIKOLOGI SAKONARI BURUZ

Sikologi sakona etorkizun aundikoa dugu nolana ere. Sikoanalista eta sikoterapeuta asko izendatu ditzakegu: Freud, Adler eta Frankl bakarrik baña aitaturko ditut.

Freud da sikoanalistaen aita. Berretzat HbiJo edo dalakoa dago giza miñ guztien ondoan. Iibido au baña eta aragi griña ez dira berdiñak. Libido au, —naiz-ta aragi griñaren kidekoa izan—, likizkeria baño zerbait edatsuagoa da. Ezin ukatu diogu Freud'i gaurko sikologiak zor diona. Eta ez da gutxi.

Adler'ek berriz, bakoitzaren sakan izkutuenean al-izan-gurea degula adierazten digu. Ortik omen datozkigu dauzkagun konplejo guztiak. Sendatzeko iru urratz dagizki: lenengo, bakoitzaren norberetasuna besartetu, ulertu. Bigarren, gizakumea adoretu. Eta, irugarren, bergizatu. Bere maixu Freud'ek bezela oiñarri bat bakarra jartzen du giza gaitz guztientzat eta gizonak orixe baño zatituagoak gerala diot.

Frankl'ek, azkenez, beste sendaketa era berri bat asmatu du: logoterapia bere izena. Oiñarri, berriz: gizona soiña ezik gogoia ere badala: «ez dugu nai, dio, aberetzat geure buruak eukitzea aingerutzat euki ditzazkegunean». Orrela bada siko terapia, sikoterapia bide ona izaki, ez dala bide onena dio, ez ta osoa ere: sikoterapiak ezezaguna ezagun egiten du, norberetasuna emanaz gure izkuntuan ari zitzaigun ari. Zerbait baña, oraindik falta: elburua .Ortarako giza lapalmenari ots egiñaz, zuzenbide tinko bat jartzen dio, gogozkoa bera, gogoia soiñaren gain baidago. Etorkizun aundikoa ematen du, naiz eta batedonbatzuengandik —adibidez Vallejo Nagera'rengandik— aztaraldi batzuk artua egon.

AMAIA

Or itz gutxitan, gaurko sikologi aztaraldi bat. Badakit lan au ez dala osoa. Ez da gutxiagorik ere. Baña zerbait beintzat, bada. Batez ere itz billa saiatu naiz. Langintza auek komeni zaizkigu euskaldunori batez ere, geure euskera jakintza guztien gai egiteko, beste izkuntzetara joan bearrik izateke. Nere lantxo au, bere gutxitasun eta akatsekin, ez dedilla gure artean azkena izan.

A mugitza dala-ta

Barrero be *a* mugitza dala-ta zerbait idatzi nai dot. Orixe jaunak «Jakin'en geigarrian» iñoanak emon daust burubide au.

Polito legoke orain erderazko *e/*, *la*, *lo* mugitzen esanairako a'ren orde*z* *i*, *u* ta abar idazten asiko bagiña! Erriren batzutan bear bada etxii ta besteren baten astuif ta olakoak esango ditue. Baiña ezer ez dakidala apostu jokatu*ko* neuke: Euskalerrri guztian ezet*z* erri bakar bat be arkitu olako edo alako izenetan *a* mugitza esaten ez dabenik. Ta oster*a* erri asko dira beti *a* darabilleenak.

Ez dakit euskereak mugitzaren aldaketa orrek jarlorriz daukozan edo ez, bai-

ño betikoak balitu be eurok baztertu ta danok, beti batasunagatik, *a* erabilteko errazoia indartsuagoa dala deritxot beste errazoiak baiño. Ta aldaketa orrek denporeagaz sortutakoak badira, barriz, milla aldiz indartsuago.

Ni neu beti *c* idatzi bear litzakela-ta nago. Baiña ala be auzi onetan argitasun apur bat emon al badabe, gure erriko, Ondarru'ko, mugitz legeak jarriko dodaz. Mugitzaren aldaketa guztiak izenaren azkenengo bokalaren indarrez izaten dira. Baita bokalean edo konsonantean amaitu be zer ikusia ba-dago. Origatik izenak sail bitain ipintzen doguz.

Bokaletan amaitzen diranak

<u>Indeterminado</u>	<u>Determinado sing.</u>	<u>Determinado plural</u>
NeskA	nesiki	neskeak
SemE	semi	semik
Ogl	ogije	ogijak
AstO	astu	astvdc
EskU	esku	eskuk

Irakurleak oartuko eban lez izenak indeterminado diranetan goitik bexa errezkadan *a, e, i, o, u* amaitzen diranak ipiñi doguz. Ikusten dauz *a, e* amaitzen

diranak *i* mugitza artzen dabe, euken azkenengo bokala kenduta. /-gaz amaitzen diranak *xe* edo *je* artzen dabe artikulutzat. Eta *o, u* amaitzean *u* dabe mugitza.

Konsonantean amaitzen diranak

<u>Indeterminado</u>	<u>Determinado sing.</u>	<u>Determinado plural</u>
IzAr	lzarra	izarrak
EpEl	epela	epelak
Giltz	giltze	giltzak
LegOr	legorra	legorrak
EstUl	eztule	eztulak

Emen ikusten dan lez konsonantetan amaitzen diran izenak *a, e, o* azkenengo bokala dabenean *a* dabe mugitza. Ta *i* edo *u* dabenean azkenengo bokala, *u* dabe mugitza.

Izen batzuk azentuagaB ipiñi dodaz, *etxi, astu* ta abar; euxetan indarra egiten dogula agertzeko.

Orixe'k ipinten dituan *etxii, astuu* ta olakoak gureen antzekoak izango dirala uste dot.

Zergaitik idatzi bear da bi bokal bar-

diñakaz? Azenturik ez darabilgulako: ez, bada, ez dago beste errazoirik. Gure *eskú, etxi, semi* ta olakoen azkenengo indarra ta erdaldunen papa, Zogú ta antzekoena bardin-bardiña.

Ondarru'ko *semi, alabi, eskú*, ta olakoetan azkenean indiajra egitea nundik datorren igarri leiteke. Len seméa, alabea, eskua, ta antzera esango ziran eta gero mugitza galdu arren azentua lengo tokian gelditu da.

Kamiñazpi

IZTEGITXOA

JAKIN ez baida euskaldun jakintsuen aldizkaria, ondo dirudigu iztegitxo au ezartzeak. Argitaratzen diren lanetatik arturiko itzez egin dugu. Ez da osoa izango, noski. Ez baida erreza ere orrelakorik egitea. Baiña oraingoz ez dago besterik: aukera gulxi dagoen mundu batean jaio gera ta kito. Aurrerantzean bada, idaz-lanarekin batera bial iguzute, mesedez, iztegitxo ere, fitxa edo papel txikietan. Alegia, ezagunak ez diren itzak. Millesker.

Agian: quizá.

Agitz: muy, generalmente.

Aitor: clásico.

Aiurri: carácter.

Arau: regla, norma.

Areago: más, tanto más.

Artegatu: inquietar.

Birrindu: destruir.

Dastatu: gustar.

Eleberri: novela.

Elkarrekiko: correlativo. (?)

Erauntsi: ocuparse.

Erdi-oiñaze: dolores de parto.

Erritar: seglar. (?)

Ezetsi: condenar.

Ezkutuki: secreto, misterio.

Gertakari: suceso.

Gorputz: cadáver.

Idaroki: inspirar.

Iraul-matxinada: revolución.

Isitu: obstinarse.

Izaki: ser, ente.

Jaurerri: reino, imperio.

Ola: fábrica.

Olertia: la poesía.

Oro: todo, todos.

Pentsa (k) era: mentalidad.

Soinki: miembro (gorpuzki).

Sorkari: criatura.

Xurgatu: chupar.

Zamatu: cargar.

Zenbaki: número (ale).